


Organización
de las Naciones Unidas
para la Educación,
la Ciencia y la Cultura
Hezkuntza,
Zientzia eta Kulturarako
Nazio Batuen Erakundea


25
Urteurren
Aniversario
Anniversary

• centro unesco euskal herria
• centre unesco pays basque
• unesco centre basque country



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Hezkuntza berraztertzea

Mundu osoko ongia lortzeko bidea?



Hezkuntza berraztertzea

Mundu osoko ongia lortzeko bidea?

2016ko otsailean UNESCO Etxeak argitaratua, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren laguntzarekin.

© UNESCO Etxea, 2016

Sarbide irekiko argitalpena da, honako honen lizentziarekin: Attribution-ShareAlike 3.0 IGO (CC-BY-SA 3.0 IGO) (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/igo/>). Argitalpen honetako edukiak erabiltzeak berekin Dakar sarbide irekiko UNESCOren erabilera-baldintzak onartzea (<http://www.unesco.org/open-access/terms-use-ccbysa-en>).



Argitalpen honetan erabilitako izenak eta aurkeztutako materiala ez dira UNESCOren iritzia ondu, ez herrialde, lurralde, hiri edo eremuen egoera juridikoari buruzko iritzienak, ez haien guztien mugei buruzkoena ere.

Jatorrizko izenburua:

Rethinking Education: Towards a global common good?

Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak 2015ean ingelesez eta frantsesez argitaratua
7, Place de Fontenoy, 75352 Paris 07 SP, Frantzia.

ISBN 978-92-3-100088-1 – CC BY SA baimenarekin.

Goi-mailako adituen taldeko kideak dira argitalpen honetarako aukeratu eta aurkeztu diren gertakarien erantzule, bai eta han ageri diren iritziena ere; iritzi horiek eta UNESCO erakundearenak ez dute zertan bat etorri, eta, beraz, ez da haien erantzule.

Dokumentu hau ez da UNESCOren argitalpen ofiziala, eta ez da halakotzat hartu behar. UNESCOren Rethinking Education dokumentuaren euskarazko itzulpena da, eta UNESCO Etxeak argitaratu du, Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskuzabalarri esker.

Itzulpena: Bakun S.L.

Diseinu grafikoa: UNESCO

Azaleko argazkiaren kreditua: © Shutterstock / Arthimedes

Hitzaurrea

Nolako hezkuntza behar dugu XXI. mendean? Gizartea aldatzen ari den egungo egoeran, zer helburu du hezkuntzak? Nola antolatu beharko litzateke ikaskuntza? Galdera horiek dira argitalpen honetan adierazitako ideien iturburu.

UNESCOren bi argitalpen historiko gogoan hartuta –*Izaten ikastea: etorkizuneko hezkuntza* (1972ko Faure txostena) eta *Hezkuntza: altxor ezkutua* (1996ko Delors txostena)–, erabat ziur nago beharrezkoa dela hezkuntzari buruzko gogoeta sakona egitea berriro.

Egun, egoera nahasia dugu. Mundua gaztetzen ari da, eta giza eskubideen eta duintasunaren aldeko aldarrikapen gehiago egiten dira. Gizarteen arteko hartu-emanak inoiz baino estuagoak dira, baina intolerantzia-kasuak eta gatazkak ugariak dira oraindik ere. Botere-gune berriak sortu dira, baina desorekak handiagoak dira orain eta mundua presiopean dago. Garapen jasangarria eta inklusiboa lortzeko aukera ugari daude, baina horretarako erronka zail eta konplexuei egin behar zaie aurre.

Mundua aldatzen ari da, eta hezkuntza egokitu egin behar da. Mundu osoko gizarteak izugarri ari dira eraldatzen, eta horrek beste hezkuntza-modu batzuk eskatzen ditu. Gizarteek eta ekonomiek gaur egun behar dituzten eta etorkizunean ere beharko dituzten kompetentziak sustatu behar dira. Horrek esan nahi du ez dugula mugatu behar alfabetatzera eta matematikako oinarrizko kompetentziak eskuratze; hau da, garrantzi handiagoa eman behar zaie ikaskuntza-inguruneei eta ikaskuntzaren beste ikuspegi batzuei, munduan justizia, gizarte-berdintasun eta elkartasun handiagoa lortze aldera. Presiopean dagoen munduan bizitzen ikasteko balio behar du hezkuntzak. Kulturaren alorreko oinarrizko kompetentziak eskuratu behar dira hezkuntzaren bidez, oinarri hartuta errespetua eta denon duintasuna, eta, hala, garapen jasangarriaren alderdi sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak sendotzen lagundu.

Hezkuntzaren ikuspegi humanista dago oinarrian, hezkuntza guztion ondasun nagusia –ongia– den aldetik. Erabat sinetsita nago ikuspegi horrek duela 70 urte onartutako UNESCOren Konstituzioaren muina eraberritzen duela, eta, aldi berean, agerian uzten duela zein den egungo egoera eta zein diren premiak.

Hezkuntza funtsezko elementua da garapen jasangarriko helburuen eremu global eta integratuaren barruan. Hezkuntzari berebiziko garrantzia ematen diogu, aldaketara egokitze

aldera eta bizi garen mundua eraldatze aldera. Kalitate oneko oinarritzko hezkuntzaren bidez lortzen dira bizialdi osoko ikaskuntzarako beharrezko oinarriak, etengabe aldatzen ari den mundu konplexuan.

Mundu osoan barrena lortu da guztiok ikaskuntzarako aukera gehiago edukitzea. Baina, hala ere, ikaskuntza egokia eskaini behar dugu, etorkizunari begira. Hezkuntzarako aukera edukitzea ez da nahikoa, garrantzi handiagoa eman behar diogu aurrerantzean hezkuntzaren kalitateari eta ikaskuntzaren egokitasunari, lortuko badugu haurrek, gazteek eta helduek benetan ikastea. Eskolatzeko eta hezkuntza formala funtsezkoak dira, baina ikuspuntu zabalagoa hartu behar dugu kontuan eta bizialdi osoko ikaskuntza sustatu. Ezinbestekoa da neskatok Lehen Hezkuntza amai dezaten lortzea, baina Bigarren Hezkuntza eta haren ondorengoa egin dezaten ere bultzatu behar dugu. Halaber, garrantzi handiagoa eman behar diegu irakasleei eta hezitzaileei, aldaketarako eragile baitira mundu zabalean.

Hezkuntza da aldaketarako indar erabakigarriena, besteak beste, giza eskubideak eta duintasuna sustatzeko, pobrezia desagerrarazteko, jasangarritasuna lortzeko, eta guztiontzako etorkizun hobea eraikitzeko. Hezkuntza horrek eskubide-berdintasuna eta justizia soziala, kultura-aniztasuna, nazioarteko elkartasuna eta guzti-guztion erantzukizuna hartu behar ditu oinarri, horiek lortzea baita helburua, eta horiek dira, aldi berean, gizon-emakume guztion gizatasunaren oinarritzko alderdiak.

Horregatik guztiagatik egin behar dugu berriro hezkuntzari buruzko gogoeta sakona eta diseinatu behar dugu hezkuntzari buruzko beste ikuspegi bat, etengabe aldatzen ari den mundua kontuan hartuta. Horretarako, ezinbestekoa da maila guztietan eztabaidatzea eta hitz egitea, eta horixe bera du xede argitalpen honek; hau da, inspirazio-iturri eta motibatzailea izatea aldi berean, aro berrian bizi diren pertsonentzat.



Irina Bokova
UNESCOren zuzendari nagusia

Sarrera


Uste dut denok pentsatzen dugula hezkuntza, terminoaren esanahi zabalena hartuta, denon ondasuna dela, mundu osoaren ondasuna. Ondare kalkulazina da, eta horregatik munduaren eta historiaren luze-zabalean biziraun behar du. Irauteko behar horrek berekin dakar hezkuntza etengabe, kritikoki eta dinamikoki birplanteatzeako beharra. Garai zailetan bizi gara, gero eta beldur gehiagorekin, aukera berriekin, zailtasun konplexuekin, baita duela gutxi izan zirenarekin antza gutxi duten ezaugarriak dituzten gizarteetan aurki daitezkeen aldeekin ere. Badirudi dena etengabe aldatzen ari dela eta ez dagoela atzera egiterik. Gauza bera gertatzen da hezkuntzan eta hezkuntzarekin lotutako «guztiarekin». Badirudi etengabeko birplanteatze-prozesua eta hezkuntza txanpon beraren bi alde izango balira bezala doazela historiaren eskutik, etengabe eta gero eta konplexuago birsortzen arituko balira bezala.

Hausnarketa horiek Juan Carlos Tedesco argentinarraren hitzak ekarri dizkirate burura, «krisi» eta «hezkuntza» kontzeptuak lotu zituen honako hau esan zuenean: «Betidanik hitz egin da hezkuntzako krisiaz, baina egungoak ezaugarri bereziak ditu: ez dakigu zer irakatsi, ezta nork eta zertarako irakatsi behar duen ere». Unescoren Hezkuntza Bulegoko zuzendaria, Hezkuntza, Zientzia eta Teknologiako Ministerioko idazkaria eta 2007tik 2009ra Hezkuntzako ministro izan zen. Hezkuntzari dagokionez, beti dira garai zailak, horregatik da horren baliotsua! Hezkuntza aldakorra, etengabe mutitzen ari den munduan.

XVIII. mendeko lurrun-makinak mundua aldatu zuen, gizakien indarra hein handi batean ordeztuz. Gaur egun, aldiz, ordenagailuak du, askotariko neurri, formatu eta funtzioetan, garuna bera ordezteko asmoa edo tentazioa. Inoiz ikusi gabeko eta paregabeko mutazioak ekarri dizkigu. Dena etengabe aldatzen dela ikusten dugu: zaharra ez da erabat hiltzen, eta berria ez da erabat jaiotzen. Informazioaren autobide izeneko horiek industria-garaian trenak ekarritakoa ekarri digute: trukeak intentsifikatzeko faktoreak. Internet mutazio handiaren muina da. Egia esateko, hezkuntzari dagokionez, ikasgela benetako erronka da, beti izan den bezala, eta etengabeko hausnarketaren mende dago.

Hainbat alderdiri buruz hausnartu behar dugu: bizikidetzari eta errespetuari buruz, irakasleari buruz, aniztasunari eta horren trataerari buruz, lortu beharreko gaitasunei eta gatatzak konpontzeko erari buruz, ikasleen betebeharrei eta eskubideei buruz. Gero

eta konplexuagoa den egoera batean eman beharreko hezkuntzari buruzko irakurketa partekatua egin behar dugu. Ez da erronka erraza, asmatzeko funtsezko beharra gure pentsamenduen gainean hegan dabilela jakinda. Agian, hezkuntzarentzako leku bat aurkitzea da helburua, hezigarrirako aurkitzen zaila den espazioa. Leku horretan, kritikaren lengoaia eta aukerarena optimismoz uztartzen saiatu beharko genuke. Hezkuntza erronka izan da betidanik. Hura birplanteatzea ezinbestekoa da denon ondare izaten jarrai dezan. Partekatutako hausnarketa zuzen egitea gure betebeharra da. Horretan ari gara.



Cristina Uriarte
Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika
eta Kulturako sailburua

Aurkezpena

Hezkuntza beti izan da “tribuaren” zeregina, herrien jakintza kolektiboaren zeregina; izan ere, herriek beren kultura-ondarea eta lortutako ezagutza guztiak hurrengo belaunaldiei transmititu nahi izan dizkiete betidanik.

Hezkuntza-helburuak herrien garapen-nahiei erantzuteko ere erabili izan dira: eskura dituzten baliabideak eta ingurunea erabili izan dituzte, pertsonak sozializatzera bultzatzeko eta elkarrekin aurrerabidean lanean jartzeko.

Beraz, hezkuntzaren helburuak gizadi osoaren helburu orokorrak dira funtsean, nazioarteko erakundeek giza eskubide unibertsalen barruan aitortzen dituzten helburuak.

UNESCOk, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak, badaki zeinen garrantzitsua den gobernuak hezkuntzari ematen dioten ikuspegia, herrien garapen-egoerarako egokiak diren politikak egiteko. Horregatik, hezkuntzari buruzko hausnarketa bultzatu nahi izan du, zenbait txostenen bidez; adibidez, 1972ko “Izaten ikastea: etorkizuneko hezkuntza” Faure txostenaren bidez, edota 1996ko “Hezkuntza: altxor ezkutua” Delors txostenaren bidez.

Orain, hausnarketa bultzatu nahi du berriz, “Hezkuntza berraztertzea: mundu osoko ongia lortzeko bidea?” izeneko txostenaren bidez, oinarri hartuta beharrezkoa dela hezkuntza aldatzea, aldatzen ari den mundu honi erantzuteko.

Izan ere, gizarteetan gertatzen ari diren aldaketa handien ondorioz, pertsonak, arlo kognitiboekin lotutako gaitasunez gain, bestelako gaitasunak ere garatu behar dituzte, gizabanakoen adimen potentzial guztiak beren konplexutasunean ongi lantzeko. Alde horretatik, berebiziko garrantzia dute ikaskuntza-prozesuek, bai eta hezkuntza-eragileek etapa berri honetan bete beharko dituzten zereginak ere.

Aurrerapen zientifikoei esker, ikusi ahal izan dugu edukiak transmititzeko metodoen bidezko ikaskuntza-prozesuek ez dakartela ikaskuntza esanguratsurik, baizik eta bizipenak –besteekin ditugun elkarriketak– direla ikaskuntza esanguratsurako bidea.

Bestalde, Interneten sorrerak aldatu egin du informazioa eta ezagutzak eskuratzeko modua, eta aldatu egin ditu, halaber, elkarrekin jarduteko dugun modua eta kudeaketa publikoaren eta enpresen jardunbideak ere.

Aldaketa horiek hezkuntzarako esparru berri bat eskatzen dute, garapen ekonomikoaren eta ingurumen-jasangarritasunaren erronkei ere aurre egingo diena, eta gizarte-justizia bermatzeko balioko duena.

Ingurune berri honi erantzungo dion hezkuntza bat kudeatzeko, berritu egin beharko dira irakasleen rolak eta hezkuntza-guneen diseinua, eta ikaskuntza esanguratsurako bizipen berriak bultzatu beharko dira, pertsonen sormena eta norbanakoaren eta gizartearen garapena sustatzeko.

Berrazter dezagun hezkuntza, beraz, mundu hobearen eraikitzeko.

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.

Nieves Fernández
UNESCO Etxea erakundeko lehendakariordea

Esker onak

Atsegin handiz hartu dut argitalpen hau historiaren une zehatz honetan; izan ere, nazioarteko hezkuntzan eta garapen komunitarioan aurrerapauso handiak eman dira Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko bidean. UNESCOren zuzendari nagusi Irina Bokova andreak kargu berria hartu eta harekin lehendabizikoz elkartu nintzenezan izandako elkarrizketaren emaitza da argitalpena. Solasaldi hartan adierazi zidan 'Delors txostena' berrikustearen aldekoa zela, hezkuntzak etorkizunari begira eta mundu osoan hartu beharreko bidea zehazte aldera. Adierazi nahi zuen, eta zentzuz adierazi ere, UNESCOk, *Hezkuntza Guztiontzat* mugimenduaren zuzendaritza teknikoa kudeatzeaz gain, garrantzi handiko zeregina zuela nazioarteko hezkuntzaren lidergo intelektualean.

Hori guztia gogoan zuela, UNESCOren zuzendari nagusiak goi-mailako adituen talde bat eratu zuen, hezkuntza berrazter zezan etengabe aldatzen ari den mundua kontuan hartuta. Egungo egoera aldakorrean ikaskuntzaren antolaketan eragina izan zezaketen arazoak dokumentu labur batean adierazteko eskatu zitzaion nazioarteko adituen talde horri, hezkuntzaren kontzeptuaz eztabaida sustatze aldera. Talde horren buru izan ziren 2015aren ondorengo Garapen Plangintzarako Nazio Batuen idazkari nagusiaren aholkulari berezi eta zuzendari nagusiaren ondoko Amina Mohammed andrea, eta Nottinghameko Unibertsitateko (Erresuma Batua) UNESCO katedraren irakasle W. John Morgan jauna. Gainerako taldekideak honako hauek izan ziren: garapen bidean dauden gizarteak aztertze zentroko irakasle Peter Ronald DeSouza jauna, New Delhi (India); Paris 1 Panthéon-Sorbonne Unibertsitateko irakasle Georges Haddad jauna (Frantzia); Beiruteko Institut des Sciences Politiques de la Université Saint-Joseph unibertsitateko ohorezko zuzendari Fadia Kiwan andrea (Libano); Nazioarteko Hezkuntza Bulegoko idazkari nagusi Fred van Leeuwen jauna; Japoniako International University of Health and Welfare unibertsitateko irakasle Teiichi Sato jauna; eta Hezkuntzaren Ebaluaziorako Institutu Nazionaleko (Mexiko) presidente Sylvia Schmelkes andrea.

Proiektu hau egiteko, UNESCOren hezkuntza-sektoreari hasiera-hasieratik adierazi zion babesa idazkari nagusiak. Taldea, hezkuntzari buruzko ikerketa eta prospektiba taldeak koordinatuta, Parisen elkartu zen 2013ko otsailean, 2014ko otsailean eta 2014ko abenduan, ideiak garatzeko eta testuaren zirriborroez eztabaidatzeko. Aukera paregabe hau baliatu nahi dut bene-benetan eskertzeko goi-mailako adituen taldekide guztiei egindako ekarpena

zeregin kolektiboan. UNESCOren hezkuntza-sektoreak ere zinez eskertu du taldeak egindako ahalegina eta bere gain hartutako konpromisoa.

Argitalpen hau ezinezkoa izango zen beste askoren laguntza izan ez bagenu, hala nola kanpoko adituena zein UNESCOko lankideena. Honako hauei guztiei adierazi nahi diet esker ona, egindako lanagatik: Abdeljalil Akkari (Genevako Unibertsitatea), Massimo Amadio (Nazioarteko Hezkuntza Bulegoa, UNESCO), David Atchoarena (Bizialdi Osoko Ikaskuntzako Politiken eta Sistemen Dibisioa, UNESCO), Sylvain Aubry (eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen inguruko ekimen globala), Néjib Ayed (Hezkuntza, Kultura eta Zientziarako Arabiar Estatuaren Erakundea), Aaron Benavot (Munduko Pertsona Guztiontzako Hezkuntza programari buruzko jarraipen-txostena), Mark Bray (Hong Kongeko Unibertsitatea), Arne Carlsen (Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Institutua, UNESCO), Michel Carton (Hezkuntzako eta Prestakuntzako Nazioarteko Politiken eta Lankidetzaren Sarea), Borhene Chakroun (Gazteria, Alfabetatzea eta Gaitasunen Garapenerako Departamentua, UNESCO); Kai-ming Cheng (Hong Kongeko Unibertsitatea), Maren Elfert (British Columbia Unibertsitatea), Paulin J. Hountondji (Hezkuntzaren Kontseilu Nazionala, Benin), Klaus Hüfner (Freie Unibertsitatea, Berlin), Ruth Kagia (Results for Development Institute), Taeyoung Kang (POSCO ikerketa-institutua), Maria Khan (Oinarrizko Hezkuntzarako eta Helduen Hezkuntzarako Asiako eta Hego Pazifikoko elkarte), Valérie Liechi (Garapen Lankidetzako Suitzako erakundea), Candy Lugas (Hezkuntza Plangintzarako Nazioarteko Institutua, UNESCO), Ian Macpherson (Open Society Foundations), Rolla Moumne Beulque (Hezkuntza Politiken Departamentua, UNESCO), Renato Operti (Nazioarteko Hezkuntza Bulegoa, UNESCO), Svein Osttveit (Kontseilu Exekutiboa, hezkuntza-sektorea, UNESCO), David Post (Munduko Pertsona Guztiontzako Hezkuntza programari buruzko jarraipen-txostena), Sheldon Shaeffer (Lehen Hautzaroko Hezkuntzan eta Gobernantzan aditua), Dennis Sinyolo (Nazioarteko Hezkuntza), eta Rosa-Maria Torres (Fronesis Institutua, Quito).

Azkenik, UNESCOko hezkuntzari buruzko ikerketa eta prospektiba taldeari eskerrak eman nahi dizkiot proiektu hau behar bezala gauzatzeagatik. Georges Haddad taldeko zuzendari ohia hasi zen idazten dokumentua, eta Sobhi Tawil programan espezialista nagusiak koordinatu zuen. Guztiek izan zuten giza eskubideen eta nazioarteko lankidetzako etikaren UNESCO katedrako Rita Locatelliren eta Luca Solesinen laguntza, bai eta Huang Le Thu UNESCOren programan adituarena ere. Hauek ere aritu ziren ikerketa-lanetan: Marie Cougoureux, Jiawen Li, Giorgiana Maciucia, Guillermo Nino Valdehita, Victor Nous, Marion Poutrel, Hélène Verrue eta Shan Yin.



Qian Tang, Ph.D.
Hezkuntzako zuzendariorde nagusia

Aurkibidea

Hitzaurrea	3
Sarrera	5
Aurkezpena	7
Esker onak	9
Tartekien zerrenda	12
Laburpena	13
Sarrera	17
1. Garapen jasangarria: funtsezko kezka	23
Erronkak eta tentsioak	24
Beste ezagutza-aukera batzuk	30
Aukera berrien bila	33
2. Ikuspegi humanistaren berrespena	39
Hezkuntzaren ikuspegi humanista	41
Hezkuntza inklusiboagoa lortu beharra	47
Hezkuntza-eredua aldatzen ari da	53
Hezitzaileen egitekoa, ezagutzaren gizartean	61
3. Hezkuntza-alarreko politiken formulazioa, egungo mundu konplexuan	65
Hezkuntzaren eta enpleguaren artean gero eta desoreka handiagoa	66
Ikaskuntza onartu eta baliozkotu beharra, giza mugikortasuna ezaugarri duen munduan	70
Herritartasunerako hezkuntza berraztertzeke premia, mundu plural eta interkonektatu batean	74
Hezkuntzaren gobernantza globala eta estatu-mailako politiken formulazioa	76
4. Hezkuntza, guztion ondasun al da egun?	81
Hezkuntza, ondasun publiko gisa, arriskuan	82
Hezkuntza eta ezagutza: guztion ondasunak, globalak	88
Kontuan hartzeak, etorkizunari begira	95

Tartekien zerrenda

1. Latinoamerikan desoreka handiak diru-sarreretan, nahiz eta ekonomia asko hazi den	27
2. Ezagutza-sistema desberdinen arteko topagunea	34
3. <i>Sumak Kawsay</i> : garapenari buruzko beste ikuspegi bat	36
4. Hezkuntza: garapen jasagarria sustatzeko modua	37
5. Trebetasunak: oinarritzkoak, transferigarriak, eta teknikoak eta profesionalak	45
6. Desgaitasunak dituzten haurrei eskubidea ukatzen zaie askotan	48
7. Hezkuntzarako aukera ez duten neskatoen ahotsa entzutea	49
8. Senegal: 'Case des Tout-Petits' programaren esperientzia	51
9. Kulturarteko Unibertsitateak Mexikon	53
10. 'Zuloa horman' esperimentua Indian	56
11. Alfabetatze mugikorra neskatoentzat, Pakistanen	58
12. Goi-mailako hezkuntzako modu postradizionalak	59
13. Irakasleak oso ondo prestatuta eta oso aintzakotzat hartuta daude Finlandian	62
14. Gazteentzako enplegu-aukera gehiago sortzea	69
15. Bangalore eta Hyderabad: migrazioa alderantzikatzen ari da	71
16. Tutoretza pribatuak Egipton: pobreen kalterako	85
17. Hezkuntzarako eskubidea errespetatzea, bete dadin ziurtatzea eta babestea	86
18. Ezagutza sortu, kontrolatu, eskuratu, baliozkotu eta baliatu	91

Laburpena

Munduan gaur egun gertatzen ari diren aldaketak beste konplexutasun- eta kontraesan-maila batekoak dira. Aldaketa horiek tentsioak eragin dituzte, eta hezkuntzaren bidez gizabanakoak zein komunitateak prestatu behar ditugu, egoera berrira egokitzeke eta tentsio horiei aurre egiteko gai izan daitezzen. Testuingurua halakoa izanik, argitalpen honek hezkuntza eta ikaskuntza berraztertzen lagundu nahi du. UNESCOk berezkoa duen egiteko nagusietako bat du abiapuntu, gizartean gertatzen diren aldaketen munduko behatokia den aldetik, eta politika publikoei buruzko eztabaidak sustatzea du xede.

Elkarrizketarako deia egin nahi da, interesa duten guzti-guztien arteko solasaldia sustatu nahi baita. Hezkuntzaren eta garapenaren ikuspegi humanista du iturburu; eta oinarri, berriz, bizitzarekiko eta giza duintasunarekiko errespetua, eskubide-berdintasuna, justizia soziala, kultura-aniztasuna eta etorkizun jasangarri batekiko guzti-guztion erantzukizuna. Izan ere, horiek dira gizon-emakume ororen gizatasunaren oinarriak. Liburu honetan UNESCOren beste bi argitalpen gogoangarri hauetan adierazitako ikuspuntua sakon aztertu da: *Izaten ikastea: etorkizuneko hezkuntza* (1972), 'Faure txostena'; eta *Hezkuntza: altxor ezkutua* (1996), 'Delors txostena'.

Garapen jasangarria: funtsezko kezka

Garapen jasangarria lortuko badugu, guztioi eragiten diguten arazoei eta tentsioei egin behar diegu aurre, eta, horrez gain, aukera berriak kontuan hartu. Hazkunde ekonomikoaren eta aberastasuna sortu izanaren ondorioz, pobrezia behera egin du, nazioarteko adierazleek erakusten dutenez. Baina kalteberatasuna, berdintasun-eza, bazterketa eta indarkeria areagotu egin dira gizartearen baitan zein gizartearen artean. Ekonomia-jarduerako eta kontsumoko eredu ez-jasangarriek ondorio latzak izan dituzte: planeta berotzea, ingurumena hondatzea eta natura-hondamendiak larriagoak izatea. Horrez gain, nahiz eta azken hamarkaden joanean giza eskubideen alorrean nazioarteko esparruak sendotu egin diren, oraindik ere zaila da araudi horiek aplikatzea eta babestea. Esate baterako, nahiz eta emakumeak pixkanaka ahalduz ari diren hezkuntzarako aukera handiagoa delako, bizitza publikoan zein lanean diskriminazioari

aurre egiten jarraitu behar dute oraindik ere. Emakumeen eta haurren aurkako, eta, batik bat, neskatoen aurkako indarkeria-kasuak gertatzen dira gaur egun ere, eta, beraz, eskubide horiek urratu egiten dira. Gainera, nahiz eta aurrerapen teknologikoei esker interkonexioa nabarmen hobetu den, eta trukerako, lankidetzarako eta elkartasunerako aukera gehiago sortu diren, ugaritzen ari dira intolerantzia kulturala eta erlijiosoa, eta identitatea oinarri duten mobilizazio politikoak eta gatazkak.

Hezkuntzaren bidez erronka horiei aurre egiteko moduak bilatu behar dira, aintzat hartuta askotariko mundu-ikuskerak eta beste ezagutza-sistema batzuk, bai eta zientziak zein teknologiak eskaintzen dituzten beste bide batzuk ere, hala nola neurozientziaren alorreko aurrerapenak eta teknologia digitalaren berrikuntzak. Inoiz ez da hain premiazkoa izan hezkuntzaren helburua zein den eta ikaskuntza nola antolatu behar den berriro aztertzea.

Hezkuntzaren ikuspegi humanista berrestearen garrantzia

Hezkuntzaren bidez bakar-bakarrik ezin zaie garapenaren inguruko arazoei aurre egin, baina hezkuntzaren ikuspegi humanista eta holistiko batek lagun dezake eta lagundu behar du beste garapen-eredu bat lortzen. Eredu horretan, hazkunde ekonomikoak ezinbestez izan behar ditu oinarri ingurumenarekiko errespetua, bakearekiko kezka, inklusioa eta justizia soziala. Garapenaren ikuspegi humanista baten printzipio etikoak eta moralak intolerantziaren, diskriminazioaren eta bazterketaren aurkakoak dira. Hezkuntzari eta ikaskuntzari dagokienez, alde batera utzi behar dira bide laburra duten utilitarismoa eta ekonomizismoa, eta integratu, giza existentziaren askotariko alderdiak. Ikuspegi humanistak aparteko garrantzia ematen dio askotan baztertzen diren pertsonen inklusioari: emakumeak eta neskatoak, herri indigenak, desgaitasunak dituzten pertsonak, migratzaileak, pertsona helduak eta gatazkaren batengatik egoera larrian dauden herrialdeetako herritarrak. Ikuspegi horrek ikaskuntzaren planteamendu irekia eta malgua eskatzen du; hau da, etorkizun jasangarria eta bizitza duina lortze aldera konpetentziak eskuratzeko aukera pertsona guztiei emango dien planteamendua. Ikuspegi humanista horrek berekin dakar gogoeta egitea irakaskuntzaren eta pedagogien edukia zehazteko, bai eta irakasleei eta beste hezitzaile batzuei zer zeregin dagozkien zehazteko ere. Teknologia berriak, eta batez ere digitalak, etengabe garatzen direla ikusita, are eta garrantzitsuagoa da ikuspegi humanista aintzat hartzea.

Tokian tokiko politikak zein globalak formulatu beharra, egungo mundu konplexuan

Gizartea eta ekonomia gero eta konplexuagoak dira; horren ondorioz, hainbat erronkari egin behar zaie aurre politikak formulatu ahal izateko egungo mundu globalizatuan. Ekonomiaren globalizazioa areagotu egin da, eta, horrekin batera, azpienpleguak, gazteen langabeziak eta enplegu prekarioak gora egitea eragin duten ereduak sortu dira. Hezkuntzaren eta etengabe aldatzen ari den lan-arloaren arteko deskonexioa gero eta handiagoa da. Hala ere, aukera paregabea ere bada hezkuntzaren eta giza garapenaren arteko lotura berraztertzeo. Gainera, ikasleen eta langileen mugikortasuna gero

eta handiagoa denez munduan barrena, eta ezagutza-eredu berriak zein trebetasun-transferentziarako eredu berriak sortu direnez, beharrezkoak dira ikaskuntza onartzeko, baliozkotzeko eta ebaluatzeko beste modu batzuk. Hiritartasunaren ikuspegiari dagokionez, hezkuntza-alorreko sistema ororentzat zailena identitateak eratzea da, bai eta besteekiko kontzientzia eta besteenganako ardua-sena sustatzea ere; izan ere, kontuan hartu behar da elkarren arteko interkonexioa eta mendekotasuna gero eta handiagoa dela.

Azken hamarkadetan hezkuntzarako aukera mundu osoan askoz ere handiagoa denez, diru-kutxa publikoek karga handiagoak dituzte. Horrez gain, azken urteotan gai publikoei buruzko informazio gehiago eskatzen du jendeak, bai eta eragile ez-estatalek hezkuntzan gehiago esku hartzea ere, estatu-mailan zein mundu zabalean. Eragile horiek esku har dezaten, mota askotako itunak egin dira. Beraz, publikoaren eta pribatuaren arteko mugak gero eta lausoagoak bilakatzen ari dira, eta, horren guztiaren ondorioz, gero eta zailagoa da hezkuntzaren gobernantza demokratikoa lortzea. Azken batean, behar-beharrezkoa da gizarte-portaeraren hiru erregulatuzaileen –gizartea, estatua eta merkatua– ekarpenak eta eskariak uztartzea.

Hezkuntza eta ezagutza egungo egoerara egokitzeko premia, guztion ondasun diren aldetik

Egoerak oso azkar aldatzen direla ikusita, hezkuntzaren gobernantzak oinarri dituen printzipio arauemaileak berraztertu behar dira, bereziki hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntzaren nozioa, ondasun publiko gisa hartzen den aldetik. Hezkuntzari buruzko nazioarteko diskurtsoan, giza eskubide gisa eta ondasun publiko gisa aipatzen da hezkuntza. Printzipio horiek onartuta daude, oro har, oinarrizko hezkuntzari dagokionez, baina oinarrizko hezkuntzaren ondoko hezkuntzari eta trebakuntzari dagokionez, berriz, ez dago adostasunik. Hezkuntzarako eskubidea eta ondasun publikoaren printzipioa, aplikatzen al dira hezkuntza ez-formalean eta hezkuntza informalean, edozein dela haien instituzionalizazio-maila? Horrenbestez, ezagutza –ikaskuntzaren bidez eskuratutako informazioa, ulermena, trebetasunak, balioak eta jarrerak hartuta ezagutzat– ezinbestez hartu behar da aintzat hezkuntzaren helburuari buruzko eztabaida orotan.

Bai ezagutza, bai hezkuntza, *guztion ondasun* gisa hartzea proposatzen dute egileek. Horrek esan nahi du ezagutza sortzea, bai eta eskuratzea, baliozkotzea eta baliatzea ere, pertsona guztiei dagozkiela, *zeregin sozial* kolektiboaren parte den aldetik. Guztion ondasunaren nozioari esker, *ondasun publiko* nozioak berezkoa duen teoria sozioekonomiko indibidualistaren teoriaren eraginari aurre egin diezaiokegu. Izan ere, guztion ondasunaren nozioak prozesu parte-hartzaile bat du oinarri, hain zuzen, zehazteko zer den guztion ondasun bat, baina horretarako kontuan hartuta mota askotako egoerak, ongizatearen kontzeptuak eta ezagutzako inguruneak. Ezagutza gizon-emakume oren ondarea da, berezko elementua. Beraz, elkarren arteko mendekotasuna gero eta handiagoa den egungo egoeran garapen jasangarria ezinbestekoa dela ikusita, hezkuntza eta ezagutza *guztion ondasun* gisa hartu beharko lirateke. Gizon-emakume guztion gizatasunak oinarri duen elkartasunaren balioa

abiapuntu hartuta, gogoeta egin behar da guztion ondasuntzat hartu beharko liratekeen ezagutzaren eta hezkuntzaren printzipioaz; hain zuzen ere, interesa duten aldeei zer zeregin eta erantzukizun dagozkien zehaztu behar da. Gogoeta hori nazioarteko erakundeei buruz ere egin behar da, hala nola UNESCOri buruz. Izan ere, munduko behatokia da eta funtzio arauemailea du, eta politika publikoei buruzko mundu-mailako eztabaida sustatzeko eta bideratzeko erakundetzat hartzen da.

Kontuan hartzekoak, etorkizunari begira

Hezkuntzaren xedea eta antolaketa bateratzea zeregin sozial kolektiboa denez, eztabaidarako lehen urratsa emate aldera honako gogoeta hauek egitea proposatzen dugu: hezkuntzaren lau zutabeak –ezagutzen, egiten, izaten eta elkarrekin bizitzen ikastea– oraindik ere oso aproposak eta egokiak badira ere, arriskuan daude globalizazioaren eta politika identitarioen eraginez. Zer egin daiteke lau zutabeak sendotze eta eguneratze aldera? Nola lagundu dezake hezkuntzak jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa lortzen? Nola uztartu daitezke era askotako mundu-ikuskerak, hezkuntzaren ikuspegi humanista abiapuntu hartuta? Nola lor daiteke ikuspegi humanista, hezkuntzaren alorreko politiken eta jardunbideen bidez? Zer ondorio eragiten ditu globalizazioak hezkuntzaren alorreko estatu-politiketan eta erabakietan? Nola finantzatu beharko litzateke hezkuntza? Zer ondorio eragingo litzuke irakasleen prestakuntzan, trebakuntzan, bilakaeran eta diru-sarreran? Ondasun pribatua, ondasun publikoa eta guztion ondasuna bereizteak, zer ondorio dakartza hezkuntzan?

Eragile guztiek elkartu egin beharko lukete, norik bere ikuspuntua duela, ikerketen emaitzak elkarri jakinarazteko eta politika publikoak formulatzen laguntze aldera printzipio arauemaileak antolatzeko. UNESCO, gogoetarako zentro intelektuala eta *think tank* den aldetik, plataforma egokia izan daiteke eztabaida eta elkarrizketa horretarako, hori baita bidea hezkuntza-politika eta -aukera berriak hobeto ulertzeko, eta, hala, gizateriari laguntzeko eta gizon-emakume guztien ongizateari eusteko.

Sarrera



Sarrera

“Hezkuntzak konfiantza elikatzen du. Konfiantzak itxaropena elikatzen du. Itxaropenak bakea elikatzen du.”

Konfuzio, filosofo txinatarra (K.a. 551 - 479)

Elkarrizketarako deia

Etengabe aldatzen ari den mundu batean hezkuntzaren beste ikuspegi bat lortzen lagundu nahi du liburu honek, horretarako UNESCOren helburu nagusietako bat oinarri hartuta, gizartean gertatzen ari diren aldaketen munduko behatokia den aldetik. Politika publikoei buruzko eztabaida sustatzea du xede, mundua aldatzen ari den garaiotan hezkuntza gai nagusi izango duena. *Elkarrizketarako deia* egin nahi da, hezkuntzaren eta garapenaren ikuspegi humanista batek eragindako deia eta printzipio hauek oinarri izango dituen: *bizitzaren eta giza duintasunaren errespetua, eskubide-berdintasuna eta justizia soziala, kultura-aniztasunarekiko errespetua, bai eta nazioarteko elkartasuna eta etorkizunarekiko guzti-guztion erantzukizuna ere*; hau da, gizon-emakume guztion gizatasunaren alderdi funtsezkoak oinarri izango dituen. Garai berrietarako xedeak zehaztea eta, aldi berean, motibazioa sustatzea lortu nahi dugu, hezkuntzaren alorrarekin nolabaiteko konpromisoa duten pertsona guztiek parte hartzen dutela. Liburu hau UNESCOren beste bi argitalpen gogoangarri hauek izan duten asmo berarekin idatzi da: 1972ko ‘Faure txostena’ (*Izaten ikastea: etorkizuneko hezkuntza*), eta 1996ko ‘Delors txostena’ (*Hezkuntza: altxor ezkutua*).

Iraganari behatu, etorkizuna ikusteko¹

Etorkizunerako hezkuntzaz eta ikaskuntzaz gogoeta egiteko, aurretik egindako azterketen ondarea hartu behar dugu oinarri. 1972ko Faure txostenak, esate baterako,

¹ Iturria: *Looking backward to see ahead: The Faure and Delors reports and the post-2015 development agenda*; Morgan, W. J. eta White, I. (2013) (egokitua). *Zeitschrift Weiterbildung*, 4, 40-43. or.

ezagutzaren gizartea eta hezkuntza iraunkorra nozioak elkarri lotuta eman zituen aditzera, hezkuntza-sistema tradizionalak ezbaian jartzen ziren garaian. Txosten horrek zioen aurrerapen teknologikoa eta gizarte-aldaketa bizkortu ahala, pentsaezina zela pertsona baten hasierako hezkuntza bizitza osorako baliagarria izatea. Egileek adierazi zuten eskola zela oraindik ere antolatutako ezagutza transmititzeko funtsezko bitartekoa, baina beharrezkoa zela bizitza sozialeko beste alderdi batzuekin osatzea: gizarte-instituzioak, lan-arloa, aisia eta komunikabideak. Pertsona orok norberaren garapen pertsonal, sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalerako eskubidea eta beharra zuela zioen txostenak. Horrez gain, adierazi zuten hezkuntza-politika ororen muina hezkuntza iraunkorra zela, garapen bidean zeuden herrialdeetan zein garatuetan.²

1996ko Delors txostenak hezkuntzaren ikuspegi integratua proposatu zuen, funtsezko bi kontzeptu hauek oinarri hartuta: ‘bizialdi osoko ikaskuntza’ eta hezkuntzaren lau zutabeak –ezagutzen ikastea, egiten ikastea, izaten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea–. Ez zen, berez, hezkuntzaren erreformarako plan gidaria, baizik eta politikak formulatzeko kontuan hartu beharko lirartekeen aukerez hausnartzeko eta eztabaidatzeko oinarria. Hezkuntzaren alorreko aukera horiez txostenak zioen zer gizarte-motatan nahi dugun bizi halako aukerak ditugula. Hezkuntzak berehalako funtzionaltasuna izateaz gain, txostenak zioen pertsona osotasunean hartuta hura trebatzea zela hezkuntzaren helburuaren zati handi bat.³ Delors txostenak oso kontuan zituen UNESCOk berak oinarritzat hartzen dituen printzipio moralak eta intelektualak. Hortaz, Delors txostenean adierazitako analisiak eta gomendioak, hezkuntzaren erreformari buruzko ordura arteko beste azterketa batzuen aldean, humanistagoak ziren, eta,aldi berean, ez hain instrumentalak eta ez hain merkatuaren mendeko.⁴

Ez dago inolako zalantzarik Faure eta Delors txostenak hezkuntza-politikak egiteko oinarritzat hartu direla mundu osoan⁵, baina gaur egun ezinbestez onartu behar da egoera intelektuala eta materiala nabarmen aldatu dela munduan, joan den mendeko 70eko hamarkadaz geroztik eta berriro 90ekoaz geroztik. XXI. mendearen bigarren hamarkada honetako egoera erabat berria da, ikaskuntzarako eta giza garapenerako hainbat erronka eta aukera berri sortu baitira. Historiaren aro berri bati ekin diogu, eta ezaugarri bereizgarri hauek ditu: interkonexioa zein elkarrekiko mendekotasuna, eta beste maila bateko konplexutasunak, segurtasun faltak eta tentsioak.

² Medel-Añonuevo, C., Oshako, T. eta Mauch, W. 2001. *Revisiting lifelong learning for the 21st century*. Hanburgo, UNESCOren Hezkuntza Institutua.

³ Power, C. N. 1997. “Aprender: ¿medio o fin? Una ojeada al Informe Delors y a sus consecuencias para la reforma educativa” *Perspectivas* aldizkaria, XXVII. liburukia, 2, 118. or.

⁴ Ibid.

⁵ Gaiari buruz hausnartzeko, ikusi, besteak beste, Tawil, S. eta Cougoureux, M. 2013. *Revisiting Learning: The treasure within – Assessing the influence of the 1996 Delors report*. Paris, UNESCO Education Research and Foresight, ERF Occasional Papers, 4. zk.; Elfert, M. 2015. UNESCO, the Faure report, the Delors report, and the political utopia of lifelong learning. *European Journal of Education*, 50.1, 88-100. or.

Ikaskuntzaren egoera berria munduan

Egungo munduaren egoerak hainbat paradoxa ditu ezaugarri bereizgarri. Globalizazio ekonomikoa areagotzeak munduan pobrezia murrizten lagundu du, baina, aldi berean, enplegu berri gutxi sortzen dira, eta gazteen langabeziak zein enplegu prekarioak gora egin dute. Horrez gain, globalizazio ekonomikoaren ondorioz herrialdeen arteko desberdintasunak zein herrialde barrukoak gero eta handiagoak dira. Eta hezkuntza-sistema batzuek desberdintasun horietan laguntzen dute, ez baitituzte kontuan hartzen egoera ahulean dauden ikasleen eta herrialde pobreetako herritar askoren hezkuntza-premiak, eta aberatsei bakarrik ematen baitiete hezkuntzarako aukera; horrenbestez, ikaskuntza eta kalitate oneko hezkuntza oso eskusibo bilakatu dute. Hazkunde ekonomikoaren egungo ereduaren ondorioz, bai eta biztanleriaren hazkunderaren eta urbanizazioaren ondorioz ere, natura-erreserba berriztaezinak agortzen ari dira eta ingurumena, berriz, kutsatzen, eta horrek kalte ekologiko konponezinak eta klima-aldaketa dakartza. Bestalde, kultura-aniztasuna gero eta onartuago dago (estatu-nazioek historikoki berezkoa izan dutelako edo migrazioa eta mugikortasuna hazi egin direlako), baina nabarmena da, halaber, kultura- eta erlijio-chauvinismoak izugarri hazi direla, eta nazio-identitatearen inguruko mobilizazio politikoek eta indarkeriak gora egin dutela. Bai eta bestelako indarkeriek ere: terrorismoko eta drogekin zerikusia duten indarkeriako kasu gehiago gertatzen dira, gerra eta barne-gatazka gehiago daude, eta familia- zein eskola-indarkeriako egoerak ugartu egin dira. Indarkeria-mota horiek guztiek ezbaian jarri dute hezkuntza gai ote den bizikidetzarako balioak eta jarrerak irakasteko. Horrezaz gain, gatazka eta krisi horien guztien ondorioz ia 30 milioi haurri ukatu zaie oinarritzko hezkuntzarako eskubidea, eta horrek esan nahi du heldu eskolagabeen belaunaldiak izango ditugula etorkizunean, eta hori ez dute aintzakotzat hartzen garapenerako politikek. Horiek guztiak oinarritzko arazoak dira gizakiok elkar ulertzeko eta mundu osoko gizarte-kohesiorako.

Aldi berean, tokian tokiko zein munduko gobernantzaren egoera aldakorrean, nabaria da gai publikoei buruzko *azalpen* gehiago eskatzen direla. Internetarako konexioen, teknologia eramangarrien eta bestelako bitarteko digitalen kopurua izugarri hazi da. Bestalde, hezkuntza publikorako aukera demokratizatu egin da eta hezkuntza pribatu-motak ugartu, eta faktore horiek eragin dute gizarte- eta gizabidezko-partaidetzarako ereduak zein politikan parte hartzeak aldatzea. Gainera, langileak eta ikasleak gero eta gehiago ibiltzen direnez herrialdez herrialde, enpleguz enplegu eta ikasketako zentroz zentro, are eta beharrezkoagoa da aintzakotzat hartzea kompetentziak nola onartzen, baliozkotzen eta ebaluatzen diren.

Gertatzen ari diren aldaketa horiek badute eragina hezkuntzan, eta agerian uzten dute ikaskuntzaren egoera ere aldatu egin dela munduan. Guztiek ez diete eragiten hezkuntza-politikei, baina nabarmena da politika horiek egokitu egin behar direla. Beste jardunbide batzuk behar dira, bai eta beste ikuspegi batzuk ere, ikaskuntzaren benetako izaera ulertzeko, eta ezagutzak zein hezkuntzak giza garapenean duten funtzioa ulertzeko. Gizartea aldatzea eragin duen egoera berri horrek berez eskatzen du hezkuntzaren helburuaz eta ikaskuntzaren antolaketaz berriro hausnartzea.

Zer dira ezagutza, ikaskuntza eta hezkuntza?

Ezagutza ikaskuntzari buruzko eztabaida ororen muina da, eta gizabanakoek zein gizarteek bizi izandakoari zentzua emateko modutzat har daiteke. Hortaz, termino orokorretan, ikaskuntzaren bidez eskuratutako informazioa, adimena, kompetenziak, balioak eta jokabideak direla esan daiteke. Ezagutza, berez, erabat lotuta dago ezagutza sortzen eta zabaltzen den egoera edo testuinguru kulturalarekin, sozialarekin, ingurumenekoarekin eta instituzionalarekin.⁶

Ikaskuntza, guri dagokigunez, ezagutza hori eskuratzeko ezinbesteko prozesua da. Prozesu horren *prozedura* eta *emaitza* da aldi berean; bitarteko bat zein helburu bat; norbanakoaren jarduera bat zein zeregin kolektibo bat. Ikaskuntza alderdi askotako errealitate bat da, eta, beraz, nolako testuingurua halako definizioa. Zer ezagutza eskuratzeko den eta zergatik, eta non, noiz eta nola baliatzen den: horra hor norbanakoen zein gizartearen garapenerako funtsezko auziak.

Hezkuntza terminoak, guri dagokigunez, ezaugarri hauek ditu: nahita edo propio egiten da, xede jakin bat du eta antolatuta dago. Hezkuntza formaleko eta ez-formaleko aukerak edukitzeak esan nahi du neurri batean instituzionalizatuta dagoela; baina ikaskuntzaren zati handi bat gutxi instituzionalizatuta dago edo ez dago batere instituzionalizatuta. Hezkuntza informal horrek, hezkuntza formala edo ez-formala bezain antolatuta eta egituratuta ez dagoen horrek, bere baitan hartzen dituen jarduerak toki eta modu askotan garatzen dira, hala nola lantokian (esate baterako, praktikaldietan), tokian tokiko elkarteetan eta eguneroko bizitzan, modu autodidaktan, familian edo elkarteetan.⁷

Azkenik, merezi du adieraztea bizitzaren joanean ikasten ditugun gauza gehienak ez direla nahita edo propio ikasitakoak. Sozializazio-esperientzia orok berezkoa duen zerbait da ikaskuntza informal hori. Nolanahi ere, nahitako eta antolatutako ikaskuntza izango dugu aztergai aurrerantzean.

Dokumentuaren antolaketa

Funtsezko kezka giza eta gizarte-garapen jasangarria dela abiapuntu hartuta, mundu osoan gertatzen ari den gizarte-aldaketaren prozesuan hautemandako joerak, tentsioak eta kontraesanak azalduko ditugu lehendabiziko atalean, bai eta ezagutzarako sortu diren aukera berriak ere. Atal horretan, halaber, gizon-emakumeon ongizateari buruzko beste ikuspuntu batzuk aztertze beharra ere azaldu dugu, aintzat hartuta askotariko mundu-ikuskerak eta ezagutza-sistemak, bai eta horiei guztiei eusteko premia ere.

Zer ezagutza eskuratzeko den eta zergatik, eta non, noiz eta nola erabiltzen den: horra hor norbanakoen eta gizartearen garapenerako funtsezko auziak.

⁶ Zientziarako Europako Fundazioa. 2011. *Responses to Environmental and Societal Challenges for our Unstable Earth (RESCUE). ESF Forward Look – ESF-COST ‘Frontier of Science’ joint initiative.* Estrasburgo/Brusela, Zientziarako Europako Fundazioa/Zientzia eta Teknologiarako Europako Lankidetzak.

⁷ Ibid.

Bigarren atalean, ikuspegi humanista berretsi dugu, eta agerian utzi dugu hezkuntzaren planteamendu integratua beharrezkoa dela, oinarri izango dituen alderdi etiko eta moral berrituak. Hezkuntza inklusiboa proposatu dugu, desorekak eragingo ez dituen. Munduan hezkuntzaren alorra nola aldatzen ari den ikusita, irakasleek eta gainerako hezitzaileek betetzen duten funtzioa garrantzi handikoa da, pentsamendu kritikoa eta nor bere iritzia eduki dezan sustatuko bada, eta konformismo erraza eragotziko bada.

Hurrengo atalean, hezkuntzaren alorreko politikak egungo mundu konplexuan formulatzeak dakartzen arazoak aztertu ditugu. Besteak beste, onartu egin behar dugu eten handia dagoela hezkuntza formalaren eta enpleguaren artean, eta arazo horri irtenbidea eman behar zaio; kontuan hartuta mugez gaineko mugikortasuna handia dela, bai lanbideei dagokienez bai ikaskuntza-zentroei dagokienez, ikaskuntzak onartu eta baliozkotu egin behar dira; globalizazioa gero eta handiagoa denez, herritartasunerako hezkuntza berraztertu egin behar dugu, eta oreka lortu aniztasunarekiko errespetuaren, balio unibertsalen eta gizon-emakume guztion gizatasunarekiko arduraren artean. Horrez gain, badakigu, jakin, oso konplexua dela hezkuntzaren alorreko politikak estatuetan formulatzea, gobernantza-eredu globalak sortzen ari diren garai honetan.

Laugarren atalean, hezkuntzaren gobernantzak oinarri dituen printzipioak egungo egoera kontuan hartuta aztertzeko premia azaldu dugu, batik bat hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntzaren printzipioa, ondasun publikoa den aldetik. Agerian utzi dugu hezkuntzaren alorreko politikak gehiago erreparatu behar diola ezagutzari, bai eta ezagutza sortzeko, eskuratzeko, barneratzeko, baliozkotzeko eta baliatzeko moduei ere. Adierazi dugu, halaber, beharrezkoa dela hezkuntza-antolaketarako baliatzen diren printzipioak egungo egoerara egokitzea, batik bat hezkuntzaren printzipioa, *ondasun publikoa* den aldetik. Aurreratu dugu, gainera, hezkuntza eta ezagutza guztion ondasun gisa hartzea oso baliagarria izan daitekeela ikaskuntzaren xedea eta antolaketa bateratzeko, zeregin sozial kolektiboa den aldetik egungo egoera aldakorrean. Eta azken atalean ideia nagusiak laburbiltzeaz gain, zenbait galdera egin ditugu, eztabaidatzen jarrai dezagun.



1. Garapen jasangarria: funtsezko kezka

1. Garapen jasangarria: funtsezko kezka

*“Pentsatu beharko genuke zuhaitz baten
hostoetako bat garela eta zuhaitza gizadia dela.
Ezin dugu besteak gabe bizi, arbola gabe.”*

Pablo Casals, biolontxelo-jotzaile eta orkestra-zuzendari espainiarra

Hezkuntzaren helburuaz hausnartzean, giza eta gizarte-garapen jasangarriarekiko kezka gailendu da gure gogoetan. Honako hau hartzen dugu *jasangarri* terminotzat: guztiontzako etorkizun hobea lortzea xede duen gizabanakoen eta gizartearen ekintza arduratsua, tokian-tokian zein mundu zabalean gauzatutakoa. Izan ere, horri esker lortuko dugu etorkizun hobe horretan garapen ekonomikoak bat egitea justizia sozialeko eta ingurumen-garapeneko arauekin. Dena elkarri lotuta eta elkarren mende dagoen egungo munduan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, beste konplexutasun-maila, gorabehera eta paradoxa batzuk sortzen ari dira, bai eta ezinbestez kontuan hartu beharreko beste ezagutza-aukera batzuk ere. Aldaketa horiek, halaber, gizateriaren aurrerapenari eta ongizateari buruzko beste proposamen batzuk aztertzen ahalegintzea eskatzen dute.

■ Erronkak eta tentsioak

Delors txostenean aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozialen ondorioz sortutako hainbat tentsio adierazten dira, besteak beste: globala vs tokian tokikoa; unibertsala vs berariazkoa; tradizioa vs modernitatea; espirituala vs materiala; epe luzeko gogoeta vs epe laburreko gogoeta; lehiatzeko beharra vs aukera-berdintasunaren ideala; ezagutza hedatzea vs hura barnerratzeko norberaren gaitasuna. Zazpi tentsio horiek oso baliagarriak dira, haiek abiapuntu hartuta aztertzeko gizarte-aldaketen egungo

dinamika. Aldaketa batzuk garrantzi berezia hartzen ari dira tentsio gehiago sortu direlako. Esaterako, ekonomia-hazkuntzako ereduak gero eta ahulagoak dira, eta horiek desoreka handiagoa, estres ekologiko handiagoa, eta intolerantziak eta indarkeriak gora egitea eragin dute. Azkenik, nahiz eta giza eskubideen alorrean aurrerapenak hauteman diren, arauak aplikatzea oraindik ere arazo-iturri da.

Estres ekologikoa, eta ekoizpeneko zein kontsumoko ekonomia-eredu ez-jasangarriak

Urte askotan ziurtzat jo da garapenaren helburua etengabeko hazkundera dela; izan ere, hau zen premisa nagusia: hazkunde ekonomikoak ondorio positiboak ekarriko ditu eta ondorio horiei esker guztiontzako ongizate handiagoa lortuko dugu. Baina ekoizpeneko eta kontsumoko ekonomia-eredu ez-jasangarriek agerian utzi dute kontraesan handiak dituela hazkunde ekonomikoa xede duen garapen-ereduak. Mugarik gabeko hazkunderaren eta naturaguneen gehiegizko ustiapenaren ondorioz, klima aldatu egin da eta natura-hondamendi gehiago gertatzen dira, kalte larriak eragiten dituztenak herrialde pobreetan. Garapenak sorrarazi duen funtsezko kezka jasangarritasuna da, irtenbidea eman nahi baitzaio klima-aldaketari, ezinbesteko natura-baliabideen degradazioari –esaterako, urarena– eta biodibertsitatearen galerari.

Munduan gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, beste konplexutasun-maila, gorabehera eta paradoxa batzuk sortzen ari dira, bai eta ezinbestez kontuan hartu beharreko beste ezagutza-aukera batzuk ere.

XX. mendearen azken hamarkadetan (1960-2000), uraren kontsumoa bikoiztu egin zen, elikagaien kontsumoa eta ekoizpena 2,5 aldiz handitu zen, eta zuraren kontsumoa, berriz, hirukoiztu, hazkunde demografikoaren eraginez. Munduko biztanleria-kopurua ia hirukoiztu egin zen XX. mendearen bigarren erdian –1950. urtean 2.500 milioi biztanle zeuden eta 2013an, 7.000 milioitik gora–, eta badirudi 2025ean 8.000 milioi lagun baino gehiago izango direla munduan.⁸ Azterketa batzuen arabera, 2030. urtean elikagai-eskariak %35 egingo du gora gutxienez, urarenak %40 eta energiarenak %50.⁹

Historian lehen aldia da munduko biztanle guztien erdia baino gehiago hiriguneetan bizi dela, eta 2050ean bi heren biziko dira –6.000 milioi lagun baino gehiago–.¹⁰ Zenbait kalkuluren arabera, urte horretan planetako hiri-populazioaren %80 munduaren

⁸ NBE Ekonomia eta Gizarte Arauotarako Departamentua (DESA). 2013. *World Population Prospects: The 2012 Revision*. New York, Nazio Batuak. Hazkunde-mota hori gehienbat planetaren hegoaldean gauzatu da eta gauzatu da. 1950ean munduko biztanleen %66 hegoaldean bizi zen eta 2010ean, %82. Eta kalkulatzen da 2050ean %86 biziko dela eta 2100ean, %88.

⁹ National Intelligence Council. 2012. *Global Trends 2030: Alternative worlds*. Washington, DC, National Intelligence Council.

¹⁰ NBE DESA. 2012. *World Urbanization Prospects: The 2011 Revision*. New York, Nazio Batuak.

hegoaldeko hirietan eta herrietan biziko da.¹¹ Mundu osoko hiri-populazioak gora egiteak eta klase ertainaren bizitzeko era eta kontsumo- zein ekoizpen-ereduak ugaritzeak ondorio negatiboa eragingo dute ingurumenean eta klima-aldaketan, eta, horrez gain, natura-hondamendi gehiago gertatzeko arrisku handiagoa izango dugu mundu osoan.¹² Nahasmendu horiek oso arriskutsuak dira bizirako, bizi-iraupenerako eta herritarren osasunerako planeta osoan. Gaizki edo behar ez bezala planifikatutako urbanizazioa gero eta ahulagoa da natura-hondamendien eta muturreko klima-baldintzen aurrean. Inoiz ez bezalako hiri-hazkundeak erakusten du zein diren munduko joera sozialak, politikoak, kulturalak eta ingurumenekoak; horrenbestez, urbanizazio jasangarria da XXI. mendean munduko komunitateak duen erronka premia-koenetako bat.¹³

Demografia eta urbanizazioa hazteko modu horiek eragina dute, halaber, hezkuntza egokia eta malgua jasotzeko aukerak ziurtatzen dituzten nazioarteko elkarrekin eta itunetan, bizi-aldia osoko ikaskuntzaren ikuspegiari dagokionez. Aurreikuspenen arabera, adinekoen proportzioa bikoiztu egingo da 2050. urtean¹⁴ eta, beraz, helduen hezkuntza- eskaria mota askotakoa eta askoz ere handiagoa izango da. Afrikarako aurreikusitako biztanle-hazkundera dagokionez, lan egiteko adina duten herritarren kopuruak gizartean etekinak eragin ditzan¹⁵, beharrezkoa izango da hezkuntza eta ikaskuntza- aukera egokiak eskaintzea bizitza osoan zehar.

Aberastasuna hazi egin da, baina kalteberatasuna eta desorekak ere bai

Pobreziaren munduko tasak erdira murriztu ziren 1990etik 2010era bitartean. Pobrezia- tasaren murrizketa hori, neurri handi batean, ekonomia emergenteetako eta Afrikako herrialde askotako ekonomia-hazkunde tasak sendotu izanaren ondorio da, nahiz eta 2008an finantza- eta ekonomia-krisia hasi zen. Aurreikuspenen arabera, garapen bidean dauden herrialde guztietako klase ertainak nabarmen haziko dira hurrengo hamabost edo hogeitaz urteetan, Txinan eta Indian batez ere.¹⁶ Nolanahi ere, munduan badira oraindik ere oso desoreka nabariak, eta pobrezia-tasak oso desberdinak dira munduko eskualde batzuetan eta besteetan.¹⁷

¹¹ NBE-HABITAT. 2013. *UN-HABITAT Global Activities Report 2013. Our presence and partnerships*. Nairobi, UN-HABITAT.

¹² SPREAD Sustainable Lifestyle 2050. 2011. *Sustainable Lifestyle: Today's facts and Tomorrow's trends*. Amsterdam, SPREAD Sustainable Lifestyle 2050.

¹³ Giza Kokalekuetarako Nazio Batuen Programa, NBE-Habitat, www.un-ngls.org/spip.php?page=article_fr_s&id_article=819 [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

¹⁴ NBE DESA. 2013. *World Population Prospects: The 2012 Revision*. New York, Nazio Batuak.

¹⁵ Drummond, P., Thakoor, V. eta Yu, S. 2014. *Africa Rising: Harnessing the Demographic Dividend*. IMF Working Paper 14/43. Nazioarteko Diru Funtza.

¹⁶ National Intelligence Council. 2012. *Global Trends 2030: Alternative worlds*. Washington, DC, National Intelligence Council.

¹⁷ Zenbait kalkuluren arabera, Ekialdeko Asian eta Pazifikokoan pobrezia-tasa 2010ean %12,5 zen, Hego Asian %30etik gora eta Saharaz hegoaldeko Afrikan, berriz, ia %50. NDF eta Munduko Bankua. 2013. *Global Monitoring Report 2013. Rural-Urban Dynamics and the Millennium Development Goals*. Washington, DC, Berrikuntza eta Garapeneko Nazioarteko Bankua, eta Munduko Bankua.

Barne-produktu gordina (BPGd) asko hazteak ez du beti esan nahi behar beste enplegu-kopurua lortzen denik, ez eta lortu nahi den lan-mota sortzen denik ere. Enplegu-aukerak ez dira hazten lanesku-hazkundeari aurre egiteko bezainbeste. Esate baterako, 2013. urtean, 200 milioi lagun baino gehiago zegoen lanik gabe munduan, eta langabezia-tasak gora egiten jarraituko du mundu osoan. Langabezia-tasa handienak dituzten munduko herrialdeetan, hala nola Ekialdeko Asian, Hego Asian eta Saharaz hegoaldeko Afrikan, enpleguaren kalitateak behera egin du, gainera. Enplegu guztien ia erdia enplegu prekarioa da egun, eta horren ondorioz gero eta langile gehiago bizi dira pobrezia-ataritik oso hurbil edo azpitik. Askoz ere ohikoagoa da enplegu prekarioa duten pertsonen gizarte-segurantza edo diru-sarrera ziurrak ez edukitzea edo nekezago lortzea, soldatapeko langileek baino.¹⁸

Munduko herrialde gehienetan ez dago oinarrizko gizarte-babesik, eta, beraz, aipatutako problema horiek are larriagoak dira eta desberdintasunak are handiagoak, bai Iparraldeko zein Hegoaldeko herrialde gehienetan, bai herrialde horietako bakoitzaren baitan.¹⁹ Azken mende laurdenean, aberastasuna gero eta pertsona gutxiagoren artean banatu da.²⁰ Munduko aberastasuna honela dago banatuta: aberastasunaren ia erdia %1ek du, eta gainerako beste erdia %99k.²¹ Diru-sarreretak desberdintasun hori oso azkar hazten ari da, eta gizarte-bazterketa sustatzea dakar, bai eta gizartearen arteko kohesioa ahultzea ere. Muturreko desberdintasunak gizarte-tirabiren iturri dira gizarte guztietan, eta, horrez gain, ezegonkortasun politikoen eta gatazka bortitzen iturri.

1. tartekia. Latinoamerikan desoreka handiak diru-sarreretan, nahiz eta ekonomia asko hazi den

Latinoamerika eta Karibe dira oraindik ere diru-sarreretan desorekarik handienetakoak dituzten herrialdeak, nahiz eta aurreko hamarkadan ekonomia asko hazi zen eta gizarte-adierazle hobeak erregistratu zituzten. Honela dio txostenak: ‘Soldata-murrizketaren arrazoiak aldaketa teknologikoen –laneskuan aurrezten baita– eta lan-merkatua bideratzen duten araudiak eta instituzioak ahuldu izana da. Litekeena da murrizketa horiek gehiago eragitea diru-sarrera ertainak eta txikiak dituzten pertsonen, haiek berek egindako lanaren truke lortutakoaz bizi baitira batik bat’. Horrez gain, honako hau ere jaso du txostenak: ‘Lurra inolako orekarik gabe banatu izanak eragin ditu tirabirak gizartearen eta politikaren alorrean, eta, horrez gain, ekonomikoki efizientea ez izatea ere bai; izan ere, jabetza txikiak dituzten pertsonen, oro har, ezin dituzte kredituak eskatu, ez eta beste bitarteko batzuk eskuratu ere produktibitatea hobetze aldera, eta jabetza handiak dituztenek, berriz, ez dute behar beste motibazio hori egiteko.’

Iturria: Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Departamentua, 2013. *Desoreka-arazoak. Munduko gizarte-egoerari buruzko txostena, 2013*. New York, Nazio Batuak.

¹⁸ Lanaren Nazioarteko Bulegoa. 2014. *Global Employment Trends 2014*. Geneva, Lanaren Nazioarteko Bulegoa.

¹⁹ NBE DESA. 2013. *Inequality matters. Report on the World Social Situation 2013*. New York, Nazio Batuak.

²⁰ Ikusi Munduko Foro Ekonomikoa. 2014. *Outlook on the Global Agenda 2015*. Global Agenda Councils. 8-10. or.

²¹ Oxfam. 2014. *Working for the Few: Political capture and economic inequality. Oxfam Briefing Paper*. 178. zk. Oxford, Erresuma Batua, Oxfam.

Interkonexio handiagoa, baina, aldi berean, intolerantziak eta indarkeriak gora egin dute

Teknologia digital berrien bilakaeraren ondorioz, eskuragarri dagoen informazioaren eta ezagutzaren bolumena oso azkar hazi da, eta, horrez gain, askoz ere jende gehiagoren esku jarri dira informazioa eta ezagutza mundu osoan. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, berez, funtsezko funtzioa bete dezakete ezagutzak eta kompetentziak igortzen garapen jasangarriaren mesedetan eta, gainera, elkartasuna sustatu. Baina, behatzaile askoren arabera, intolerantzia etnikoa, kulturala eta erlijiosoa izugarri hazi dira munduan, eta komunikazioaren teknologia berberak erabiltzen dituzte mobilizazio ideologikoaren eta politikoaren mesedetan, mundu-ikuskera eskusibistak sustatzeko. Eta mobilizazio horrek, askotan, delituek, indarkeria politikoek eta gatazka armatuek gora egitea dakar.

Emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeriak gora egin ohi du krisi-garaian eta ezegonkortasun-egoerak nagusi direnean, hala nola gizarte-asaldurako aldietan eta gatazka armatuen ondoriozko desplazamenduetan. Halako egoeretan, emakumeen aurkako indarkeria orokortu egiten da eta sistematikoa ere izan daiteke, talde armatuek gerra-taktika gisa baliatzen dutenean indarkeria, derrigortutako prostituzioa edo sexu-trafikoa.²² Barne-desplazamenduak, gainera, emakumeei gehiago eragiten die, eta haien osasunak okerrera egitea eta eskolan emaitza kaskarrak lortzea dakar.²³ Gainera, zuzenean eragiten du haienganako tratuan eta familien zein haurren bizi-baldintzetan.

Indarkeriak, bereziki drogen ekoizpenarekin eta trafikoarekin zerikusia duen indarkeria kriminalak (oso arazo larria munduko zenbait herrialdetan, hala nola Erdialdeko Amerikan), ezegonkortasun politikoak eta gatazka armatuak oraindik ere arriskuan jartzen dute jende askoren bizitza, eta gizarte- eta ekonomia-garapena oztopatzen dute.²⁴ Zenbait azterketaren arabera, 500 milioi pertsona inguru bizi dira ezegonkortasun- eta gatazka-arriskua duten herrialdeetan.²⁵ Hainbat azterketaren arabera, indarkeriak munduan eragindako kalteei aurre egiteko eta kalte horiek eragozteko ia 10 bilioi dolar estatubatuar baliatu dira: munduko barne-produktu gordinaren %11 baino gehiago,

²² NBE-Emakumeak. 2013. *A Transformative Stand-alone Goal on Achieving Gender Equality, Women's Rights and Women's Empowerment*. New York, NBE-Emakumeak.

²³ Munduko Bankua. 2011. *World Development Report 2011: Conflict, Security and Development*. Washington, DC, Munduko Bankua.

²⁴ Droga-merkatuak, batik bat, herrialde garatueta daude, baina droga ekoizten, eraldatzen eta trafikatzeko garapen-bidean dauden herrialdeek hartzen dute parte. Merkatua handia da eta hazten ari da, eta drogaren industria ere maila berean ari da gora egiten. Industria horrek berekin dakar indarkeria, lurraldea lortzeko tirabiraka aritzen baitira taldeak. Eskulan asko behar izaten da, eta jarduera askotarako prestakuntzarik ez duten langileak. Herrialde askotan, batez ere mutikoak hazten dira negozio horretan; hau da, gazte askok eskolara joateari uzten diote eta bizitza arriskuan jartzeko prest egoten dira, ordainetan diru-sarrera handiak jasotzen baitituzte. Estupefazianteak ekoizteko lurralde zabalak hartzeaz gain, lurralde horietako biztanleak mende hartu behar dira. Droga-trafikatzeak beste delituzko jarduerak batzuk ere eragiten ditu: estortsioa, gizakien trafikoa eta sexu-esklabotza, bahiketak, etab. Horiek guztiak segurtasun pertsonala arriskuan jartzen dute. Zorigaitz horren biktima dira, besteak beste, Erdialdeko Amerikako herrialdeak, Mexiko, Kolonbia eta Mendebaldeko Asiako herrialde batzuk. Gaurdaino ez zaio arazo horri irtenbidea eman.

²⁵ Global Peace Index and Institute for Economics and Peace. 2014. *Global Peace Index 2014*. Ekonomia eta Bakerako Institutua.

edo Afrikako herrialde guztien 2013. urteko barne-produktuaren halako bi.²⁶ Eta ez hori bakarrik, aurrekontu publikoetatik segurtasunean eta armadan inbertitzen denak garapenerako inberti zitekeenaren kalterako da. Munduko gastu militarrek gora egin du etengabe 2000. urteaz geroztik; hain zuzen, 1.742.000 milioi dolar estatubatuar gastatu ziren munduan 2012. urtean²⁷, eta zenbait herrialdek barne-produktuaren zati handiagoa baliatzen dute gastu militarretarako hezkuntzarako baino.

Horrek guztiak garrantzi handiko ondorioak dakartza gatazkak aintzat hartuko dituzten hezkuntza-politikak egitean eta aplikatzean. Izan ere, hezkuntzaren alorreko politikek ezinbestez izan behar dute inklusiboak, bai formulatzerakoan bai aplikatzerakoan, baldin eta hezkuntzaren bidez gizarte-desorekak eta -tentsioak eragozteko lortuko badugu; kontuan hartu behar baita indarkeria eta ezegonkortasun politikoaren sustatzaile bilaka daitezkeela desoreka eta tentsio horiek. Giza eskubideak irakastea oso garrantzitsua da, gatazkak eragiten dituzten arazoez jakitun izan gaitezen eta arazo horiei irtenbide egokia emateko bitartekoak jar daitezen. Horrenbestez, giza eskubideak irakatsi behar dira, ez-diskriminazioaren, eta bizitzaren eta giza duintasunaren babesaren oinarriko printzipioak sustatuko badira indarkeria- eta krisi-garaiotan. Horretarako, guztiontzako irakaskuntza-eremu seguruak, indarkeriarik gabek, inklusiboak eta eraginkorrak ziurtatu behar dira.

Giza eskubideak: aurrerapenak eta erronkak

Giza eskubideak unibertsalak izatea denon nahia da, guztiontzako ongia lortze aldera. Giza eskubideen unibertsaltasunari esker, gizakion duintasuna errespetatu egiten da –edozein direla bestelako desberdintasunak eta berezitasunak– eta garapen betea lortzeko aukera guztiak edukitzea aitortzen da.²⁸ Baina, nolana ere, nabarmena da izugarriko desoreka dagoela nazioarteko arau-esparruak onartzearen eta haiek aplikatzearen artean, eta horrek gero eta tirabira handiagoa eragiten duela botere-dinamikaren eta legetzat hartutako oinarriko eskubideen artean. Zuzenbidea eta justizia lehenesteko helburuak, bai estatu-mailan bai nazioarte-mailan, askotan huts egiten du interes-talde boteretsuen hegemoniagatik. Erronka, orain, giza eskubideen unibertsaltasuna ziurtatzea da, zuzenbideari nagusitasuna emanez eta arau sozialak, kulturalak eta etikoak ezarriz.

Generoa izan ohi da diskriminazio-elementu nagusia. Azken hamarkadetan emakumeen eskubideak sendotu egin dira, batik bat emakumeen aurkako diskriminazio-mota oro desagerrarazteko 1979ko hitzarmena (CEDAW) herrialde gehiagotan aplikatzeko egindako ahaleginei esker eta Beijingen egindako Emakumeari buruzko Mundu Konferentzian (1995) onartutako ekintza-programa aplikatzeko egindakoari esker. Nahiz eta osasunerako eta hezkuntzarako aukerari dagokionez gizonen eta emakumeen

²⁶ Ibid.

²⁷ Kopuruak dolar estatubatuarretan adierazi dira, prezio eta kanbio-tasa konstanteetan (2011).

Datu-basea: SIPRI, www.sipri.org/research/armaments/milex [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

²⁸ Giza eskubideen unibertsaltasuna 1948an aintzatetsi zen lehendabizikoz Aldarrikapen Unibertsalarekin, eta, gero, Giza Eskubideen Gutunaren bidez, Nazio Batuen Erakundeak onartutako eta gobernuak berretsitako hainbat hitzarmenez osatutakoa.

arteko berdintasunean asko aurreratu den, ez da hainbeste aurreratu emakumeek bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoan duten parte-hartzeari dagokionez.²⁹ Muturreko pobrezian bizi diren pertsona gehienak emakumezkoak dira³⁰. Munduan dauden analfabeto gazte eta heldu gehientsuenak ere emakumeak dira.³¹ Emakumeek, halaber, mundu osoko parlamentuetako aulki guztien %20 baino gutxiago dituzte.³² Emakumeen egoera lan-merkatuan, eta batik bat sektore informalean, prekarioa da, baina enplegu-aukera gutxiago izatearen ondorioz eta ondoz ondoko finantza-eta ekonomia-krisien eraginez are eta prekarioago bilakatu da, lana aurkitzeko lehia oso gogorra baita. Gaur egun, lana duten emakumeen erdiak enplegu prekarioa du, lana izango duten ziur jakin gabe eta babesik gabe bizi dira, ekonomia-gorabeheren mende;³³ horrez gain, kontuan izan behar da soldatetan eta lanbide-garapenean ere emakumeak diskriminazio-egoeran daudela.

■ Beste ezagutza-aukera batzuk

Zibernetikaren alorra

Garapenaren ezaugarri bereizgarria, egun, zibernetikaren alorra sortu eta hedatu izana da, bai eta Interneterako konexio-kopuruak gora izugarri egin izana eta gailu mugikorrek orokortu izana ere.³⁴ Konektatutako munduan bizi gara. Aztertutako datuen arabera, munduko biztanleen %40k erabiltzen du Internet gaur egun, eta erabiltzaileen kopuru horrek gora egiten jarraitzen du etengabe, eta oso azkar, gainera.³⁵ Internet edukitzeari dagokionez, ez dago alde nabarmenik herrialdeen eta eskualdeen artean, baina Hegoaldean konexioa duten etxeen kopurua handiagoa da Iparraldean baino. Gainera, eskuko telefonoa erabiltzeko munduan egun egiten diren kontratuen %70 baino gehiago Hegoaldean egiten dira.³⁶ Egungo joera ikusita, orain konexiorik ez duten 5.000 milioi lagunek konexioa izango dute datozen hogeitun urteetan.³⁷ Nolanahi ere, konexioaren alorrean alde nabarmenak daude herrialdeen eta eskualdeen artean; esaterako, hiriguneen eta landa-eremuen artean. Banda zabalaren abiadura motela eta konexiorik eza oztopo dira ezagutza eskuragarri edukitzeko, gizartean parte hartzeko eta ekonomikoki garatzeko.

²⁹ NBE. 2013. *A New Global Partnership: Eradicate poverty and transform economies through sustainable development*, 2015aren ondorengo garapen-agendari buruz goi-mailako adituen taldeak egindako txostena. New York, Nazio Batuak.

³⁰ Ibid.

³¹ UNESCO. 2014. *EFA Global Monitoring Report. Teaching and Learning: Achieving Quality for All 2013-2014*. Paris, UNESCO.

³² NBE-Emakumeak. 2011. *Progress of the World's Women: In Pursuit of Justice*. New York, NBE-emakumeak.

³³ LANE. 2012. *Global Employment Trends for Women*. Geneva, LANE.

³⁴ Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna (UIT). 2013. *Trends in Telecommunication Reform: Transnational aspects of regulation in a networked society*. Geneva, Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna.

³⁵ Telekomunikazioen Nazioarteko Batasuna (UIT). 2013. *The world in 2014: Fact and Figures*. Geneva, UIT.

³⁶ UIT. 2014. *Trends in Telecommunication Reform, Special Edition. Fourth-generation regulation*. Geneva, UIT.

³⁷ Schmidt, E. eta Cohen, J. 2013. *The New Digital Age: Reshaping the Future of People, Nations and Business*. New York, Knopf.

Internetek erabat aldatu du informazioa lortzeko modua, ezagutzarako aukera, pertsonen elkarri eragiteko modua eta administrazio publikoaren zein negozioen komunikazio-noranzkoa. Konexio digitalak onura asko eragin ditzake osasunean, hezkuntzan, komunikazioan, aisialdian eta ongizatean³⁸. Adimen artifizialaren inguruko aurrerapenak, hiru dimentsioko inprimagailuak, holografia, uneko transkripzioak, ahotsa zein keinuak identifikatzen dituzten programa informatikoak dira, besteak beste, gaur egungo berrikuntzetako batzuk. Teknologia digitalek giza jarduerak aldatzea eragin dute: eguneroko bizitza, nazioarteko harremanak, lan egiteko modua, aisialdia... Horrez gain, bizitza pribatuko zein publikoko alderdi asko ere aldatzen ari dira teknologia berrien eraginez.

Teknologiai esker, adierazpen-askatasunerako aukera gehiago ditugu, bai eta mobilizazio sozial, herritar eta politikorako ere, baina, aldi berean, kezka larriak eragiten dituzte. Izaera pertsonaleko informazioa zibernetikoki eskuragarri egoteak, esate baterako, arazo larriak eragiten ditu intimitatearen eta segurtasunaren alorretan. Komunikaziorako eta sozializaziorako eremu berriek *sozial* kontzeptua aldatzea eragin dute, eta babesneurri aplikagarriak behar dituzte, juridikoak zein beste mota batzuetakoak, eragotziko badugu gehiegizko eta okerreko erabilera.³⁹ Internet, teknologia mugikorra eta komunikabide sozialak behar ez bezala erabili izanaren adibideak dira, besteak beste, jazarpena, delituzko jarduerak eta terrorismoko kasuak. Hezitzaileek, zibernetikaren garaioan, 'aro digitalean jaiotako'⁴⁰ belaunaldi berriak hobeto prestatu behar dituzte, egun dauden teknologia digitalen zein gerora asmatuko direnen alderdi etikoei eta sozialei aurre egin ahal izan diezaieten.

Neurozientzien aurrerapenak

Neurozientzien alorreko berrikuntzek jakin-min handia piztu dute hezkuntza-komunitatean; izan ere, prozesu biologikoen eta giza ikaskuntzaren arteko elkarreraginak hobeto ulertzen saiatzea du xede neurozientziak. Agian oraindik goiz da berrikuntza horiek hezkuntza-politikak prestatzerakoan kontuan hartzeko, baina irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak hobetzeko aukera paregabeak eskaintzen dituzte berrikuntza horiek. Horren harira, garuna bizitzaren fase bakoitzean nola garatzen eta jarduten den jakiteko egin dituzten azken ikerketak oso aberasgarriak izan dira hobeto ulertzeko nola eta noiz ikasten den.

Esate baterako, azterlan aipagarrienetako batzuek ikaskuntza-jardueren 'epealdi erabakigarrienak' dituzte aztergai⁴¹, eta adierazten dutenaren arabera, hizkuntza ikasteko unerik egokiena haurtzarora da, eta horrek agerian utzi du zeinen garrantzitsua den eskolaurreko hezkuntza eta nola den posible hainbat hizkuntza ikastea lehendabiziko urteetan. Beste ikerketa batzuek agerian utzi dute garuna 'malgua' dela eta aldaketak

³⁸ Ibid.

³⁹ Hart, A.D. eta Hart Frejd, S. 2013. *The Digital Invasion: How Technology Is Shaping You and Your Relationships*. Ada, MI, Baker Books.

⁴⁰ Prensky, M. 2001. Digital Natives, Digital Immigrants. *On the horizon*. MCB University Press, 9. liburukia, 5. zk.

⁴¹ ELGE 2007. *Understanding the brain: The birth of a learning science*. Paris, EDUCERI-OECD.

egiteko gai dela, bizitzaren joanean gertatzen diren egoera berrietara moldatzeko.⁴² Beraz, berretsi egin da etengabeko ikaskuntzaren ideia eta guztiok dugula ikasteko ahalmena, edozein dela adina.

Aitortu behar da, halaber, zenbait ingurumen-faktorek ere eragiten dutela garunaren funtzionamendu egokian, hala nola nutrizioak, loak, kirolak eta aisiak. Faktore horiek adinako garrantzia dute ikuspegi holistikoei; izan ere, ongizate fisikoaren eta intelektualaren arteko lotura estua hartzen dute kontuan, bai eta garun emozionalaren eta kognitiboaren, analitikoaren eta kreatzailearen arteko elkarreragina ere. Neurozientzien alorreko ikerketei esker, hobeto ezagutuko dugu berezkoaren eta ikasitakoaren arteko lotura, eta, hala, hezkuntzaren alorreko ekimen hobekak jarri ahal izango ditugu abian.

Klima-aldaketa eta energia-iturri alternatiboak

Klima-aldaketa da mende honetako arazo erabakigarrienetako bat, bai klima-aldaketa moteltzeko beharrezko konponbideei dagokienez, bai eragiten dituen ondorio kaltegarriei aurre egiteko beharrezko bitartekoei dagokienez ere. Klima-aldaketa moteltzen ahalegintzeko, aldi berean emisioak murrizteko eta planetarentzako ondorio larri gehiago eragozteko konpromisoa hartu behar da; egoera horretara egokitzeak berekin dakar zaurgarritasuna murriztea eta ondorioei aurre egitea. Hezkuntzak, berriz, oso egiteko garrantzitsua du kontzientzia handiagoa sorrarazte aldera eta portaera-aldaketa sustatze aldera, bai klima-aldaketa moteltzea lortzeko bai aldaketara egokitzeko.⁴³

Hezkuntza funtsezko faktore bat da, ikatza erabili ordez belaunaldi berriek energia-iturri berriztagarriak erabil ditzaten sustatzeko eta bultzatzeko, horri esker moteldu baitaiteke zorigaiztoko klima-aldaketa. Ikatza erabiltzeari utzi eta energia-iturri berriztagarriak erabiltzen hasiko bagara, usteak eta iritziak aldatu behar ditugu, eta, horrez gain, energia-iturri berriztagarriak erabiltzen hasiko diren pertsonen pentsaera-aldaketa sustatu. Energia-azpiegiturak berak soilik ez ditu aldaketa egokiak eragingo.

Hezkuntza, halaber, egokitze ahalmenaren funtsezko osagai bat da, eta, hortaz, egungo zein etorkizuneko belaunaldiei beharrezko ezagutza, trebetasunak eta jokabideak transmititu behar zaizkie, etengabe aldatzen ari den ingurunean unean uneko egoera ekologikoetara, sozialetara eta ekonomikoetara egokitze. Hezkuntzari eta sentsibilizazioari buruzko Limako ministro-adierazpenak (2014) honako hau zioen: klimari buruzko estrategiak eta politikak osatzean eta aplikatzean, klima-aldaketaren inguruko gaiak aintzat hartu behar dituzte gobernuek, norik bere lehentasunen eta eskumenen arabera, eta horren arabera diseinatu estrategiak.

⁴² Ibid.

⁴³ Lutz, W., Mutarak, R. eta Striessnig, E. 2014. Universal education is key to enhanced climate adaptation. *Science*. 2014ko azaroaren 28a. 346. liburukia, 6213. zk. Education is key to climate adaptation. www.iiasa.ac.at/web/home/about/news/20141127-Science-Pop.html [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

Sormena, berrikuntza kulturala eta gazteak

Azken urteotan adierazpen kultural eta artistiko modu berriak sortu dira, eta mundu osoan konexio-aukera eta kultura-truke handiagoa edukitzeak eragindako akulturazioaren ondorio dira. Prozesu hori, neurri handi batean, gazteek bultzatu dute. Estetika publiko berri baten lekuko gara –aberatsa, berez anitza delako–, eta nabarmen hautematen dugu gazteek portaerak berri nahi dituztela berezko dituzten alor guztietan, hala nola modan, elikaduran, musikan eta harreman pertsonaletan. Gaur egun munduan dauden 14 urtetik 24 urtera bitarteko mila milioi gaztek baino gehiagok osatzen duten belaunaldia da inoiz izan den belaunaldi informatuena, aktiboena, konektatuena eta batetik bestera gehien ibiltzen dena.⁴⁴ Eskura ditugun datuen arabera, egun munduan dauden 14 eta 18 urte bitarteko gazteen %90ek hartzen du parte komunikabide sozialen batean, Facebooken eta Twitterren, esaterako. Gazteek denbora luzea ematen dute komunikabide sozialetan bisitak egiten eta aurkitzen dituzten datuak besteei helarazten. Modu horretan sortzen den inguruneari esker, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera dute gazteek eta mundu osoko estetika-gaiez jakiteko interesa pizten zaie, eta, hala, ohartu egiten dira zeinen garrantzitsuak diren beste ezagutza-sistema batzuk. Kultura-aniztasunak gero eta garrantzi handiagoa du, asmakuntzen eta berrikuntzen iturri den aldetik; egun, bitarteko oso baliagarria da giza garapen jasangarriaren mesederako.⁴⁵

■ Aukera berrien bila

Mundu plural batean mundu-ikuskeraren aurrerapena eta ongizatea munduan

Eguneko garapen-ereduen konplexutasuna ulertzeko, ezinbestez aztertu behar dugu nola definitzen diren gizadiaren aurrerapena eta ongizatea munduan. Berezi nabarmendu behar da gizarte-aniztasuna, bai planetaren iparraldean bai hegoaldean. Kultura-aniztasuna da gizadiaren sormen- eta aberastasun-iturri handiena. Berekin dakar mundua oso modu desberdinetan ikustea eta ikuspuntu bat baino gehiago edukitzea gizon-emakume guztioi eragiten diguten arazoei aurre egin ahal izateko, bai eta bizitzaren funtsezko alderdiak baloratzeko ere, hala nola naturako ekosistemak, komunitatea, pertsona, erlijioa eta espiritualtasuna. Oso egoera desberdinak bizi ditugula onartu behar dugu, eta, aldi berean, balio unibertsal komun batzuk azpimarratu. Nahiz eta aniztasuna oztopo izan nazioarte-mailan definizio bat eta ikuspuntu

Oso egoera desberdinak bizi ditugula onartu behar dugu, eta, aldi berean, balio unibertsal komunak ere baditugula.

⁴⁴ 'Youth-support' Chernor Bah, Youth Advocacy Group for Global Education First Initiative-ko presidentea (GEFI). Eztabaida-gaiak: 'Enabling conditions for the delivery of quality global citizenship education: Where are we? Where do we want to go?' Global Citizenship Education: Enabling Conditions & Perspectives, 2014ko maiatzaren 16an, UNESCO, Paris. www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/ED/pdf/Chernor-Bah_16May2014.pdf [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁴⁵ UNESCO. 2009. *UNESCO World Report Investing in Cultural Diversity and Intercultural Dialogue*. Paris, UNESCO. <http://unesdoc.unesco.org/images/0018/001852/185202e.pdf> [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

bat lortzeko, oso positiboa da osasunari, hezkuntzari eta diru-sarrerari buruzko adierazle tradizionalen gain beste ikuspegi batzuk ere edukitzea. Baina giza ongizateari buruzko ikuspegi asko daude, subjektiboak eta testuinguruaren zein egoeraren arabera, eta horren ondorioz, zoritxarrez, egun indarrean dauden arauen ikuspegi asko oraindik ere partzialak eta desegokiak dira.⁴⁶

2. tartekia. Ezagutza-sistema desberdinen arteko topagunea

Europako kultura iritsi da gurera, eta berezko ezagutzarekin iristeaz gain, berezkoa duen abiadura ere nabaria da. Nahiz eta guk kultura hori modu ez-perfektuan geureganatu dugun eta horren ondoriozko galerak asko izan, ondo egia da gure bizitza intelektuala ohitura formalen inertziatik atera duela eta kontzientzia-maila aparta lortu dugula, gure tradizio mentalekiko oso bestelakoa baita. Nik ezbaian jarri nahi dut, alabaina, atzerriko hezkuntza horrek gure mentalitate nazionalaren eremu guztia hartzeko balia diren neurri artifizialak; izan ere, errealtateen konbinazio berri bati esker sor zitekeen beste energia mental berri bat sortzeko aukera galarazi edo oztopatu da. Horregatik guztiagatik adierazi nahi dut berriro ere gure kulturaren berezko elementu guztiak sendotu behar direla, ez mendebaldeko kulturaren aurka egiteko, baizik eta kultura hori benetan onartzeko eta geureganatzeko, eta, hala, gurea aberatsagoa egingo duen modu batez baliatzeko eta gerora ez damutzeko; kultura hori benetan ezagutu behar dugu, eta ez azaletik, teoria hutsaren edukien interprete gisa.

Iturria: Tagore, R. 1996. The Centre of Indian Culture. Sisir Kumar Das (ed.), *The English Writings of Rabindranath Tagore*, 2. liburukia, Plays, Stories, Essays. New Delhi, Sahitya Akademi, 486. or.

⁴⁶ Nahiz eta nazioarte-mailan denok ez definitu modu berean 'ongizate' kontzeptua, egun erabat onartuta dago definitzeko ez dela inondik inora nahikoa adierazle sozioekonomiko tradizioletara jotzea. Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) diru-sarrerei, osasunari eta hezkuntza-alarri buruzko adierazleek bere baitan hartzen dituen Giza Garapenaren Indizeaz (GGI) gain, beste batzuk ere hartu ditu kontuan berriki. Beraz, berdintasun-ezaren eta genero-gaien inguruan sortzen ari diren arazo larriez kezkatuta, beste adierazle batzuk ere hartzen dira aintzat: Berdintasun-ezaren arabera doitutako GGa, Genero Garapenaren Indizea eta Generoaren alorreko Berdintasun-ezaren Indizea. Giza garapenaren oso ikuspegi mugatua oinarri duten adierazleez gain beste batzuk ezartze aldera, munduan inklusioa eta jasangarritasuna lortzeko beste neurri batzuk aztertzeko hainbat ekimen gauzatu dira. Nazio Batuen Unibertsitateak proposatutako Aberastasun Inklusiboaren Indizea da adibideetako bat. Hona hemen beste batzuk: *Better Life Initiative* (ELGE); *EDP: Environmentally Adjusted Net Domestic Product* (UN SEEA93); *EPI: Environmental Performance Index* (Yaleko Unibertsitatea); *ESI: Environmental Sustainability Index* (Yaleko Unibertsitatea); *GPI: Genuine Progress Indicators (Redefining Progress)*; *Green Growth Indicators* (ELGE); *Genuine Savings* adierazlea (Pearce, Atkinson & Hamilton); *HCI: Human Capital Index* (Munduko Foro Ekonomikoa); *ISEW: Index of Sustainable Economic Welfare* (Cobb & Daly); *NNW: Net National Welfare* (Japoniako gobernu); *SDI: Sustainable Development Indicators* (Europako Batasuna; Erresuma Batuko gobernu).

Ezagutza-sistema alternatiboak integratzearen alde onak

Ezagutza-eredu nagusia ez den beste eredu batzuk aztertu behar dira. Ezinbestez onartu behar dira beste ezagutza-sistema batzuk, bai eta haiek behar bezala aintzat hartu ere, beheragoko maila batera baztertu orde. Gizarte guzti-guztiek dute zer ikasi elkarrengandik, gauza berriak ikasteko eta beste mundu-ikuskera batzuk ulertzeko jarrera irekia izanik. Zer ikasi asko dago; esate baterako, mundu osoko landa-eremuetako gizarteengandik, batik batik herri indigenengandik, gizakiek ingurumenarekin zer harreman duten ikasi beharko genuke. Kultura indigena askotan Lurra amatzat hartzen da. Ezin zaio inolako kalterik eragin Lurrari, ez eta hartatik sortzen diren produktuei ere, ez badago horretarako zentzuzko arrazoirik, eta batik bat biziraupenarekin daude lotuta arrazoi horiek. Beste kultura askotan, berriz, gizakiak naturako kideztat hartzen dira, eta denek eskubide berberak dituzte eta izaki bizidunen artean inor ez da gailentzen. Landa-eremuetako gizarte askok denboraren ikuskera lineala eduki orde zirkularra dute, nekazaritzako ekoizpenarekin, urtaroen zein festen segidarekin eta komunitateen ongizate espirituala sendotzen duten errituekin lotuta. Komunitate guztiek ez dituzte modu berean hartzen erabakiak. Zenbait gizartetan demokrazia dute eta bozketaren bidez hartzen dituzte talde-erabakiak, bai eta talde txikietan antolatuta ere; beste gizarte batzuetan, berriz, denen arteko adostasuna lortzea dute helburu, eta, horretarako, argudioak eman behar dituzte, eztabaidatu eta konbentzitu. Ezin konta ahala mundu-ikuskera daude denon aberasgarri, baldin eta prest bagaude ziurtzat jotzen ditugun gauzak baztertu eta gure egoeraren araberakoak ez diren beste azalpen batzuetarako jarrera irekia badugu.

Ezinbestez onartu behar dira beste ezagutza-sistema batzuk, bai eta haiek behar bezala aintzat hartu ere, beheragoko maila batera baztertu orde.

Oso garrantzitsua da gogoan izatea, Frantz Fanon, Aimé Césaire, Rabindranath Tagore eta beste pentsalari askok gogorarazi bezala, ezagutza-modu bat lehenesten denean, botere-sistema bat lehenesten dela. Hezkuntzaren eta garapenaren etorkizunak, munduko egungo egoera ikusita, beharrezkoa du mundu-ikuskeren arteko elkarrizketa, egoera desberdinetan sortutako ezagutza-sistemak integratzeko eta guzti-guztion ondarea izango dena sortzeko. Hezkuntzari buruzko nazioarteko eztabaidetan Hegoaldekoek ere eman behar dute iritzia. Adibidez, Latinoamerikako Andeetako komunitateetan, garapena esateko *sumak kawsay* hitza erabiltzen dute, kitxuaz '*bizitza ona*'. *Sumak kawsay* kontzeptuak kultura eta mundu-ikuskera indigenak ditu jatorri, eta Ekuadorreko eta Boliviako konstituzioetan jaso da. Mahatma Gandhiren 'gordailuzain' kontzeptua ere oso kontuan hartzekoa da; kontzeptu horren bidez adierazi zuen Lurreko ondasun guztien arduradun garena, etorkizuneko izaki bizidun eta belaunaldi guztien 'zaintzaile-arduradun' modura, eta ez 'jabe' modura.⁴⁷

⁴⁷ M. K. Gandhi, 1960. *Trusteeship*. Ravindra Kelekar-ek bildua. Ahemadabad, India, Jitendra T. Desai Navajivan Mudranalaya.

3. tartekia. *Sumak Kawsay*: garapenari buruzko beste ikuspegi bat

Sumak kawsay kontzeptuak Ekuadorreko Andeetako herri kitxuarren berezko mundu-ikuskerara du oinarri, eta '*Bizitza ona*' esan nahi du. Denon arteko harmoniazko garapenari egiten dio erreferentzia, gizabanakoa komunitate sozialen edo kulturalen baitakotzat eta bere natura-ingurunearen baitakotzat hartzen duen garapenari. Kitxuarren tokiko sinesmen-sistema tu iturburu, eta kontzeptu horren bidez Mendebaldeari garapen-eredu menderatzaileengatik kritikak egiteaz gain, beste paradigma bat ematen du ezagutzera, gizakien arteko eta gizakien zein haien natura-ingurunearen arteko harmonia oinarri hartuta.

Kontzeptu hori Ekuadorreko Konstituzioan jaso da berriki, eta honela aipatzen da: herritarren arteko bizikidetzaren modu berria, aniztasuna oinarri izango duena eta naturarekin harmonian biziko dena, bizitza ona, *sumak kawsay* lortzeko. Konstituzioak onartu egiten die herritarrei ingurumen osasuntsu eta ekologikoki orekatu batean bizitzeko eskubidea, jasangarritasuna eta bizitza ona (*sumak kawsay*) ziurtatzeko. Konstituzioak berariaz adierazten du, halaber, estatuak betebeharrak haur duela: ezagutza sor dadin eta zabal dadin sustatzea, ikerketa zientifikoa eta teknologikoa bultzatzea, eta arbasoen jakinduria sendotzea, bizitza ona, *sumak kawsay*, lortzen laguntzeko.⁴⁸

Hezkuntza berraztertzea xede, mundu anitz batean

Ezinbestekoa da, horrenbestez, hezkuntzak zer xede duen berriro aztertzea, giza eta gizarte-garapenari buruzko ikuspegia berritze aldera bidezkoa eta bideragarria izan dadin. Jasangarritasunaren ikuspegi horrek aintzat hartu behar ditu giza garapenaren alderdi sozialak, ingurumenekoak eta ekonomikoak, eta alderdi horiek hezkuntzarekin dituzten loturak ere bai: 'Hezkuntza benetakoa izango bada, beharrezko bitartekoak eman behar dizkigu produktiboak izateko, etengabe ikasteko, arazoei irtenbidea emateko, sortzeko ahalmena edukitzeko, eta elkarrekin zein naturarekin bakean eta harmonian bizitzeko. Estatuak neurriak hartzen dituztenean halako hezkuntza guztiok bizitza osoan zehar eskuragarri izan dezagun, iraultza motel baten modukoa jartzen da abian: garapen jasangarriaren eragile eta mundu hobea baten muin bilakatzen da hezkuntza.'⁴⁹ Hezkuntzak lagun dezake eta lagundu behar du mundu osoan garapen jasangarria lortzen.

⁴⁸ Ikusi Ekuadorreko Konstituzioaren 14. eta 387. artikulua. 14. artikulua: Herritarrek ingurumen osasuntsu eta ekologikoki orekatu batean bizitzeko eskubidea dute, jasangarritasuna eta bizitza ona –*sumak kawsay*– ziurtatzeko. 387 artikulua: Estatuak betebeharrak haur du: [...] 2. Ezagutza sor dadin eta zabal dadin sustatzea, ikerketa zientifikoa eta teknologikoa bultzatzea, eta arbasoen jakinduria sendotzea, bizitza ona, *sumak kawsay*, lortzen laguntzeko.

⁴⁹ Power, C. 2015. *The Power of Education: Education for All, Development, Globalisation and UNESCO*. Londres, Springer.

4. tartekia. Hezkuntza: garapen jasangarria sustatzeko modua

‘Hezkuntza, bere baitan hartzen dituela hezkuntza formala, kontzientzia publikoa eta prestakuntza, gizakien eta gizarteen ahalmen guztiak lantzen dituen prozesutzat hartu beharko litzateke. Hezkuntza funtsezkoa da garapen jasangarria sustatzeko, eta ingurumen- eta garapen-alorretako arazoei aurre egite aldera pertsonen gaitasuna hobetzeko.’

Agenda 21, 36. artikulua, 3. paragrafoa. 1992.

Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruz Aichi-Nagoya hirian izandako biltzarrean (2014), gobernuei adierazi zitzaizen ‘Garapen Jasangarrirako Hezkuntza integratu egin behar zela hezkuntza, prestakuntza eta garapen jasangarria xede duten politiketan’.

Ikaskuntza orok, edozein dela antolaketa-modua, egokitze eta aldatzeko modukoa izan behar du. Kalitate oneko oinarritzko hezkuntza, bai eta ondorengo ikaskuntza eta trebakuntza ere, funtsezkoak dira gizabanakoak eta gizarteak ingurumeneko aldaketetara, aldaketa sozialetara eta ekonomikoetara egokitu ahal izateko, bai tokian tokiko eremuan bai mundu zabalean. Horrez gain, ikaskuntzak berebiziko garrantzia du ahalduzeari eta ahalmenak garatzeari dagokienez, gizartea aldatuko badugu. Izan ere, gure pentsamoldea eta gure mundu-ikuskerak aldatzeko egin behar den lan nekosoan lagungarria izan daiteke hezkuntza. Bizitzari zentzua emanez eta duintasunez bizi ahal izateko herritarrek aukera gehiago eduki ditzaten, beharrezkoa da zenbait konpetentzia garatzea, eta konpetentzia horiek garatzeko gakoa hezkuntza da. Hezkuntzari buruzko ikuspegi berriak bere baitan hartu behar du pentsamendu kritikoa eta iritzi askea sortzeko gaitasuna eta eztabaidarako lantzea. Hezkuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea hobetzea –gizabanakoen zein komunitateen egoeraren arabera egokituta sozialki eta ekonomikoki– behar-beharrezkoa da norabidea aldatuko badugu.

Hezkuntzari buruz nagusi diren ikuspegiak onartu egin beharko lituzkete gizarte ongizatearen beste epistemologia eta hura ulertzeko beste modu batzuk, hezkuntza zeinen garrantzitsua den ohartzeko, guztion ongia den aldetik.

Kalitate oneko hezkuntzarako eskubidea, hain zuzen, ikaskuntza zentzudun eta egokirako eskubidea da. Edonola ere, komunitate guztiek ez dituzte ikaskuntza-premia berberak, eta, beraz, ikaskuntza egokia izango bada, kultura bakoitzak, giza talde bakoitzak duintasunez bizitzeko beharrezkotzat jotzen duenari erantzun behar dio ikaskuntzak. Onartu behar da oso modu desberdinak daudela kalitate oneko bizitza zer den definitzeko; beraz, bai eta zer ikasi behar den definitzeko ere. Hezkuntzari buruz nagusi diren ikuspegi utilitarioek onartu egin beharko lituzkete gizarte ongizatearen beste epistemologia batzuk eta hura ulertzeko beste modu batzuk, hezkuntzak bete behar duen funtzioak jabetzeko, *guztion ongia –ondasuna– den aldetik*. Horretarako, esateko asko dutenei baina iritzia emateko aukera eduki ez dutenei galdetu behar diegu. Iritzi-aniztasun hori oso aberasgarria eta lagungarria da guztion ongizatea lortze aldera. Ikuspegi humanista oinarritzat hartzea ere funtsezkoa da, hezkuntzaren eta giza ongizatearen beste ikuspuntu batzuk lortzeko.

2. Ikuspegi humanistaren berrespena



2. Ikuspegi humanistaren berrespena

“Nire gizatasuna zureari lotuta dago ezinbestez; pertsona bat besteen bidez da soilik pertsona.”

Desmond Tutu, eskubide sozialen aldeko aktibista eta gotzain hegoafrikarra

Hezkuntzaren helburu nagusiak, XXI. mendean, honako hau izan behar luke: pertsonen duintasuna, ahalmena eta ongizatea bultzatzea eta areagotzea, besteekiko zein naturarekiko. Asmo horrek *humanismoa* du oinarrian, eta hura garatzearen ardura, kontzeptuari zein praktikari dagokienez, UNESCOk izan beharko luke, *humanismo* kontzeptua aspaldidanik lantzen baitu. Adibidez, ‘Humanismoa eta Hezkuntza Ekialdean eta Mendebaldean’ gaiari buruz UNESCOk berak New Delhin antolatutako nazioarteko mahai-inguru bateko aktak 1953an argitaratu zituen.⁵⁰

Humanismoak tradizio luzea du zenbait kulturatan eta erlijiotan; baita interpretazio filosofiko anitz ere. Esate baterako, humanismoari buruzko interpretazio nagusietako batek ateismoarekin eta arrazionalismo laikoarekin identifikatzen du, bai eta beste filosofia batzuek ere, hala nola fenomenologiak eta existenzialismoak; azken horien arabera, gainera, desberdintasun ontologikoa dago gizadiaren eta gainerako mundu naturalaren artean. Badira, ordea, eragin handia duten humanismoari buruzko interpretazio erlijiosoak; haien arabera, gizadiaren, naturaren, unibertsoaren eta Kreatzaile baten arteko harremanaren ondorioa da gizadiak hezkuntzaren, kulturaren eta zientziaren alorretan lortutako guztia. XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran, humanismoen –antropozentrikoen zein teozentrikoen– aurkako kritikak sortu dira postmodernisten, zenbait feministen eta ekologisten artean, eta, azkenaldian,

⁵⁰ UNESCO Unity and Diversity of Cultures. 1953. *Humanism and Education in East and West: An international round-table discussion*. Paris, UNESCO.

transhumanisten eta posthumanisten artean ere bai, hautaketa biologikoaren eta hobekuntza erradikalaren aldekoen artean, alegia.

Interpretazio horietako bakoitzak oinarrizko auzi moral eta etikoak jartzen ditu mahai gainean, hezkuntzan oso kontuan hartu beharrekoak denak ere.

■ Hezkuntzaren ikuspegi humanista

Ikuspegi humanista edukitzeak zenbait printzipio etiko unibertsal berrestea dakar, eta printzipio horiek hartu behar dira oinarritzat, guztiontzat izango den hezkuntzaren helburuari eta antolaketari buruzko planteamendu bateratu bat egiteko. Proposamen horrek eragina izango du, bai ezagutza egokia eskuratzen lagunduko duten ikaskuntza-prozedurak diseinatzean, bai gizon-emakume guztion gizatasunaren mesederako kompetentziak garatzean. Ikuspegi humanistak hezkuntzaren alorra osotasunean hartzen du bere baitan, eta ez bakarrik garapen ekonomikoa lortzeko hezkuntzak betetzen duen funtzio utilitarioa. Inklusioa sustatuko duen eta inor kanpoan utziko edo baztertuko ez duen hezkuntza da. Mundu osoan ikaskuntzaren egoera aldatzeko gidatzat erabiltzeko balio du; izan ere, irakasleen eta beste hezitzaile batzuen funtzioa oraindik ere funtsezkoa da ikaskuntzarako, guztiontzako garapen jasangarria lortze aldera.

Garapenari buruzko diskurtso nagusiaren aurka

Hezkuntzak zer helburu eta xede dituen eta zer gizarte-mota lortu nahi dugun zehaztea da landu beharreko gai nagusia. Horretarako, faktore kulturalak, sozialak, ekonomikoak, etikoak eta zibikoak hartu behar dira kontuan. Hezkuntzak ekonomiaren alorrean funtzio garrantzitsuak ditu ezbairik gabe, baina gaingitu egin behar dira ikuspegi utilitario hutsa eta giza kapitalarena, eta ikuspegi horiek dira, neurri handi batean, garapenari buruzko nazioarteko diskurtsoaren ezaugarriak⁵¹. Hezkuntza ez da trebetasunak eskuratzea soilik, bai eta bizitzarekiko eta giza duintasunarekiko errespetuzko balioak eskuratzea ere; izan ere, balio horiek beharrezkoak dira mundu anitz batean harmonia soziala nagusi izango bada. Garapen-prozesuan alderdi etikoak funtsezkoak direla onartzea, hortaz, egungo diskurtsoaren kontrakoa izan daiteke. Amartya Sen filosofo eta ekonomialariak garapenari buruz duen ikuspegi alternatiboaren arabera⁵², hori hala dela onartuko balitz, hobetu egingo litzateke hezkuntzaren funtzio hau: bizitzari zentzua emanaz eta duintasunez bizitzeko gizakiek behar dituzten kompetentziak garatzea.

⁵¹ Esate baterako, 2015aren ondorengo garapenari buruz goi-mailako kideek 2013an idatzitako txostenean, giza kapitalaren ikuspegiak berezko duen hizkuntzan idatzita daude garapenari buruzko bi orrialdeak, eta hezkuntzak giza kapitalean egindako inbertsioaren interes-tasak eta 'herriar produktiboen' prestakuntzan egindako ekarpenak aipatzen dira.

⁵² Sen, A. 1999. *Development as Freedom*. New York, Random House; Sen, A. 1999. *Commodities and Capabilities*. New Delhi, Oxford University Press.

Ikuspegi integrala, oinarri etiko eta moral sendoak abiapuntu hartuta

Beharrezkoa da, hortaz, biziaren osoko ikaskuntzaren ikuspegi humanista berrestea, garapen sozial, ekonomiko eta kulturala lortuko bada. Normala denez, non ikasten den eta bizitzako zer garaitan ikasten den, alderdi jakin batzuek ez dute garrantzi bera izango. Nolanahi ere, biziaren osoko ikaskuntzaren garrantzia berrestean

Hezkuntzaren
helburu nagusiak,
XXI mendean,
pertsonen duintasuna,
ahalmena eta ongizatea
bultzatzea eta
areagotzea izan
beharko luke,
besteekiko zein
naturarekiko.

–hezkuntza antolatzearen printzipioa den aldetik–, ezinbestekoa da alderdi sozialak, ekonomikoak eta kulturalak haren baitan hartzea.⁵³ Hezkuntzaren ikuspegi humanista ez da mugatzen humanismo zientifikoaren noziora; urrats bat harago doa. Horren harira, ikuspegi humanista UNESCOren printzipio gidari gisa proposatu zuen Julian Huxley erakundearen lehendabiziko zuzendari nagusiak, eta gero bere egin zuen 1972ko Faure txostenak⁵⁴. Esan dugunez, *humanismo* kontzeptuaren zenbait interpretazio daude, askotan elkarren aurkakoak, eta haietako bakoitzak oinarriko arazo moral eta etikoak eragin ditu, eta jakina, kezka sortu dute hezkuntzaren alorrean. Hezkuntzaren helburu nagusiak, XXI. mendean, pertsonen duintasuna, ahalmena eta ongizatea bultzatzea eta areagotzea izan beharko luke, besteekiko zein naturarekiko.⁵⁵ Hezkuntzaren oinarriak eta helburua balio humanista hauen bidez zehaztu behar dira: bizitzaren eta giza duintasunaren

errespetua, eskubide-berdintasuna, justizia soziala, aniztasun kulturala eta soziala, giza elkartasunaren sentimendua eta guztion etorkizuna denon erantzukizuna delako sentimendua. Hezkuntzari buruzko ikuspegi dialogikoa behar da, besteak beste, Martin Buber⁵⁶ eta Paulo Freire⁵⁷ pentsalariek proposatzen dutena bezalakoa. Gizabanakoa alienatzen eta salgai huts modura tratatzen dituzten ikaskuntza-sistemak baztertu behar dira, bai eta jendea banantzea eta jendeak gizatasuna galtzea dakarten jardunbide sozialak ere. Aipatutako balio eta printzipio horiek oinarri hartuta hezi behar da, jasangarritasuna eta bakea lortuko badugu.

⁵³ Aipatzeko modukoa da 2015aren ondorengo garapen jasangarriko proposatutako helburua, hezkuntzaren alorrari dagokionez, etengabeko ikaskuntza kontuan hartuta antolatuta dagoela: 'Kalitate oneko hezkuntza inklusiboa eta ekitatiboa ziurtatzea, eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak guztiontzat sustatzea'. <https://sustainabledevelopment.un.org/content/documents/1579SDGs%20Proposal.pdf> [2015eko otsailean egin zen kontsulta]

⁵⁴ Ikusi Huxley, J. 1946. *UNESCO: Its purpose and philosophy*. Paris, UNESCO Preparatory Commission; eta horren erreferentzia bat hemen: Haddad, G. eta Aubin, J. P. 2013. Toward a humanism of knowledge, action and cooperation. *International Review of Education*, 59. liburukia, 3. zk., 331-341. or.

⁵⁵ Ikusi, besteak beste, *Diogenes* aldizkari 'On Dignity' artikulua-bilduma; 2007ko abuztua, 54. liburukia, 3. zk., <http://dio.sagepub.com/content/54/3.toc#content-block> [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁵⁶ Morgan, W. J. eta Guilherme, A. 2014. *Buber and Education: Dialogue as conflict resolution*. Londres, Routledge.

⁵⁷ Ikusi, besteak beste, Roberts, P. 2000. *Education, Literacy, and Humanization: Exploring the work of Paulo Freire*. Westport, CT and London, Bergin and Garvey.

Hezkuntzak ikuspegi zabal hori hartuz gero, aldaketa-eragile izan daiteke eta guztiontzako etorkizun jasangarria lortzen lagun dezake. Oinarri etikoa abiapuntutzat hartuz gero, pentsamendu kritikoa, iritzi askea, arazoei aurre egiteko metodoak, eta informazioko eta komunikazioko oinarrizko konpetentziak landuko dira, eta horiek eragingo dituzte joera-aldaketak. Hezkuntzari buruzko proposamen integrala eta humanista, 1996ko Delors txostenak aditzera eman zuena, erabat egokia da gaur eguneko munduan, jasangarritasuna baita mundu-garapenaren inguruko kezka nagusietako bat. Garapena jasangarria izango bada, ingurumenaren kudeaketaren eta justizia sozialaren arabera bideratu behar da hazkunde ekonomikoa, eta, horretarako, beharrezkoa da hezkuntzak ikuspegi integrala izatea, bere baitan hartuko dituena alderdi sozialak, ekonomikoak, kulturalak, zibikoak eta espiritualak.

Hezkuntzaren eta ikaskuntzaren planteamendu holistikoa behar dugu, alderdi kognitiboen, emozionalen eta etikoen arteko ohiko dikotomiak gaindituko dituen. Gero eta zabalduago dago alderdi kognitiboen eta ikaskuntzako beste alderdi batzuen arteko dikotomieei aurre egitea beharrezkoa delako iritzia, bai eta ikaskuntza-lorpena eskolan ikasitakoaren arabera neurtu behar dela uste dutenen artean ere. Ebaluatzeko modu holistikoagoak proposatu dira berriki, irakaskuntza akademikoaren ohiko esparruez gain, beste batzuk ere hartzen dituztenak beren baitan, hala nola ikaskuntza soziala eta emozionala, edo kultura eta arteak⁵⁸. Halako proposamenek agerian uzten dute beharrezkoa dela ikaskuntza akademiko konbentzionalera ez mugatzea, nahiz eta hain garrantzitsua den ikaskuntza emozional, sozial eta etiko hori neurketen bidez hautematea posible den ezbaian jarri, batik bat mundu-mailan neurtuko badira.

Hezkuntzaren lau zutabeak berriro interpretatu eta babestu behar dira

Hona hemen 1996ko Delors txostenaren kontzeptu garrantzitsuenetako bat: *Hezkuntzaren lau zutabeak*. Hezkuntza formalak, txostenean adierazitakoaren arabera, ezagutza-mota jakin batzuk bultzatzen ditu, giza garapenerako funtsezkoak diren beste batzuen kaltetan. Horrez gain, adierazi zuen ikaskuntza antolatatu orotan lau zutabeek arreta berbera merezi dutela⁵⁹:

- Ezagutzen ikastea: kultura orokor zabala eta gai gutxi batzuetan sakontzeko aukera bateratzea.
- Egiten ikastea: lanerako trebetasunak eskuratzea ez mugatzea, baizik eta egoera ugari aurre egiteko eta taldean lan egiteko behar diren konpetentziak ere eskuratzea.
- Izaten ikastea: nor bere nortasuna garatzea, eta gero eta autonomoagoa izateko, eta zentzu zein erantzukizun pertsonal handiagoz jokatzeko gai izatea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea: bestea ulertzea eta elkarrekiko mendekotasuna balioestea.

⁵⁸ Ikusi, esaterako, Ikaskuntzen Neurketarako Batzorde bereziaren azterlanak.

⁵⁹ Delors, J. et al. 1996. *Hezkuntza: altxor ezkutua*. Paris, UNESCO.

Lau zutabe horiekin bat datorren hezkuntza bateratuaren ideiak eragin handia izan du munduko hainbat herrialdetan, erabaki behar izan dituztenean politikak, irakasleen prestakuntza eta curriculumak. Esate baterako, Euskal Autonomia Erkidegoan lau zutabe horiek abiapuntu izan ziren oinarritzko hezkuntzako curriculumak garatzeko eta egokitzeko. Hezkuntzaren lau zutabe horiek gaur egun oraindik ere baliagarriak dira hezkuntza bateraturako, eta, orokorrak direnez, aukera ematen dute ikaskuntza bateratua egoeren eta uneen arabera interpretatzeko. Komenigarria litzateke beste interpretazio bat egitea, jasangarritasuna aintzat hartuta. Esate baterako, *Elkarrekin bizitzen ikastea* zutabea ezin da gizon-emakumeen arteko interakzioen alderdi sozialetara eta kulturaletara mugatu, bere baitan hartu behar baitu gizakiaren eta ingurumenaren arteko harremana.

Are kezkarriagoa da hezkuntzaren lau zutabe horien oinarriarekiko sortzen ari den mehatxua, egungo arazo sozialen testuinguruan, batez ere *izaten ikastea* eta *elkarrekin bizitzen ikastea* zutabeei dagokienez. Izan ere, bi zutabe horiek adierazten dute ondoen hezkuntzak sozializazioan duen funtzioa. Printzipio eta balio etikoek presentzia handiagoa izan behar dute ikaskuntza-prozesuan, hezkuntzaren ikuspegi humanistak oinarri dituen zutabe horiek babestuko baditugu.

Hezkuntzaren lau zutabeak aintzat hartu behar dira egungo arazo sozialen testuinguruan, batik batik *izaten ikastea* eta *elkarrekin bizitzen ikastea*.

Ikasten ikastea eta kompetentziak eskuratzea

Gaur egun, nazioartean, eztabaida asko sortu dira egungo egoera konplexu eta nahasian beharrezkoak diren kompetentzien eta trebetasunen inguruan. Nolanahi ere, bi termino horiek modu askotara definitu direnez –bat datozen definizioak ere badira–, eta modu askotara sailkatu direnez, nahasmendua eragin dute. Nahiz eta askotan ez diren bereizten *trebetasun* eta *kompetentzia* terminoak, bada

bien artean desberdintasun nabaria. Kompetentzien eremua zabalagoa da; izan ere, kompetentziek adierazten dute pertsona bat gai dela ezagutza –informazio orokorra, ulermena, trebetasunak, balioak eta jarrerak– egoera jakinetan behar bezala baliatzeko eta unean unekoari aurre egiteko.

5. tartekia. Trebetasunak: oinarrizkoak, transferigarriak, eta teknikoak eta profesionalak

Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-txostenak (2012) lan-alorrekin zerikusia duten trebetasun-mota ororen ikuspegi baliagarri bat proposatzen du. Gazteek behar dituzten hiru trebetasun-mota nagusiak zehazten ditu – oinarrizkoak, transferigarriak, eta teknikoak eta profesionalak – bai eta trebetasun horiek eskuratzeko testuinguruak ere:

Oinarrizko trebetasunak: Oinarrian, alfabetatzea eta matematikako oinarrizko ezagutzak dira, haien bidez soldatadun lana lortzeko, eta, hala, eguneroko bizitzako premiei aurre egin ahal izateko. Oinarrizko trebetasun horiek, halaber, beharrezkoak dira hezkuntza-mailan aurrera egiteko eta prestatzeko, eta trebetasun transferigarriak, eta teknikoak eta profesionalak eskuratzeko.

Trebetasun transferigarriak: Lana aurkitzeko eta lanean jarraitzeko, lan-alorreko premietara eta egoeretara transferitzeko eta egokitzeko moduko hainbat trebetasun behar dira. Trebetasun transferigarriak eskuratzeko honako hauek dakartza: arazoak aztertzea eta konponbide egokiak bilatzea, ideiak eta informazioa behar bezala jakinaraztea, sormena edukitzea, agintzeko dohaina eta erantzukizuna erakustea, eta ekimenerako trebetasuna adieraztea. Neurri handi batean, trebetasun horiek eskolatik kanpo eskuratzen dira, baina, nolana ere, hezkuntzaren eta prestakuntzaren bidez ere lor daitezke gerora garatzen jarraitzea.

Trebetasun teknikoak eta profesionalak: Langile askok ezagutza tekniko espezifikoak behar dituzte, dela lurra lantzeko, dela josteko makina bat erabiltzeko, adreiluak zein habeak jartzeko, bulego batean ordenagailuan lan egiteko... Trebetasun horiek Bigarren Hezkuntzarekin eta heziketa tekniko zein lanbide-heziketarekin lotutako enplegu-programen bidez eskuratu daitezke, bai eta laneko prestakuntzaren bidez ere; hala ere, aintzat hartu behar dira ikastaldi tradizionalak eta nekazaritzako kooperatibak.

Iturria: UNESCO. 2012. *Gazteak eta trebetasunak: Hezkuntza lanerako. Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-batzordearen txostena (2012)*. Paris, UNESCO.

Trebetasun ‘xumeek’, ‘transferigarriek’, ‘ez-kognitiboez’ edo ‘XXI. mendekoek’ gero eta garrantzi handiagoa dute, eta hezkuntzaren edukiari eta metodoei buruzko egungo teoriak aberastea eragin dute. Horren arrazoi nagusia, askotan inplizitua, sormen- eta ekimen-premia da, lehiakorragoak izateko. Arrazoi hori hezkuntzak ekonomiaren alorrean duen funtzioarekin lotuta dago, baina oso kontuan izan behar da, halaber, gizabanakoek eta komunitateek giza existentziaren askotariko alderdietarako beharrezkoak dituzten kompetentziak garatu behar direla, oso baliagarriak izan baitaitezke batzuek zein besteek ahalduz handiagoa lortzeko. Kompetentzia horiei esker lortzen da ezagutza egokia (informazioa, adimena, trebetasunak eta balioak) sormenez eta arduraz baliatzea egoera jakinetan, eta, hala, konponbideak aurkitzea eta besteekin harreman berriak edukitzea.

Zer ezagutza behar den ez du autoritate zentral batek agintzen, baizik eta ikastetxeek, irakasleek eta komunitateek. Ez da besterik gabe transmititzen den ezagutza bat, baizik eta ondo aztertutakoa, ikertutakoa, eta jende gehiagorekin batera sortutakoa eta probatutakoa, giza premien arabera. Ezagutza horren bidez garatzen da hizkuntza,

bai eta oinarriko konpetentziak ere komunikaziorako, arazoei aurre egiteko eta goragoko mailako trebetasunak garatzeko, hala nola logika, analisia, sintesia, inferentzia, dedukzioa, indukzioa eta hipotesia. Ezagutza hori konpetentzia guztien

Ez da inoiz hain garrantzitsua izan ikasten ikastea.

arteak garrantzitsuena izan daitekeenaren bitartekoen bidez eskuratutakoa da; hau da, informazioa lortzeko eta informazio hori modu kritikoan prozesatzeko konpetentziaren bitartekoen bidez lortutakoa. Ez da inoiz hain garrantzitsua izan ikasten ikastea.

Gaur egun Interneten informazio-bolumen izugarria dago.

Beraz, hau bilakatu da erronka nagusi: nerabeak nola prestatu, egunero-egunero eskuratzen duten informazio-bolumen handi hori behar bezala balia dezaten, iturri fidagarriak identifika ditzaten, irakurtzen duten informazioa fidagarria eta baliagarria den ebalua dezaten, irakurritakoa egia ote den beren buruari galdetu diezaioten, ezagutza berriak lehendik dakitenarekin lotzeko gai izan daitezen eta lehendik ezagutzen duten informazioarekiko zenbateko garrantzia duen erabaki dezaten.⁶⁰

Ikasketa-planaren antolaketa berraztertzea

Nolakoa litzateke ikasketa-plan humanista bat, politikak formulatzeari eta planaren edukiari dagokienez? Ikaskuntzaren edukiei eta ikaskuntza-metodoei dagokienez, ez bairik gabe, ikasketa-plan humanista batek galdera gehiago eragiten ditu erantzunak eskaini baino. Aniztasunarekiko errespetua sustatzen du, bai eta hegemonia-, estereotipo- eta aurreiritzi-mota oro (kulturalak) gaitzestea ere. Kulturarteko hezkuntza du oinarri, gizarte anitza onartzen duena, eta,aldi berean, aniztasunaren eta balio unibertsalen arteko oreka ziurtatzen duena. Politikari dagokionez, berriz, komeni da gogora ekartzea ikasketa-planak bitartekoak direla, hezkuntza-alorreko helburuak lortzeko eta dagozkion prozedurak antolatzeko. Ikasketa-plan horiek zilegitasuna izan dezaten, hezkuntzak zer helburu dituen zehazteko aurretik egin beharreko elkarrizketa-prozesuak parte-hartzailea eta inklusiboa izan behar du.⁶¹ Ikasketa-planaren politikak eta edukiak printzipio hauek izan behar dituzte oinarri: justizia soziala eta ekonomikoa, berdintasuna eta ingurumenarekiko ardurak; izan ere, horiek guztiak dira garapen jasangarriaren zutabeak.

⁶⁰ Facer, K. 2011. *Learning Futures: Education, Technology and Social Challenges*. New York, Routledge.

⁶¹ Amadio, M., Operti, R., Tedesco, J.C. 2014. *Curriculum in the Twenty-First Century: Challenges, Tensions and Open Questions*. *ERF Working Papers*, 9. zk. Paris, UNESCO.

Ikusi, halaber: UNESCOren Hezkuntzaren Nazioarteko Bulegoa. 2013. *The Curriculum Debate: Why It Is Important Today*. *IBE Working Papers on Curriculum Issues* 10. zk. Geneva, Hezkuntzaren Nazioarteko Bulegoa, UNESCO.

■ Hezkuntza inklusiboagoa lortu beharra

Hobekuntzak bai, baina badira desorekak oraindik ere oinarrizko hezkuntzan

2000. urteaz geroztik nabariak dira hobekuntzak, oinarrizko hezkuntzarako eskubidea gauzatzeari dagokionez; horiek, hein handi batean, Hezkuntza Guztiontzat programaren eta Milurtekoko Garapen Helburuak ezarri izanaren ondorio dira. Egoera hobea da, esaterako, eskola-matrikulazioaren adierazleek gora egin dutelako, eskolatu gabeko haurren kopurua murriztu delako, alfabetatzeari buruzko adierazleek –batez ere gazteen artean– gora egin dutelako, eta genero-desberdintasunak murriztu direlako mundu osoan, bai eskola-matrikulazioan, bai helduen alfabetatzean.

Nahiz eta alderdi asko hobetu diren, ez da bete aspaldi –1990. urtean– gobernuek eta garapeneko nazioarteko kideek emandako hitza: ‘Haur, gazte eta heldu guztien oinarrizko ikaskuntza-beharrei aurre egitea’. Oraindik ere ia 60 milioi haur eta 70 milioi nerabe daude mundu osoan oinarrizko hezkuntza eraginkorra gabe. 2011. urtean, 775 milioi heldu inguru hartzen ziren oraindik ere behar beste alfabetatu gabekotzat. Oinarrizko hezkuntza formala egiten dutenen artean, bestalde, eskola-uzte goiztiarraren eta kalitate kaskarreko hezkuntzaren ondorioz oinarrizko trebakuntza-maila eskasa da, nahiz eta kalitate oneko hezkuntza eta ikaskuntza-egokitzapena izan oraindik ere kezka nagusiak. Gutxienez 250 milioi haurrek ez dakite behar bezala irakurtzen, idazten edo zenbatzen, nahiz eta lau urtez gutxienez eskolara joan.⁶²

Horrez gain, desorekak nabarmenak dira herrialdeen artean, eta haietako askoren batez bestekoek desberdintasun ikaragarriak adierazten dituzte, oinarrizko hezkuntzako lorpenetan eta emaitzetan.⁶³ Hezkuntzaren alorreko ohiko zenbait bazterketa-faktorez gain, hala nola generoa eta hirian edo landa-eremuan bizitzea, beste faktore batzuk ere badira oraindik ere: diru-sarrerak, hizkuntza, gutxiengoa izatea eta desgaitasunen bat edukitzea. Horiek guztiek desabantailak eragiten dituzte, eta elkarren arteko eraginaren ondorioz gero eta handiagoak, bereziki diru-sarrera txikiko herrialdeetan edo gatazkak dituztenetan.⁶⁴

⁶² UNESCO. 2014. *Teaching and Learning: Achieving quality for all*. EFA Global Monitoring Report 2013-2014. Paris, UNESCO.

⁶³ Hemendik aterata: Muscat Agreement (2014). GMR txostenari buruz ari da. 57 milioi haur eta 69 milioi nerabe daude oinarrizko hezkuntzarako aukerarik gabe. 2011n, berriz, 774 milioi heldu analfabeto zeudela kalkulatu da.

⁶⁴ UNESCO. 2011. *The hidden crisis: Armed conflict and education*. EFA Global Monitoring Report 2011. Paris, UNESCO.

6. tartekia. Desgaitasunak dituzten haurrei eskubidea ukatzen zaie askotan

Oso ohikoa da desgaitasunak dituzten haurrei hezkuntzarako eskubidea ukatzea. Haien eskola-asistentziari buruzko informazio gutxi dago. Ez da erraza desgaitasunak dituzten haurrei buruzko datuak biltzea, baina datuak ezinbestekoak dira ziurtatzeko badirela politikak haur horiek dituzten arazoei irtenbidea emateko.

Aztertutako datuen arabera, 2004. urtean 14 urtetik beherako 93 milioi haurrek zuten –hau da, munduko haur guztien %5,1ek– ‘desgaitasun moderatu edo larriren bat’. Munduko osasunari buruzko txostenaren arabera, diru-sarrera txikiko eta ertaineko 15 herrialdeetatik 14tan, desgaitasunen bat eduki eta lanerako adina zuten pertsonak aukera gutxiago zituzten Lehen Hezkuntza amaitzeko gainerakoek baino; hain zuzen, herenak. Bangladeshen, adibidez, desgaitasunen bat zuten pertsonen %30ek amaitu zuen Lehen Hezkuntza, eta desgaitasunik ez zuten pertsonen %48k; Zambiarene kasuan, %43k eta %57k, hurrenez hurren; eta Paraguain, berriz, %56k eta %72k.

Egiaztatu da desgaitasunen bat izateko arrisku handiena duten haurrek eskolara joateko aukerarik ez izateko probabilitate gehiago dituztela. Bangladesh, Bhutan eta Iraken, buru-nahasmenduak zituzten haurrak izan ziren kaltetuena, eskubidea ukatzeari dagokionez. Hain zuzen ere, Iraken, desgaitasun-arriskurik ez zuten 6 eta 9 urte bitarteko haurren %10 ez zen inoiz eskolara joan 2006an, baina entzumen-arazoa izan zezaketen haurren %19 eta buru-nahasmenduren bat izateko arrisku handien zuten haurren %51 ez zen inoiz eskolara joan. Thailandian, desgaitasunik ez zuten 6 eta 9 urte bitarteko haur gehienak eskolatuta zeuden 2005-06 ikasturtean, baina ibiltzeko edo mugitzeko arazoak zituzten haurren %34 ez zen inoiz eskolara joan.

Iturria: UNESCO. 2014. *Irakaskuntza eta ikaskuntza: kalitatea lortzea, guztiontzat. Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-batzordearen txostena (2013-2014)*. Paris, UNESCO.

Genero-berdintasuna oinarritzko hezkuntzan

Genero-berdintasuna hezkuntzan eta genero-paritatea hezkuntza formaleko maila guztietan parekotzat hartu izan ohi dira. Generoa aspaldidanik da desberdintasun-faktorea hezkuntzari dagokionez, eta ia beti neskatoen eta emakumeen kaltetan. Nolanahi ere, 2000. urteaz geroztik egoerak hobera egin du nabarmen; izan ere, desberdintasunak murriztu egin dira eta hezkuntza formaleko maila guztietan ikasten ari diren neskatoen eta emakumeen kopuruak gora egin du. Zehatz-mehatz, Lehen Hezkuntzan generoen arteko parekotasuna lortu da Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, Erdialdeko Asian, Ekialdeko Asian eta Pazifikokoan, Latinoamerikan eta Kariben, Ipar Amerikan eta Mendebaldeko Europan. Horrez gain, 2000. urteaz geroztik, generoen arteko desberdintasunen murrizketan ere hobekuntzak nabarmenak izan dira, batez ere Hego eta Mendebaldeko Asian, eta maila apalagoan Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Arabiar herrialdeetan. Nolanahi ere, nahiz eta egoerak nabarmen egin duen hobera, eskolatu gabeko haur gehienak neskatoak dira, eta munduan behar bezala alfabetatuta ez dauden gazte eta heldu guztien bi heren emakumeak dira. Emakumearen ahalduntzea bultzatzeko, mutikoei eta gizonetako ere hartu behar

dute parte genero-desberdintasunen aurkako borrokan, eta oinarritzko hezkuntzan hasi behar dute zeregin horretan.

7. tartekia. Hezkuntzarako aukera ez duten neskatoen ahotsa entzutea

Hezkuntza da bizitzaren bedeinkapenik handienetako bat.

Gaur... ez naiz ahots bakarra, ahots asko naiz.

Hezkuntzarako eskubidea ukatzen zaien 66 milioi neskatoen ordezkari naiz, haien ahotsa.

Eta gaur ez naiz ni hizketan ari, 66 milioi neskatoen ahotsa baizik.

Malala Yousafzaik Bakearen Nobel Saria jaso zuenean Oslon emandako hitzaldia, 2014ko abenduaren 10a.

Genero-parekotasuna Bigarren Hezkuntzan eta goi-mailakoan

Bigarren Hezkuntzan, generoen arteko parekotasuna hainbat lurraldetan lortu da, hala nola Erdialdeko Asian, Ekialdeko Asian, Latinoamerikan eta Kariben, Ipar Amerikan eta Mendebaldeko Europan. Beste batzuetan desorekak murriztu dira, batik bat Hego Asian eta Mendebaldeko Asian, eta maila apalagoan, Arabiar herrialdeetan. Bigarren Hezkuntzan, generoen arteko desorekak, matrikula-kopuruaren arabera, nabarmenagoak dira Saharaz hegoaldeko Afrikan, Mendebaldeko Asian eta Hego Asian, matrikulazioen batez bestekoak txikiagoak baitira. Baina goi-mailako hezkuntzari dagokionez, unibertsitateko ikasleen artean emakumeen proportzioa oraindik ere txikia da Saharaz hegoaldeko Afrikan, eta goi-mailako hezkuntzan generoen arteko parekotasuna lortzea oso arazo handia da. Munduko gainerako tokietan, egoerak hobera egin du lurralde gehienetan eta bereziki nabarmentzeko modukoak dira Arabiar herrialdeak, Ekialdeko Asia eta Pazifikoa, eta Hego zein Mendebaldeko Asia. Zenbait lurraldetan, hala nola Erdialdeko eta Ekialdeko Europan, Kariben, Ipar Amerikan, Pazifikokoan eta Mendebaldeko Europan, goi-mailako ikasketak egiten dituzten emakumezkoen kopurua handiagoa da gizonezkoena baino. Lurralde askotan hori hala da, bai Bigarren Hezkuntzan matrikulatutako neskatoen kopuruak gora azkarrago egin duelako, bai mutikoen emaitza kaskarragoak lortu dituztelako, bai mutiko gutxiagok amaitzen dutelako Bigarren Hezkuntza. Munduko zenbait tokitan, hala nola Kariben eta Latinoamerikan, mutikoen Bigarren Hezkuntzan eskola uzteko joera handiagoa dute, eta horrek kezka handia eragiten du, gizarte-kohesioan ondorio negatiboa baitakar.

Hezkuntza, berdintasunerako bitartekoa

Hezkuntzak, maiz, berdintasunik eza errepikatu egiten du edo larriago bilakatu ere bai, baina berdintasuna bultzatzeko bitartekoa ere izan daiteke. Hezkuntza-prozesu inklusiboak ezinbestekoak dira garapena ekitatiboa izan dadin, eta hori hala da hezkuntza-prozesu guztietan.

Lehen Hezkuntza: maila honetan oso garbi dago berebiziko garrantzia duela esku-hartze goiztiarrak gerora begirako ikaskuntzarako eta bizitzarako. Egin diren ikerketen emaitzek agerian utzi dute esku-hartze goiztiarrak oso garrantzitsuak direla gaztetxoek kasuan, ez bakarrik haien ongizateari begira, jasangarritasunaren alorrean ere ondorioak baitakartza epe luzera, hain zuzen, kapitalaren garapenean, kohesioan eta arrakasta ekonomikoan. Egiaztatu da egoera ahulenean dauden haurrak –besteak beste, egoera hauen ondorioz: pobrezia, hizkuntza-gutxiengo edo gutxiengo etniko bateko kide izatea, generoagatiko bazterketa, urruntasuna, desgaitasuna, indarkeria eta GIBak edo hiesak kutsatuta egotea– direla, alde handiarekin, lehen haurtzaroko garapen-programen onuradun handienak. Baina, hain zuzen, haur horiek dituzte garapenerako programa horietan parte hartzeko aukera gutxiak⁶⁵. Esku-hartze goiztiarrei buruzko azterlanen azterketei esker, badakigu zergatik diren eraginkorrak: haurrak hazten diren neurrian, gero eta alde handiagoa dago haurren batez besteko ibilbidearen eta oztopoak dituzten haurren ibilbidearen artean. Egun, jakin badakigu, halaber, esku-hartze goiztiarrak gastu txikiagoa eta ahalegin txikiagoa eskatzen duela, eta, aldi berean, eraginkorragoa dela. Horrek berebiziko garrantzia du desgaitasun espezifikokoak eta premia bereziak dituzten haurren arazoei –esaterako, autismoa edo Asperger sindromea dutenei– behar bezala erantzuteko⁶⁶.

⁶⁵ Global Child Development Group. 2011. *Child Development Lancet Series: Executive Summary*. www.globalchilddevelopment.org [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁶⁶ Baron-Cohen, S. 2008. *The Facts: Autism and Asperger Syndrome*. Oxford, Erresuma Batua, Oxford University Press.

8. tartekia. Senegal: 'Case des Tout-Petits' programaren esperientzia

Hurrek Senegalen bizi duten osasun-egoera eta soziala kaskarra da, eta oraindik ere kezka handia eragiten digu haien egoerak, nahiz eta ahalegin handiak egin diren haiek babesteko. Egoera halakoa izanik, Senegalgo agintariak haur horien garapenerako lehen haurtzaroan esku-hartzea lehenetsun gisa hartu dute. 2002. urteaz geroztik, haurren lehen urteetako garapenerako eredu berri bat dute, 'Case des Tout-Petits' programa, eta eskolaurreko hezkuntza formal, ez-formal eta informaleko beste egitura batzuekin batera garatzen dute. Programa, nahiz eta zer hobetu baduen, komunitatea eta tokian tokiko kultura tradizionala oinarri dituen oso esperientzia baliagarria da.

Case des Tout-Petits esaten zaionak komunitate-egitura du eta 0-6 urte bitarteko haurrentzat da. Etxebizitza tradizional horrek –*case*– berekin dakar bizitzeko modu bat, izateko zein pentsatzeko modu bat, eta Afrikako balioekiko konpromisoa hartu izanaren sinboloa da. Etxebizitza, bizitzeko, sozializatze eta hezteko leku nagusia den aldetik, haurren hezkuntzarako abiapuntutzat hartu da.

Hasiera batean, *case* horiek landa-eremuan eta egoera ahulean bizi zirenei zerbitzu egokiak eta integratuak ziurtatzeko sortu ziren. Herritarrek berek kudeatzen dituzte, eta Senegalen lehen haurtzarorako dauden zerbitzu guztien %20 da *case* motakoa. Arkitekturari dagokionez, *Case des Tout-Petits* egitura hexagonalekoa da eta bi gela ditu: bata hezkuntza-jardueretarako eta bestea gurasoen hezkuntzarako. Egitura horiek haurtzaroko esku-hartzearen ikuspegi orokorra eta holistikoa hartzen dute beren gain, eta hezkuntzako, osasuneko eta nutrizioko programak eskaintzen dituzte.

Ez da doakoa, baina haietan kuota merkeagoak dira sektore formaleko antzeko beste zentro batzuetan baino, ordaindu beharreko kopurua sinbolikoa baita; horrez gain, komunitate osoaren ondasuna denez, familiek modu sinergikoan jarduteko aukera dute, komunitateak zaindu beharrekoa baita.

Iturria: Turpin Bassama, S., 2010. La case des tout-petits au Sénégal. *Revue Internationale d'éducation de Sèvres* (egokitua). 53-2010 zk., 65-75 or.

Bigarren Hezkuntzan: beste hainbeste esan daiteke Bigarren Hezkuntzari eta goi-mailako hezkuntzari buruz ere. Oinarrizko hezkuntzarako aukera mundu osoan zabaldu izanak Bigarren Hezkuntzan eta goi-mailakoan eskaera-kopuruak gora egitea eragin du, bai eta trebetasun profesionalak garatzeko nahiak ere, batik bat gazteen arteko goranzko langabeziaren eta amaigabeko trebakuntza-prozesuaren ondorioz. Latinoamerikako eta Karibeko herrialde batzuetan, adibidez, oinarrizko hezkuntzaren ondorengo hezkuntzarako aukera-kopuruak gora egin duela hauteman dugu, eta, horrez gain, pobreen aldeko politika publikoei esker, desorekak murriztu egin dira: 'Hezkuntzaren alorrean inbertitzen bada, eta lan-merkatuko erakundeek eta araudiek esku-hartzen badute, desberdintasuna dakarten ereduak alda daitezke. Latinoamerikako herrialdeetan, esate baterako, bi faktore hauek erabakigarriak izan dira: hezkuntzarako aukera zabaltzea eta pobreentzako transferentzia publikoak abian jartzea. Latinoamerika osoan eta Kariben hezkuntzan gehiago inbertitzeak berekin ekarri du Bigarren Hezkuntzan matrikulazio-kopuruak gora egitea eta jende

gehiagok amaitzea ikasketa-maila. Eta hori guztia desberdintasuna murrizteko faktore erabakigarri bilakatzen ari da⁶⁷.

Goi-mailako hezkuntza: azken hamabost urteetan izugarri hazi da goi-mailako hezkuntzarako aukera. Goi-mailako hezkuntzan matrikulazio-kopurua bikoiztu egin da mundu osoan 2000. urteaz geroztik; egun, munduan 200 milioi ikasle daude, eta erdia emakumezkoak dira⁶⁸. Nolanahi ere, diru-sarrerek eta gizarte-bazterketako beste faktore batzuek oraindik ere desoreka ugari eragiten dituzte, nahiz eta azken urteotan politika-alorreko neurri asko abian jarri diren. Diru-sarrera handiak dituzten taldeetako mundu osoko ikasleek oraindik ere abantaila dute, goi-mailako hezkuntzarako aukerari dagokionez. Matrikulazio-kopuru handia duten herrialdeetan, gutxiengoek kasuan kasuko estatuaren batez bestekoa murrizten jarraitzen dute. Horren harira, merezi du adieraztea goi-mailako hezkuntzak batez ere sektore pribatuan egin duela gora eta egiten jarraitzen duela. Gero eta erakunde pribatu gehiago egoteak eta sektore publikoa pribatizatzeak ondorioak eragin ditu bai hezkuntzarako aukeran, bai ekitatean. Goi-mailako hezkuntzako ikasketetako kostu zuzenak eta zeharkakoak bazterketa-kausa nagusiak dira gaur ere. Mailegu-programak oso baliagarriak dira, baina ez daude oso hedatuta⁶⁹.

⁶⁷ NBE DESA. 2013. *Inequality Matters*. Munduko egoera sozialari buruzko txostena (2013). New York, Nazio Batuak.

⁶⁸ UNESCOren Estatistika Institutuaren datuen arabera.

⁶⁹ Altbach, P. G., Reisberg, L. eta Rumbley, L. E. 2009. *Trends in Global Higher Education: Tracking an Academic Revolution*. Paris, UNESCO. (2009ko Goi-mailako Hezkuntzari buruzko UNESCO Konferentziarako prestatutako txostena.)

9. tarteakia. Kulturarteko Unibertsitateak Mexikon

Hainbat kalkuluren arabera, Mexikoko herritarren %10 indigena da, eta eskura ditugun datuen arabera, Mexikon goi-mailako hezkuntzan matrikulatuta dauden ikasleen %1-%3 bitartean soilik da indigena; beraz, gutxiengoa da goi-mailako hezkuntzan.

Egoera horri irtenbidea emateko, Hezkuntza Ministerioaren Kulturarteko Hezkuntza Elebiduneko Koordinazio Nagusiak 2004. urtean Kulturarteko Unibertsitateak sortu zituen, eta eskualde guztietako indigenen erakundeek eta ikasketa-erakundeek hartu zuten parte. Erakunde horiek indigena-kopuru handia bizi den eremuetan daude, eta nahiz eta aniztasuna onartzen duten matrikulatutako ikasleen artean, espezifikoki indigenentzat dira. Kulturarteko hezkuntzaren printzipioa dute oinarri, eta kulturen arteko elkarriketa sustatzea xede; azken batean, herri indigenek betidanik egin izan dituzten eta orain ere egiten dituzten eskaerei erantzuteko modu bat da.

Aniztasuna onartzen dutenez, Kulturarteko Unibertsitateek ez dute hezkuntza-jardueren planteamendu bakarra proposatzen. Jarduera guzti-guztiak oinarriko printzipioekiko errespetua ziurtatzen dute, baina haietako bakoitzak unibertsitatea dagoen lurraldeko premien eta aukeren arabera ikasketa-plana hartzen du bere baitan. Inguruan dauden komunitateekin harremanetan jartzera bultzatzen duten jardueretan parte hartzen dute ikasleek. Horretarako, ikerketa- eta garapen-proiektuak jartzen dituzte abian, beren lurraldearen, herriaren eta kulturaren garapena bultzatzeko eta haiek ere garapenean laguntzeko.

Gaur egun, hamabi kulturarteko unibertsitate daude, eta, guztira, 7.000 ikasle matrikulatuta; ikasle horien guztien ehuneko handi bat emakumezkoa da. Finantziarioa, ikasleen bizi-baldintzak eta erakunde horiek politikarekiko duten mendekotasuna arazo-iturri dira, baina, hala ere, hezkuntzaren alorrean ekitatea lortzen laguntzen dute.

Iturria: Intercultural Universities in Mexico: Progress and difficulties. *Intercultural Education*, Schmelkes, S. 2009 (egokitua). 20. liburukia, 1. zk., 5-17. or. www.tandfonline.com/doi/full/10.1080/14675980802700649

■ Hezkuntza-eredua aldatzen ari da

Hezkuntza-eredua izugarri ari da aldatzen mundu osoan, bai metodoei, bai edukiei, bai ikasteko guneei dagokienez. Aldaketa horrek eskolatzeari eragiteaz gain, goi-mailako hezkuntzari ere eragiten dio. Izan ere, batetik, egun eskaintza handiagoa da, eta bestetik, ezagutza-iturriak eskura ditugu, eta horrek guztiak ikasteko aukera gehiago edukitzea ekarri du, nahiz eta eredu horiek hain egituratuak ez izan eta, aldi berean, berritzaileagoak izan. Nolanahi ere, egoera horrek eragina du ikasgelan, pedagogian, irakasleen autoritatean eta ikaskuntza-prozesuetan.

Hezkuntzan egun gertatzen ari den aldaketa honako beste egoera honekin pareka daiteke: industriaurreko hezkuntza-eredu tradizioaletik XIX. mendean abian jarri zen industria-lantegiko eredurako trantsizioa. Industriaurreko eredu tradizionalan, norberaren eguneroko bizitzako jardueren bidez eta eguneroko lanaren bidez ikasten zuen ia erabat jendeak. Industria-iraultzaren ondorioz sortutako masa-hezkuntzaren

ereduak, ordea, eskolara joate hutsarekin parekatu zuen ia-ia erabat ikaskuntza. Eskolatzere-eredu horrek, gainera, ikaskuntza oraindik ere ikasgelako irakaskuntzarekin lozen jarraitzen du funtsean, nahiz eta jakin badakigun ikaskuntzaren zati handi bat (hezkuntza-ingurune tradizionaletan ere bai) etxean eta beste zenbait tokitan gauzatzen dela. Hala ere, oraindik ikasgelaren eremu fisiko mugatua hartzen da ikaskuntzarako eremu nagusizat, eta, beraz, egun ere hezkuntza-sistema formalen ezaugarri bereizgarria da ikaskuntza-maila guztietan.⁷⁰

Eskolara joateko garaia amaitu al da benetan?

Zenbaiten ustez, eskolatzere-ereduak ez du etorkizunik aro digitalean, Internet bidezko ikaskuntzak, ikaskuntza mugikorak eta beste teknologia digital batzuek aukera ugari eskaintzen dituztelako. Horren harira, komeni da gogora ekartzea eta berriro aztertzea joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetan eskolatu gabeei buruz izandako eztabaidak, eta, batez ere, Paul Goodman⁷¹ eta Ivan Illich⁷² idazleen lanak. Jakina da egungo eskolatzere-eredu industrialaren xedea, besteak beste, duela mende bat baino gehiagoko ekoizpen-premiei aurre egitea zela. Begi-bistan da ikaskuntza-ereduak izugarri aldatu direla azken bi hamarkadetan, bai eta ikaskuntza-iturriak, gure arteko harreman-moduak eta iturri horiekiko interakzio-moduak ere. Jakin badakigu, halaber, hezkuntza-sistema formalak aldatu egin direla, baina azken bi mendeetan izandakoen oso antzekoak direla oraindik ere⁷³. Hala eta guztiz ere, eskolara joateak beti izan duen garrantzia izaten jarraitzen du. Familiaz harago, ikaskuntzaren eta sozializazio instituzionalizatuen lehen urratsa da, eta ikaskuntza sozialaren funtsezko elementu bat: izaten ikastea eta elkarrekin bizitzen ikastea. Ikaskuntzak ez du prozesu individual hutsa izan behar. Bizipen soziala den aldetik, besteekin batera eta elkarrengandik ikastea beharrezkoa da, hizketaldien eta eztabaiden bidez, bai ikaskideekin bai irakasleekin.

Ikaskuntza-eremuen sareak sortzeko bidean

Hala eta guztiz ere, hezkuntza-eredua aldatzeak berekin ekarri du gero eta gehiago onartzea erakunde formaletik kanpoko ikaskuntza garrantzitsua eta,aldi berean, egokia dela. Egoera aldatzen ari da, jada ez da mugatzen hezkuntzako erakunde tradizionaletara, eta, egun, ikaskuntzaren ikuspegia askotarikoa da, forma askotakoa eta konplexua, eta ikaskuntza formala, ez-formala eta informala hainbat hezkuntza-erakunderen bidez gauzatzen da, bai eta hirugarrenen parte-hartzearekin ere⁷⁴.

⁷⁰ Frey, T. 2010. The future of education. *FuturistSpeaker*. www.futuristspeaker.com/2007/03/the-future-of-education [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁷¹ Goodman, P. 1971. *Compulsory Miseducation*. Harmandsworth, Erresuma Batua, Penguin Books.

⁷² Illich, I. 1973. *Deschooling Society*. Harmandsworth, Erresuma Batua, Penguin Books.

⁷³ Davidson, C.N. eta Goldberg, D.T. with Jones, Z.M. 2009. *The Future of Learning Institutions in the Digital Age*. Cambridge, MA, MIT Press (MacArthur Foundation Report on Digital media and Learning).

⁷⁴ Scott, C. 2015. *The Futures of Learning. ERF Working Papers*. Paris, UNESCO.

Ikaskuntzaren planteamendu zabalago bat behar dugu, *continuum* gisakoa; hau da, eskola-erakundeek eta hezkuntza formalekoek lehen haurtzarotik beretik eta bizitza osoan interakzio estuagoa izan behar dute hain formalak ez diren hezkuntzako beste esperientzia batzuekin, Lehen Hezkuntzan hasi eta bizitza osoan zehar. Ikaskuntza gauzatzen den eremua, denbora eta hartu-emanak aldatu egin dira, eta horrek ikaskuntza-eremuen sare bat eratzera bultzatu du; sare horretan, eremu ez-formalak eta informalak elkarrekintzan jardun behar dute hezkuntza formaleko erakundeekin, eta, hala, haien jarduna osatu.

Ikaskuntza-eremu berriak

Ikasgela barruko ikaskuntza orain ezbaian dago, ezagutzarako aukera handiagoa daukagulako eta ikaskuntza-eremu berriak sortu direlako ikasgeletatik, ikastetxeetatik, unibertsitateetatik eta bestelako hezkuntza-erakundeetatik kanpo⁷⁵. Komunikabide sozialak, esaterako, ikasgelako jarduna zabaltzeko eta osatzeko baliagarriak dira, ikasgelako jarduerak laguntzarekin eta beste norbaitekin batera egiteko aukera eskaintzen baitute, besteak beste. Bitarteko mugikorrei esker, irakasleek hezkuntza-alorreko baliabideak eskura dituzte, beste irakasle batzuekin hartu-emanak izan ditzakete, bai eta edukiak sortu ere, ikasgela barruan zein ikasgelatik kanpo⁷⁶. Beste hainbeste gertatzen da goi-mailako hezkuntzan, Online Ikastaro Ireki Masiboei esker (MOOC, ingelesez); mota horretako ikastaroetarako unibertsitateek partzuergoak eratzen dituzte, haietako bakoitzean parte hartzen dute unibertsitateetako irakasleak elkartu daitezen eduki jakin bat irakasteko. Horrenbestez, online bidezko ikastaro horiek beste aukera batzuk eskaintzen dituzte, eta mundu osoko goi-mailako ikasle gehiagok dute ikasteko aukera. Sinergiak sortu direnez hezkuntza formalaren eta trebakuntzarako erakundeen eta horren inguruko beste esperientzia batzuen artean, eta hezkuntzaren egoera aldatzen ari denez, ikaskuntza-eremu guztiak batzeko parada sortu da, bai eta saiakuntzak egiteko eta berrikuntzetarako ere.

Ikaskuntzaren planteamendu zabalago bat behar dugu; *continuum* gisakoa; hau da, eskola-erakundeek eta hezkuntza formalekoek lehen haurtzarotik beretik eta bizitza osoan interakzio estuagoa izan behar dute hain formalak ez diren hezkuntzako beste esperientzia batzuekin.

⁷⁵ Hannon, V., Patton, A. eta Temperley, J. 2011. *Developing an Innovation - Ecosystem for Education*. Indianapolis, CISCO; Taddei, F. 2009. *Training creative and collaborative knowledge-builders: A major challenge for 21st century education*. Hezkuntzaren etorkizunari buzuz ELGEK egindako txostena. Paris, ELGE.

⁷⁶ Grimus, M. eta Ebner, M. 2013. M-Learning in Sub Saharan Africa Context-What is it about. *Proceedings of World Conference on Educational Multimedia, Hypermedia and Telecommunications 2013*, 2028-2033. or. Chesapeake, VA: AACE.

10. tartekia. 'Zuloa horman' esperimentua Indian

Sugata Mitra NIIT enpresako zientzialarien buruak sustatu zuen 'zuloa horman' esperimentua. 1982. urtean jada proposatu zuen ordenagailu bidezko eta gainbegiratzerik gabeko ikaskuntza. Azkenean, 1999. urtean, Mitra jaunaren taldeak abian jarri zuen esperimentua: NIIT enpresaren bulegoak eta Kalkaji (New Delhi) auzo txiroa bereizten zituen horman zulo bat egin zuten; zuloan barrera igarotzen zirenek ordenagailu bat doan erabiltzeko aukera zuten.

Ordenagailuak sekulako arrakasta izan zuen auzotarren artean, batez ere haurren artean; izan ere, inolako esperientziarik eduki gabe, beren gisa ikasi zuten erabiltzen. Zer gertatu zen ikusita, hipotesi hau sortu zen: haur talde orok eskura ditzake oinarrizko kompetentzia informatikoak ustekabez ikasita, baldin eta eduki atseginak eta motibatzaileak dituen zerbitzu informatiko egokia badu, eta laguntza minimoren bat badu (giza laguntza).

Kalkaji auzoko esperimentuaren arrakastak eragin zien pozak bultzatuta, doako erabilerako ordenagailuak jarri zituzten Shivpuri hirian (Madhya Pradesh) eta Madantusi herrian (Uttar Pradesh). Esperimentu horiei 'zuloa horman' esan zitzaion. Shivpurin eta Madantusin lortutako emaitzek berretsi egin zituzten Kalkaji auzoko esperimentukoak. Haurrek kompetentzia informatikoak beren kasa eskuratu zituzten bi tokietan. Ikaskuntza-modu berri horri 'Inbasio Minimoko Hezkuntza' deritzo.

Zuloa horman esperimentua 1999. urtean jarri zen abian ordenagailu bakar batekin (Kalkaji, New Delhi), eta orain ehun baino gehiago daude, haietako batzuk urrutiko eta bakartutako lekuetan, Indian bertan eta handik kanpo, hala nola Bhutanen, Kanbodian eta Afrika Erdiko Errepublikan.

Oharra: NIIT Indiako enpresa bat da eta Gurgaon hirian (India) du egoitza; irabazi-asmoa duten goi-mailako hezkuntzako hainbat erakunde kudeatzen ditu.

Iturria: www.hole-in-the-wall.com (egokitua) [2015eko otsailean egin zen kontsulta]

Ikaskuntza mugikorra

Nabarmena da gaur egun teknologia mugikorrek gero eta gehiago erabiltzen direla ikaskuntzarako. Zenbaiten arabera, ikaskuntza mugikorrek –gailu mugikorrek soilik erabilia edo informazioko eta komunikazioko beste teknologia batzuekin batera erabilia– uneoro eta edonon ikasteko aukera ematen du.⁷⁷ Teknologia horien bilakaera etengabea da, eta gaur egun, besteak beste, telefono mugikorrek eta telefono adimendunak, blok formako ordenagailuak (tabletak), liburu elektronikoak, audio-erreproduzigailu eramangarriak eta eskuko kontsolak ditugu. Teknologia berriek hezkuntza-prozesuen izaera erabat aldatzea eragin dute. Gailu horiek guztiak arinak eta eramangarriak direnez –telefono mugikorrek, blok formako ordenagailuak, terminal eramangarriak...–, ez da zertan beti leku berean eta aurrez zehaztutakoan ikasi, eta, hortaz, aldatu egin da ezagutzaren izaera gizarte modernoetan.⁷⁸

⁷⁷ UNESCO. 2013. *Policy Guidelines for mobile learning*. Paris, UNESCO.

⁷⁸ O'Malley, C., Vavoula, G., Glew, J.P., Taylor, J., Sharples, M. eta Lefrere, P. 2003. *MOBlearn WP4 - Guidelines for Learning/Teaching/Tutoring in a Mobile Environment*. www2.le.ac.uk/Members/gv18/gv-publications [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

Horrenbestez, ikaskuntza informala eta pertsonala da orain, bai eta nonahiko ere.⁷⁹ Teknologia mugikorrek bereziki dira interesgarriak hezitzaileentzat, merkeagoak direlako mahaigaineko ordenagailuak baino, eta Internet bidez baliabide asko lor ditzaketelako.⁸⁰

Ikaskuntza mugikorrek gero eta garrantzi handiagoa du hezkuntzaren hainbat alorretan, oinarriko hezkuntza eta goi-mailakoa sustatu ditu, eta hezkuntza formalaren eta informalaren artean loturak ezarri ditu⁸¹. Ikaskuntza mugikorrek gailuak eramangarriak eta merkeak direnez, jende gehiagok izan dezake eskuragarri oinarriko hezkuntza, eta eraginkorrago ere bilaka dezakete⁸². Teknologia mugikorrek 'giltzarri dira egungo aro digitalak etekin digitalak eragiteko, eta, hala, guztiok hezkuntza ekitatiboa eta kalitate onekoa izateko'⁸³. Teknologia horiek garatzeak bereziki eragin du alfabetatzeko eta hizkuntzak ikasteko aukera anitz edukitzea⁸⁴. Egin diren ikerketek agerian utzi dute zeinen eraginkorra den teknologia mugikorra ikasleen alfabetatze-maila hobetzeko. Bestalde, hezkuntza jende gehiagoren esku jar daitekeenez, etorkizun oparoa du ikaskuntza mugikorrek, bakartuta eta bestelako egoera kaskarretan bizi diren haurren eta gazteen hezkuntza eraldatzeko⁸⁵.

⁷⁹ Traxler, J. 2009. Current State of Mobile Learning. M. Alley (ed.), *Mobile Learning: Transforming the Delivery of Education and Training* Athabasca, AB, Kanada, AU Press. 9-24. or.

⁸⁰ Kukulska-Hulme, A. 2005. Introduction. J. Traxler and A. Kukulska-Hulme (eds), *Mobile learning – A handbook for educators and trainers*, New York, Routledge, 1-6. or.

⁸¹ Traxler, op. cit.

⁸² Kim, P.H. 2009. Action Research Approach on Mobile Learning Design for the Underserved. *Education Technology Research Development*. 57. liburukia, 3. zk., 415-435. or.

⁸³ UIT eta UNESCO. 2014. Mobile learning week: A revolution for inclusive and better education. UNESCO website. www.unesco.org/new/en/media-services/in-focus-articles/mobile-learning-week-a-revolution-for-inclusive-better-education [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁸⁴ Joseph, S., Uther, M. 2006. Mobile language learning with multimedia and multi-modal interfaces. *Proceedings of the fourth IEEE International Workshop on Wireless, Mobile and Ubiquitous Technology in Education (ICHIT '06)*, 124-128. or.

⁸⁵ Saechao, N. 2012. Harnessing Mobile Learning to Advance Global Literacy. *The Asia Foundation*. <http://asiafoundation.org/in-asia/2012/09/05/harnessing-mobile-learning-to-advance-global-literacy/> [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

11. tartekia. Alfabetatze mugikorra neskatoentzat, Pakistanen

Alfabetatze mugikorrerako UNESCOk abian jarri zuen proiektuan telefono mugikorrek erabili zituzten, Pakistango eremu bakartuetan bizi ziren 250 neskato nerabek alfabetatze-ikastaro presentziala egin eta gero, hura osatze eta finkatze aldera. Pakistanen analfabetismoa arazo larria da, eta askoz ere gehiago eragiten die emakumeei eta neskatoei. Gizonezko helduen alfabetatze-tasa %69koa da, eta emakumezko helduena, berriz, %40koa baino ez. Hezkuntzaren alorrean egin diren ikerketek agerian utzi dute irakurtzen eta idazten ikasi eta gero berehala ez bada sistematikoki praktikatzeko, ahaztu egin daitekeela. UNESCOren proiektuaren sortzaileak horren jakitun izanik, ikastaroa amaitu zuten neskatoei urrutetik laguntzeko moduren bat aurkitu nahi zuten.

Ordenagailurik edo Interneterako konexio-linea finko fidagarriak ez zuten herrietan bizi ziren ikasleekin komunikatzeko modu bakarra telefono mugikorra erabiltzea zen. Proiektuko irakasleek SMS mezuek bidali zizkieten ikasleei, idazketa lantzeko edo eskolako liburuko pasarteak berriro irakurri behar zituztela gogora ekartzeko. Horrez gain, galderak propio egiten zizkieten, ikasleek SMS mezuen bidez erantzuteko. Jarduera eta komunikazio guztiek hau zuten xede: gazteek ikastaro presentzialean lortutako alfabetatze-maila finkatzea.

UNESCOk abian jarritako proiektuaren baitako gailu mugikorrek erabili aurretik, alfabetatze-ikastaroa amaitzen zuten neskatoen %28k soilik lortzen zuten 'A' kalifikazioa ondorengo azterketan. Eta gailu mugikorraren bidezko laguntzaren ondoren, berriz, %60k baino gehiagok. Lortutako arrakasta ikusita, proiektua beste eremu batzuetara zabaltzen ari da, eta egun 2.500 ikasle baino gehiagok hartzen dute parte.

Iturria: UNESCO. 2013. *Ikaskuntza mugikorrerako politiken inguruko UNESCOren jarraibideak*. Paris, UNESCO, 15. or.

Online Ikastaro Ireki Masiboak (MOOC) – Aukerak eta mugak

Online Ikastaro Masiboak ere ari dira neurri batean goi-mailako hezkuntzaren ikuspegia aldatzen. Oso interesgarri bihurtu dira gobernuztat, hezkuntza-erakundeentzat eta enpresentzat⁸⁶. Hala ere, nahiz eta MOOCak oso plataforma baliagarriak diren goi-mailako hezkuntzarako aukerak eta hezkuntza-berrikuntzak zabaltzeko, kezka eragin dute desoreka handiagoa delako, eta kezka larriagoak ere eragin ditu, pedagogia ezbaian jarri delako, kalitatea bermatuta ez dagoelako eta ikasketak bukatzen dituzten ikasleen kopurua txikia delako; horrez gain, ikasketen ziurtagirien eta baliokidetzen inguruan ere sortu dira kezka⁸⁷. Bereziki kalitateak eragin du kezka: MOOCek nork bere kasa ikastea eskatzen dute eta ez dituzte Internet bidezko beste ikastaro batzuek duten egitura⁸⁸. Metodo pedagogikoei buruzko kritikak egin dira, zaharkituak geratu direlako; izan ere, MOOC

⁸⁶ Yuan, L. eta Powell, S. 2013. *MOOCs and Open Education: Implications for Higher Education – A White Paper*. Centre for Educational Technology, Interoperability and Standards. <http://publications.cetis.ac.uk/2013/667> [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁸⁷ Daniel, J.S. 2012. Making Sense of MOOCs: Musings in a Maze of Myth, Paradox and Possibility. *Journal of Interactive Media in Education*. 3. liburukia, 18. zk. <http://jime.open.ac.uk/article/view/259> [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁸⁸ Butcher, N. eta Hoosen, S. 2014. *A Guide to Quality in Post-Traditional Online Higher Education*. Dallas, TX, Academic Partnerships. www.icde.org/filestore/News/2014_March-April/Guide2.pdf [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

gehienek oraindik ere hau dute oinarri: 'informazioa transmititzea, ordenagailuaren bidez ezarritako jarduerak eginaraztea eta ikasle guztiei ebaluazio bera egitea'⁸⁹. Ez dituzte beren baitan hartzen pertsonen arteko interakzioak eta benetako elkarrizketak, eta beraz, ezin zaie aurre egin ikasle bakoitzak dituen premiei eta beharrei⁹⁰. Gainera, ikastaro horietan ez dituzte beti ebaluazioak egiten, edo ez dira egokiak izaten, eta beste hainbeste gertatzen da ziurtagiriek. Zenbait erakunde hasi da sinesgarritasuna ematen ikastaro horiei, eta ziurtagiri-mota berriak ere sortu dira, txartel modukoak, baina, hala ere, haien bidez lortutako hezkuntza-maila kaskartzat hartzeaz gain, ikaskuntza-kalitatearen adierazlea ez da nahikotzat hartzen⁹¹. Kritika horiek aproposagoak dira Iparraldeko unibertsitateentzat, Hegoaldekoetan MOOCek mota askotariko ikasleen premiei erantzun baitieziaiekete.

12. tartekia. Goi-mailako hezkuntzako modu postradizionalak

Goi-mailako hezkuntzako erakundeei buruz dugun irudia hau izan ohi da: pertsonak bizitzan behin joaten diren lekua, normalean 18 urtetik 22 urtera bitartean, ondoz ondoko lau urteren joanean ikasketetan aurrera egiteko. Ikasgela eta irakasleak dira informazio-iturri nagusiak, eta unibertsitatea ikaskuntza-zentroa.

Baina irudi hori oso azkar aldatzen ari da. Lanerako behar diren trebetasunak, hala nola komunikazioa eta pentsamendu kritikoa, errazago eskuratzen dira ikaskuntza-esperientzia informalen bidez, erakundeetan baino. [] Bestalde, urrutiko hezkuntzako eta online bidezko ikaskuntzako metodo berriek ikaslearen ohiturak aldatzea eragin dute, bai eta campusean ere.

Iturria: Butcher, N. eta Hoosen, S. 2014. *A Guide to Quality in Post-Traditional Online Higher Education*. Dallas, TX, Academic Partnerships.

Unibertsitate-eredu tradizionalaren arazoak

Goi-mailako hezkuntzak egun duen arazo nagusietako bat da nola aurre egin munduan egiten diren titulu profesionalen eskari masiboari, eta, aldi berean, nola eutsi unibertsitateak berezko duen funtzioari; hau da, *ikerketarako* eta *ikerketaren bidez* hezi. Ezinbestekoa da hezkuntza-alorreko erakundeak eta gizartea lotzen dituen kontratu soziala berraztertzea, munduko egungo egoera gero eta lehiakorragoa baita. Horrek berekin dakar egun daukagun unibertsitate-ereduaren etorkizunari buruz hausnartzea. Ukaezina da hezkuntzaren egoera aldatzen ari dela, besteak beste, egiturak eta erakundeak dibertsifikatu egin direlako, goi-mailako

Ezinbestekoa da hezkuntza-alorreko erakundeak eta gizartea lotzen dituen kontratu soziala berraztertzea, munduko egungo egoera gero eta lehiakorragoa baita.

⁸⁹ Bates, T. 2012. *What's right and what's wrong about Coursera-style MOOCs?* www.tonybates.ca/2012/08/05/whats-right-and-whats-wrong-about-coursera-style-moocs [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

⁹⁰ Daniel, op. cit.

⁹¹ Bates, op. cit.

hezkuntza nazioarteko bihurtu delako, jada aipatu ditugun MOOCak sortu direlako, ikaskuntzaren kalitatea zein egokitasuna ebaluatzeko kultura sortzen ari delako, eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko erakundeak ugaritzen ari direlako. Aldaketa-egoera horrek ondorio garrantzitsuak eragin ditu finantzaketaren eta giza baliabideen alorrean, ezbaian jarri ditu hezkuntzaren orain arteko gobernantza-ereduak eta irakasteko autonomiaren eta askatasunaren printzipioekiko kezka sortu da. Eta horiek dira, hain zuzen, unibertsitate-eredu tradizionalaren berezko oinarriak.

Unibertsitate-rankingak: kontuz gehiegikeriekin⁹²

Unibertsitate-rankingak gero eta ugariagoak izateak adierazten du goi-mailako hezkuntza nazioarteko bihurtzeko joera dagoela eta unibertsitate-erakundeen arteko kalitatea gero eta gehiago alderatzen dela. Unibertsitateak sailkatzeko joera izugarria da, eta horri buruzko kritika asko egin dituzte, irakasleek, ikasleek, hezkuntza-alorreko zerbitzuak eskaintzen dituztenek, politikak formulatzen dituztenek eta garapenerako erakundeek. Maila edo mota asko egoteak badu, hala ere, alderdi positiborik; izan ere, horrek esan nahi du goi-mailako hezkuntzako erakundeen 'kalitateari' buruzko gero eta informazio gehiago dagoela, ondo aurkeztua eta ulertzeko moduan adierazia. Goi-mailako hezkuntza masifikatzen ari denez eta eskaintza gero eta anitzagoa denez, informazio-bolumen handia dago, eta horrek unibertsitatei buruzko erabaki informatuak hartu beharra eskatzen du. Askoren ustez, rankingak edukitzeak, halaber, goi-mailako hezkuntzako erakundeek informazio gardena eta jardueren kontu ematea sustatu du. Baina ezbaian jartzen dutenen ustez, ordea, arriskua dago unibertsitateek irakaskuntza eta gizarte-erantzukizuna alde batera uzteko eta ikerketa zientifikora bideratzeko ahalegina, hori baita, hain zuzen, unibertsitate-rankinga erabakitzeko gehien balioesten den adierazlea. Horren harira, munduko unibertsitate guztiei irizpide berberak aplikatzeak eta 200 unibertsitate onenen zerrendan egon nahi izateak ere kezka eragin du; izan ere, horrek goi-mailako hezkuntzako erakundeen homogeneizazioa eragin du, eta, beraz, kasuan kasuko egoerari erantzuteko eta egokitzeko ahalmena eragotzi. 200 erakunde horien zerrendan egoteak ospetsuagoak izatea eragiten duela esateak, halaber, ekitatean ondorioak dakartza.

⁹² Marope, P.T.M., Wells, P.J. eta Hazelkorn, E. 2013. *Rankings and Accountability in Higher Education: Uses and Misuses*. Paris, UNESCO (laburtua eta egokitua).

■ Hezitzaileen egitekoa, ezagutzaren gizartean

Teknologia digitalek ez dituzte irakasleak ordeztzen⁹³

Eskuragarri dagoen informazio- eta ezagutza-bolumena izugarria da, eta, beraz, hori guztia zabaltzeko, hedatzeko eta barneratzeko planteamendu kualitatibo bat egin behar da, bai maila indibidualean bai maila kolektiboan. Kontuan hartuta zenbateko ahalmena duten informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, irakasleak gidari izan behar du, ezagutzaren labirinto gero eta korapilatsuagoan ikasleei garatzen eta aurrera egiten laguntzeko, Lehen Hezkuntzan eta ikaskuntzaren ibilbide osoan zehar. Horren harira, zenbaitek hasiera-hasieratik esan zuten irakasle-lanbidea pixkanaka desagertu egingo zela. Haien ustez, teknologia digital berriek irakasleak ordeztuko zituzten denboraren joanean, ezagutza hedatzea erraztuko zutelako, eskuragarriagoa egongo zelako, eta, batez ere, bitartekoetan zein baliabideetan aurreztuko zelako. Onartu behar dugu, ordea, iragarpen horiek jada ez direla sinesgarriak: herrialde guztietako hezkuntza-politiketan irakasleen jardun eraginkorrak lehentasuna izaten jarraitu behar du ezinbestez.

Irakasleak gidari izan behar du, ezagutzaren labirinto gero eta korapilatsuagoan ikasleei laguntzeko, Lehen Hezkuntzan eta ikaskuntzaren ibilbide osoan zehar.

Irakasleen profesionaltasuna zaindu behar da

Ikasleak pertsona gisa errealizatzen eta beste garapen-eredu bat lortzen lagunduko badu hezkuntzak, irakasleek eta gainerako hezitzaile guztiek eragile nagusiak izaten jarraitu behar dute. Egun gailentzen den diskurtsoak behin eta berriz dio irakasleak ezinbestekoak direla hezkuntzan; hala eta guztiz ere, joera batzuek irakasleen desprofesionalizazio-prozesua uzten dute agerian, bai planetaren Iparraldean bai Hegoaldean. Joera horiek dira, besteak beste: gaizki prestatutako irakasle-oldea, irakasle faltari aurre egiteko neurri batean, baina finantzaketa-arrazoiengatik ere bai; aldi baterako kontratatutako irakasleen segurtasunik eza, batik bat goi-mailako hezkuntzan aritzeko kontratatzen direnena, gero eta gehiago jotzen baita irakasle laguntzaileengana edo ondokoengana irakaskuntza-zereginetarako; irakasleen autonomia-galera; irakaskuntza-kalitatea gutxitzea, irakasleei egiten zaizkien azterketa eta ebaluazio espezifikoak estandarizatu egin direlako; irakaskuntzako erakundeetan kudeaketa pribatuko teknikak baliatzea; eta, herrialde askotan, irakasleek jasotzen duten soldataren eta beste sektore batzuetako profesionalak jasotzen dituztenen arteko alde nabarmenak.

⁹³ Haddad, G. 2012. Teaching: A profession with a future. *Worlds of Education*. 159. zk. (laburtua eta egokitua).

13. tartekia. Irakasleak oso ondo prestatuta eta oso aintzakotzat hartuta daude Finlandian

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) bultzatutako Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programaren (PISA) arabera, Finlandian lortzen dituzte 15 urteko gazteek emaitza onenak irakurmenean, matematikan eta zientzian. Faktore askorengatik izan daiteke gazte horiek emaitza onenak ateratzea, baina, neurri handi batean, irakasleak oso ondo prestatuta daudelako, oso profesionalak direlako eta haiekiko begirune handia dutelako da. Irakasle-ikasketek prestigio handia dute Finlandian, eta gizarteak konfiantza osoa du hezkuntzan eta irakasleengan. Irakasleak bikain prestatuta daude (gutxienez irakaskuntzako master bat behar dute, lanaldi osoko dedikazioz lan egin ahal izateko), irakasleak hautatzeko prozesua oso gogorra da, eta pedagogia-arlorako onenak soilik aukeratzen dira. Irakasleek kompetentzia handia dute edukiei eta pedagogiari dagokionez, eta jarduteko autonomia duten eta gogoeta asko egiten duten adituak dira.

Iturria: Niemi, H., Toom, A. eta Kallioniemi A. (eds). 2012. *Miracle of Education: The Principles and Practices of Teaching and Learning in Finnish Schools*. Rotterdam, Sense Publishers.

Hortaz, pedagogiaren edukia eta helburua berraztertu behar ditugu, bai eta pedagogia-alarreko prestakuntza ere. Irakasleak ondo prestatu behar ditugu, ikasleek errazago ikas dezaten, aniztasuna uler dezaten, inklusiboak izan daitezen, eta bizikidetzarako kompetentziak eta ingurumena babesteko zein hobetzeko kompetentziak eskura ditzaten. Errespetuzko ingurunea eta segurua sustatu behar dute, autoestimua eta

autonomia bultzatu eta askotariko estrategia pedagogikoak eta didaktikoak baliatu. Irakasleek hartu-eman eraginkorrak izan behar dituzte gurasoekin eta komunitateekin. Beste irakasle batzuekin elkarlanean aritu behar dute, ikastetxe osoaren ongia lortzeko. Ikasleak eta haien gurasoak behar bezala ezagutu beharko lituzkete, eta irakaskuntzaren eta haren testuinguru espezifikoaren arteko lotura ezartzeko gai izan. Kasuan kasu eduki egokiak aukeratzeko eta baliatzeko ahalmena eduki beharko lukete, ikasleek kompetentziak behar bezala eskura ditzaten. Teknologia eta beste material batzuk erabili beharko lituzkete, ikaskuntzarako tresnak diren aldetik. Komeni da irakasleei adore ematea, ikasten eta profesionalki hobera egiten jarrai dezaten.

Bizitzako eta laneko baldintza erakargarriak, motibatzaileak eta egonkorak ere eskaini behar zaizkie, eta oso kontuan hartu soldatak eta lanbidean gora egiteko aukerak. Hori guztia ezinbestekoa da interesari utsiko badiote eta irakaskuntzaren kalitateak –munduko lanbide garrantzitsuentzat hartzen den lanbidearenak– behera egingo ez badu. Etengabe berrantolatu eta berraztertu behar dira bai irakasleen egitekoa bai ikasketak, kontuan hartuta aldatzen ari den mundu globalizatuko hezkuntza-premiak eta -erronka berriak. Helburua hori izanik, pedagogia-

Bizitzako eta laneko baldintza erakargarriak, motibatzaileak eta egonkorak eskaini behar zaizkie, eta oso kontuan hartu soldatak eta lanbidean gora egiteko aukerak. Ezinbestekoa baita interesari utsiko badiote eta lanbide garrantzitsuentzat hartzen den irakaskuntzaren kalitateak behera egingo ez badu.

alorreko prestakuntzak –oinarrizkoenak zein espezializatuenak– behar bezala hartu behar du bere baitan diziplinez haragoko espirituaren oinarria bera; hau da, diziplinarteko planteamendu bat, irakasleak gai izan daitezen sormenaren eta arrazoimenaren bidea hartzeko, eta, hala, guztion onerako aurrerapenaren eta garapenaren aldeko humanismoa lortzeko, natura- eta kultura-ondarearekiko errespetuzkoa.

Irakaskuntzaren arazoak

Hezkuntzarako aukera masiboak eta finantzaketa-arazoek eragiten dituzten tentsioen baitan daude irakaskuntzaren lan-egoera eta -baldintzak mundu osoan. Irakaskuntzak herrialde guztietan egin behar die aurre askotariko erronkei, eta irakasleek, berriz, arazo larriak dituzte toki guztietan. Hezkuntzarako aukera handia denez, unibertsitateko irakasle asko behar dira, baina ez dago irakasle trebatu nahikoa, eskaerari garaiz erantzuteko. Litekeena da munduan dauden unibertsitate-mailako irakasleen erdiak lizentziatura soilik edukitzea. Munduko irakasle guztien erdia erretiroa hartzean dago. Oso doktore berri gutxi dago, erretiroa hartuko dutenak ordezteko adina ez; izan ere, doktoregai askok etsi egiten dute edo nahiago dute unibertsitatetik kanpo lan egin, soldata txikia jasotzen dutelako lanaren ordainetan. Latinoamerikako herrialde askotan, goi-mailako hezkuntzako irakasleen %80k lanaldi partzialeko kontratua du. Fenomeno horrek irakaskuntzaren kalitatea kaskartzea dakar, unibertsitateko irakasleek ezin baitute buru-belarri jardun, eta are gutxiago ikerketaren alorrean. Horrez gain, azken urteotan tituludunen merkatu berria sortu da, tituludunak mundu osoan baitabilta. Nahiz eta soldata hobeak lortu ahal izateko ibiltzen diren batetik bestera, badira beste faktore batzuk ere, hala nola lan-baldintza hobeak eduki ahal izatea –batik bat, ikerketarako azpiegiturak–, eta lanbidean gora egiteko aukera gehiago eta lanerako askatasuna izatea. ‘Profesionalen ihesa’ eta ‘profesionalen zirkulazioa’, esaten zaien fenomenoak –zehaztasun handiagoz aztertuko dira aurrerago– dira erronka nagusiak, politikak formulatzeari eta goi-mailako hezkuntzaren eskuragarritasunari dagokienez.

Sektore formalekoak ez diren hezitzaileak

Gogoan izan behar da, azkenik, zeinen funtzio garrantzitsua duten bizialdi osoko irakaskuntzan eta hezkuntza formaletik kanpo aritzen diren hezitzaileek. Hori hala delako seinale, hain zuzen, ingurune ez-formaletan eta informaletan lan egiten duten hezitzaileentzat mundu osoan sortu diren trebakuntza-programa oldea da. Hezitzaile horiei esker ikas daiteke, besteak beste, zentro komunitarioen bidez, erlijio-erakundeen bidez, prestakuntza tekniko eta profesionaleko zentroen bidez, alfabetatze-programen bidez, boluntarioen elkarteen bidez, gazte-talde bidez, eta kirol- zein arte-programen bidez. Begi-bistan dago zeinen garrantzitsuak diren ikasteko aukera horiek guztiak, gizabanakoen eta komunitateen garapenerako eta ongizaterako.

Gogoan izan behar da zeinen funtzio garrantzitsua duten bizialdi osoko irakaskuntzan eta hezkuntza formaletik kanpo aritzen diren hezitzaileek.

3. Hezkuntza-alorreko politiken formulazioa, egungo mundu konplexuan



3. Hezkuntza-alorreko politiken formulazioa, egungo mundu konplexuan

Globalizazioak gero eta eragin handiagoa du estatu-nazioen autonomian, eta zaildu egiten du politikak formulatzea. Beste modu batera esanda, jarduera ekonomikoa gero eta globalizatuago dago, baina erabaki politikoak estatu-mailan hartzen dira, eta aplikatu ere bai. Horrenbestez, politikak formulatzen dituzten estatu-tako agintariei nekeza egiten zaie globalizazioak herrialdearen garapenean eragiten dituen ondorioei aurre egitea eta haiak erregulatzea. Egoera horren adibide dira, besteak beste, 2008ko munduko krisi ekonomikoaren ondorioak edo gazteen langabezia-tasa handiak herrialde guztietan, Iparraldekoetan barne. Horrez gain, ikasleen eta langileen nazioarteko mugikortasunak, profesionalen zirkulazio-eredu berriek eta herritarren parte-hartze modu berriek eragin handia dute estatu-tako politikak formulatzean. Atal honetan, hezkuntza-alorreko politikak formulatzerakoan horrek guztiak nola eragiten duen aztertuko dugu, zenbait adibideren bidez.

■ Hezkuntzaren eta enpleguaren artean gero eta desoreka handiagoa

Enplegu-indize txikia eta prekaritate handia

Ekonomia gero eta globalizatuago egoteak berekin ekarri du gazteen langabeziak eta enplegu prekarioak gora egitea, eta hori hala da planetako Iparraldeko herrialdeetan zein Hegoaldekoetan. Egoera horrek Europako zenbait herrialde ere kolpatu ditu oraindik orain, eta gazteen belaunaldi berriak beste arazo bat du: lanean hasteko garaia atzeratu egin zaie edo ez dute lanik. Komeni da gogora ekartzea, nolana ere, oso zaila dela hezkuntzaren eta prestakuntzaren bidez eskuratutako kompetentziak eta lan-

merkatuaren eskaria orekatzea, eta hori hala izan dela betidanik; hau da, ez da oraingo kontua.⁹⁴ Komeni da adieraztea, halaber, gazteen langabeziak agerian uzten duela deskonexio handia dagoela hezkuntzaren eta enpleguaren artean, baina horrek baduela zerikusia, baita ere, erabaki eta erantzukizun politikoekin. Nolanahi ere, lanpostuen alorreko egungo joerek ezbaian jartzen dute garai bateko hezkuntza formalaren eta enpleguaren arteko lotura; horren haritik, garapenerako nazioarteko diskurtsoak eta jardunak aspaldidanik jotzen dute egokitzat giza kapitalean inbertitzea.

Gazteak gero eta frustratuago

Gero eta enplegu egoki gutxiago egoteak asko frustratu ditu mundu osoko familiak eta gazte tituludunak. Gazteek hezkuntza-maila handia dute eta, oro har, langileek ere bai; beraz, enplegu-lehia handia da. Herrialde askotan, batik bat Hegoaldekoetan, gazte-kopuru handia dago eta lan-merkatua mugatua da; hortaz, gero eta beranduago sartzen dira lan-merkatuan, nahiz eta gazte horiek diren hezkuntzarako aukera zabaldu izanaren lehen belaunaldikoak. Horrenbestez, hezkuntzaren bidez sustatutako ilusioak eta enplegu-eskasiaren errealitatea ez datoz bat, eta bien arteko aldea gero eta handiagoa da. Hezkuntza formalaren ibilbideari ekin dioten gazte horietako askok ez dituzte jasoko jada hezkuntzaren bidez eskuratutako konpetentziei esker lortzen diren ordainak, hainbeste desiratutakoak: enplegu bat eta etorkizun hobea izateko aukera. Gizarte-mailan gora egin ahal izateko eta ongizate handiagoa lortu ahal izateko hezkuntzak zeinen eraginkortasun txikia duen ikusita, desilusioa gero eta handiagoa da zenbait gizarte-segmentutan eta herrialde batzuetan. Hezkuntzarako aukera masiboak gizarte-mailan gora egiteko itzaropena sustatu zuen, baina itzaropen hori zapuzten ari da 1990. urteaz geroztik, bai Hegoaldeko herrialde askotan bai Iparraldekoetan. Gazteak ezbaian jartzen ari dira betidanik 'ohore handikoak' izan diren hezkuntza ibilbideetan egindako 'inbertsioaren onura'.⁹⁵

Gizarte-mailan gora egiteko eta ongizate handiagoa lortzeko hezkuntzak zeinen eraginkortasun gutxi duen ikusita, desilusioa handia da zenbait gizarte-segmentutan eta herrialdetan.

Hezkuntzatik eta prestakuntzatik lanerako trantsizioa oso garrantzitsua da gazteentzat. Epe hori luzatu izana arrazoi askorengatik izan daiteke, baina guztiek ez dute zerikusia konpetentzien profilararen eta lan-merkatuaren premien arteko desorekarekin. Trantsizio-epe hori 'ez-emankortzat' har daiteke alderdi ekonomikoari dagokionez, baina, bestalde, gazte askorentzat aukera paregabea da bolada batez ikasten jarraitzeko beste modu batera, hala nola gizartearekiko konpromisoa hartuz, boluntario-lanak eginez, bidaiatuz, aisialdiaren bidez, arteen eta beste jarduera batzuen bidez. Bestalde, ikasketak dituzten gazteek, nahiz eta lanik ez eduki, herritarrekiko, gizartearekiko eta politikarekiko konpromisoa hartu eta lan handia egin dezakete.

⁹⁴ Ikusi, esaterako: Blaug, M. 1965. The Rate of Return on Investment in Education in Great Britain. *The Manchester School*. 33. liburukia.

⁹⁵ Facer, K. 2011. *Learning Futures: Education, Technology and Social Challenges*. New York, Routledge.

Hezkuntzaren eta oso azkar aldatzen den lan-alorraren arteko lotura aztertu beharra

Konponbide bat baino gehiago proposatu dira, hezkuntza zein ikaskuntza formalaren eta lan-alorraren arteko deskonexioari aurre egiteko; besteak beste, birziklatze profesionala, bigarren aukerarako programak eta industriaren alorrekin hitzarmen gehiago adostea. Bestalde, hauteman dugu gero eta jende gehiago dagoela konpetentziak lanbideen arabera egokitzearen alde. Begi-bistan da teknologia eta zientzia etengabe garatzen ari direla, eta horrek gero eta nekezago egiten duela zer lanbide sortuko diren eta lanbide horietarako zer konpetentzia beharko diren aurreikustea. Lan-alorra etengabe eta oso azkar aldatzen dela ikusita, ahalegin handiagoa egiten da orain lanbidera bideratutako hezkuntza eta trebetasun dibertsifikatuagoa eta malguagoa lortzeko. Horrenbestez, neurriak hartu behar dira, gizabanakoak malguagoak izan daitezen, eta, hala, haiek konpetentziak laneko zereginetara eraginkortasunez egokitzeko eta aplikatzeko.⁹⁶ Konpetentzia horiek zerikusia dute 'konpetentzia transferigarriak', 'XXI. mendeko konpetentziak' eta 'konpetentzia ez-kognitiboak' esaten zaien konpetentziekin, eta zehatz-mehatz hauek dira: komunikazioa, alfabetatze-digitala, talde-lana eta enpresa-sena.

⁹⁶ UNESCO. 2011. *Education and Skills for Inclusive and Sustainable Development Beyond 2015*. Thematic Think Piece for the UN Task Team on the Post-2015 International Development Agenda. Paris, UNESCO.

14. tartekia. Gazteentzako enplegu-aukera gehiago sortzea

Gazteen arteko langabezia arazo konplexua dela kontuan hartuta, begi-bistan da erabakitzen diren konponbideak erabakitzen direla motz eta eskas geratuko direla, baldin eta interesdun nagusiak ez badira batzen estrategia eta konpromiso zabal zein argien inguruan. Egiatzatuta dago talde-ikuspegi hori zenbait industriatan eta herrialdetan baliagarria dela emaitza eta ondorio hobek lortzeko.

Hegoafrikan, 18 eta 28 urte bitarteko herritarren artean, hirutik bik ez du lanik. Egoera halakoa izanik, Harambee Youth Employment Accelerator programaren bidez, diru-sarrera txikia dutenen artean hautatutako gazteen talde bati lehendabiziko enplegua sektore pribatuan aurkitzen laguntzen zaie. Ekimen hori, nahiz eta eskala txikian egin, sektore pribatuak parte hartzeko eredu ona da. Txikizkako salmentako, gizarte-laguntzako eta turismoko enpresa handienetako batzuk elkartu dira eta enplegua eskaintzeko konpromisoa hartu dute. Garapenerako Hegoafrikako Bankuak enplegua sustatzeko funtsa sortu du, eta baliabideak ematen ditu Harambee proiektuarentzat –inbertitzaile pribatuek eta enplegu-emalleek erdibana ordaintzen dituzte–, programa gehiago jar daitezzen abian.

Costa Rican, teknologiarekin zerikusia duten enpresen elkarte batek (CAMTIC) *Specialist* programa jarri du abian, egoera prekarioan dauden gazteei Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) beharrezkoak diren konpetentziak eskuratzen laguntzeko, eta, hala, sektorean hutsik dauden milaka lanpostu betetzeko. Horretarako, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan jarduten duten enpresek –Cisco eta Microsoft, besteak beste– hezkuntzaren alorreko erakundeei informazioa helarazten diete, eta horren arabera titulu jakin bat lortzeko prestakuntza-ikastaroak diseinatzeko dituzte; ikastaro horietan, jendarterako trebetasunak, hizkuntzak eta prestakuntza teknikoa lantzen dira, eta Costa Ricako gutxieneko soldata baino 3-5 aldiz handiagoko soldata duten lanpostuak lortzen dituzte.

Iturria: Banerji, A., López, V., McAuliffe, J., Rosen, A. eta Salazar-Xirinachs, J.M. egileekin batera, Ahluwalia, P., Habib, M., eta Milberg, T. 2014. An 'E.Y.E.' to the Future: Enhancing Youth Employment. *Education and Skills 2.0: New Targets and Innovative Approaches*. Geneva, Munduko Ekonomia Foroa.

Horrenbestez, oinarrizko galdera batzuk sortu dira: Zer egin daiteke hezkuntzaren eta enpleguaren arteko lotura hobea edo eraginkorragoa izan dadin? Gaur egungo egoera halakoa izanik, nola lor daiteke gizarteak balio handiagoa ematea hezkuntzari eta prestakuntzari? Nola hobetu daiteke hezkuntza, batik batik Bigarren Hezkuntza, bat etor dadin ikasle gazteen bizitzarekin eta lana aurkitzeko duten itxaropenarekin? Nahikoak al dira egun ditugun neurriak? Azken batean, egoerari irtenbidea emateko enplegua sortu behar da, eta, horretarako, estatuak erantzukizun handiagoa hartu behar du enplegu-politika sendoak diseinatzeko. Hezkuntzak bakar-bakarrik ezin du langabeziaren arazoa konpondu. Egungo garapen-eredua berraztertu behar da, eta, bide batez, hezkuntzaren eta lan-alorraren arteko lotura ere berriro aztertu. Azkenik, onartu behar da oso garrantzitsua dela ikaskuntza eta haren ondorengo bigarren ikaskuntza ez mugatzea hezkuntzako eta prestakuntzako sistema formaletara. Kasuan kasu beharrezkoak diren konpetentziak modu askotara eskura daitezke; esaterako, modu

Hezkuntzak bakar-bakarrik ezin du langabeziaren arazoa konpondu.

hauen bidez: autoikaskuntza, elkarrengatiko ikaskuntza, lana oinarri duen ikaskuntza (ikasitakoa baliatzeko epea eta praktikaldiak), laneko prestakuntza, eta hezkuntza eta prestakuntza formaletik haragoko esperientziak. Horrenbestez, hezkuntzarako eta konpetentziak eskuratzeko beste planteamendu batzuk asmatu behar ditugu, beren baitan hartuko dutenak ikaskuntza-aukera guztien ahalmen osoa.

■ Ikaskuntza onartu eta baliozkotu beharra, giza mugikortasuna ezaugarri duen munduan

Giza mugikortasunaren ereduak aldatzea

Giza mugikortasuna, bai munduan barrena bai herrialde bakoitzaren barruan, inoiz izan den handiena da.⁹⁷ Zenbait azterketaren arabera, munduko biztanle guztiak kontuan hartuta, zazpitik bat –hau da, mila milioi pertsona inguru– ‘MUGITZEN’ ari da egun.⁹⁸ Iparra-Hegoa migrazio-fluxua oraindik ere gertatzen da, eta Hegoa-Hegoa migrazio-fluxua, berriz, gero eta handiagoa izateaz gain, azkarrago ari da hazten, eta litekeena da etorkizunean azkarrago haztea.⁹⁹ Gainera, aldian-aldian, ‘hazkunde ekonomikoko zonaldeak aldatu egiten dira’¹⁰⁰, eta horrek ondorioak eragiten dituenez enpleguan eta ongizatean, Iparraldean bizi den jende asko Hegoaldera bueltatzen hasi da.¹⁰¹ Giza mugikortasunaren aldaketa horiek garrantzi handiko ondorioak eragiten dituzte hezkuntzan eta enpleguan.

Exodoaren garaitik profesionalak hartzeko garaira

Mundu osoko demografia-joerak zein diren ikusita, munduko biztanleria aktiboaren gehiengoa Hegoaldean egongo da. Egin diren zenbait kalkuluren arabera, 2030. urtean, Indiak izango du mundu osoko biztanleria aktiboaren edo ‘munduko talentuen multzoaren’ %25. Profesionalen zirkulaziorako joera horiek kezka eragiten dute, hezkuntzaren finantzaketa publikoari eta konpetentziak eskuratzeari dagokienez. Izan ere, biztanleria aktiboa osatzen duten pertsona gehienek, emigratzen dutenean, atzerrian bizitzeko eta lan egiteko emigratzen dute. 2012. urtean egindako kalkuluen arabera, Indian ‘giza kapitalaren ihes’ horren kostua 2.000 milioi dolar estatubatuarrekoa izan zen¹⁰². Merezi du adieraztea, nolahi ere, profesionalen exodoak eragin dezakeela, baita ere, profesionalen kopuruak gora egitea; hau da, migratzaileek sareak eratzen

⁹⁷ Rio+20, UNCSO. 2012. Migration and sustainable development. *Rio 2012 Issues Briefs*. 15. zk., 1. or.

⁹⁸ Migrazioen Nazioarteko Erakundea (IOM, ingelesez). 2011. *World Migration Report 2011. Communicating effectively about migration*. Geneva, Migrazioen Nazioarteko Erakundea.

⁹⁹ NBE DESA. 2011. *Urban Population, Development and the Environment*. New York, Nazio Batuak.

¹⁰⁰ ELGE. 2011. *Perspectives on Global Development 2012: Social Cohesion in a Shifting World*. Paris, ELGE.

¹⁰¹ IOM. 2013. Migrant, Well-Being and Development. *World Migration Report 2013*. Geneva, IOM; ELGE. 2013. *International Migration Outlook 2013*. Paris. ELGE.

¹⁰² Winthrop, R. eta Bulloch, G. 2012. *The Talent Paradox: Funding education as a global public good*. Brookings Institution. www.brookings.edu/blogs/up-front/posts/2012/11/06-funding-education-winthrop [2015eko otsailan egin zen kontsulta].

dituzte diasporan, eta kapital-baliabideen eta teknologiaren fluxu gisa jarduten dute, bizitokitza duen herrialdearen eta jatorrizko herrialdearen artean¹⁰³.

15. tartekia. Bangalore eta Hyderabad: migrazioa alderantzikatzen ari da

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) sektorean, Bangalore eta Hyderabad hartzen dira 'munduko hiri nagusitzat', munduko nitxo bilakatu baitira. Joan den mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan, 'garun ihes' deritzon fenomenoaren harira, Indiak ondo prestatutako langileak galduko zituelako kezka zabaldu zen, Mendebaldera joaten baitziren, batik bat Ameriketako Estatu Batuetara. Duela gutxi egiaztatu da, ordea, exodo horren noranzkoa aldatzen ari dela, AEBn prestatutako indiar profesional asko beren jatorrizko herrialdeetara bueltatzen ari direlako, hazkuntza- eta enplegu-aukerez baliatzera. Langile espezializatuek eta estatutik kanpo lan egiten dutenek ondorioak eragin dituzte Bangalore eta Hyderabad hirietako ekonomiaren hainbat sektoretan, azpiegitura sozialean eta materialean, bai eta Indiaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko hartu-emanak sortzen eta finkatzen ere.

Iturria: Chacko, E., 2007. From brain drain to brain gain: reverse migration to Bangalore and Hyderabad, India's globalizing high tech cities. *Geo Journal*, 68 (2), 131-140. or.

Langileen eta ikasleen mugikortasun handiagoa

Langile kualifikatuek nazioartean barrena egin ohi dituzten joan-etorriez gain, gero eta nabarmenagoa da enplegu batetik besterako mugikortasuna. Gorantz doan lanbide-eta herrialde-mugikortasun horri aurre egiteko, Kalifikazioen Katalogo Nazionala egin dute mundu osoko 140 herrialde inguruk. Eskualdeetan ere egin dituzte katalogoak, gehienetan Kalifikazioen Esparru Europarra oinarri hartuta. Nolanahi ere, gorantz doan migrazioaren eta aldatzen ari diren migrazio-joeren ondorioz, langile kualifikatuen mugikortasuna gero eta konplexuagoa eta globalagoa da munduko eskualde guztietan.

Horrezaz gain, ikasleen mugikortasunak ere nabarmen egin du gora XXI. mendeko lehen hamarkadan, eta, dirudenez, gora egiten jarraituko du aurrerantzean ere. Horrenbestez, egoera halakoa izanik, jada ez dira nahikoak goi-mailako ikasketak, diplomak eta tituluak baliozkotzea xede duten estatu-mailako hitzarmenak, beste zerbait behar da, haiek guztiak nazioartean balioa izateko, eta gero eta handiagoa den ikasleen mugikortasunari aurre egiteko.

Gainera, ikasleen mugikortasuna ez da mugatzen hezkuntza formaleko erakundeen arteko zirkulaziora; izan ere, ikaskuntza formaleko, ez formaleko eta informaleko zentroen arteko ikasleen mugikortasuna ere oso handia da. Egoera horrek ere eragiten ditu ezagutzaren eta konpetentzien ebaluazioaren inguruko arazoak, edozein dela ezagutza eta konpetentzia horiek eskuratzeko bidea.

¹⁰³ Morgan, W. J., Appleton, S. eta Sives, A. 2006. *Teacher mobility, brain drain and educational resources in the Commonwealth*. Educational Paper, 66. zk. Nazioarteko Garapenerako Departamentua, Londres, Erresuma Batua.

Ikaskuntzaren ebaluazioak eskala handian egiteko joera: alde onak eta alde txarrak

Hezkuntzako eta prestakuntzako programen edukiari eman izan zaio garrantzia orain artean, baina egun gero eta garrantzi handiagoa du lortutako ezagutza onartzeak,

Hezkuntzako eta prestakuntzako programen edukiari eman izan zaio garrantzia orain artean, baina egun gero eta garrantzi handiagoa du lortutako ezagutza onartzeak, ebaluatzeak eta baliozkotzeak.

ebaluatzeak eta baliozkotzeak. Emaizak oinarri dituzten kalifikazio-sistemak estatu-mailan eta eskualde-mailan sortzeaz gaiz, helduen konpetentzia-mailak eskala handiagoan ebaluatzeko joera dago egun; esate baterako, helduen konpetentziak ebaluatzeko nazioarteko programa (PIAAC, ingelesez), Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearena (ELGE). Ikasleei dagokienez, hezkuntzaren kalitateari garrantzi handia ematen zaionez, ikaskuntza neurtzeko ebaluazio-kopuruak nabarmen egin du gora azken bi hamarkadetan, eta ebaluazio horiek geografia-eremu gero eta handiagoa hartzen dute¹⁰⁴. Ebaluazioak oso tresna baliagarriak izan daitezke hezkuntzan egindako inbertsio publikoari eta pribatuari buruzko kontuak eskatzeko estatuei, batik bat hezkuntzarako aukera gutxien duten pertsonen ikaskuntza-emaizak aztertzen direlako. Baina horrek badu arriskurik: azterketetara soilik bideratzea

irakaskuntza, eta, beraz, horren baitan diseinatzea ikasketa-planak; azken batean, horrek guztiak kalitatea kaskartzea eragin dezake¹⁰⁵. Politikak, normalean, hezkuntza-alarreko emaitza gutxi batzuei erreparatzen die. Ebaluazioak eskala handian egiteak arrisku larriak eragin ditzake, baldin eta hezkuntza-politikari buruzko informazioa lortzea ez den beste helbururen baterako erabiltzen badira; esaterako, irakasleen soldata erabakitze edo ikastetxeen sailkapena egiteko.

¹⁰⁴ UNESCO. 2014. *Teaching and Learning: Achieving quality for all. EFA Global Monitoring Report 2013-2014*. Paris, UNESCO.

¹⁰⁵ Ikaskuntza-planak globalizatzeko joerari dagokionez, ikusi, esaterako, Baker, D. eta LeTendre, G.K. 2005. *National Differences, Global Similarities: World Culture and the Future of Schooling*. Stanford CA, Stanford University Press.
Ikusi, halaber: IBE UNESCO. 2013. *Learning in the post-2015 education and development agenda*. Geneva, Nazioarteko Hezkuntza Bulegoa UNESCO. Testua ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta arabieraz dago eskuragarri.

Bizialdi osoko ikaskuntzako sistema irekiak eta malguak

Askotariko ikaskuntza-moduez eskuratutako ezagutza eta konpetentziak onartzea eta baliozkotzea, nolana ere, bizialdi osoko ikaskuntzaren esparrukoak dira. Lehen esan dugunez, berrikuntza sozialek eragin dute gero eta garrantzitsuagoa izatea bizitza osoan zeharreko hezkuntza. Kontzeptua ez da berria, baina gaur egun oraindik ere garrantzi handikoa da, ikaskuntza orokorrean eta modu ekitatiboan sistematizatu eta antolatu ahal izateko¹⁰⁶. Adin guztietako ikasleen ahalduntzea da xedea¹⁰⁷. Garapen zientifiko eta teknologikoak eragiten dituen erronkak, eta informazioaren eta ezagutzaren hazkunde esponentzialak eragiten dituen erronkak –lehen adierazitakoak– kontuan hartuta, bizialdi osoko ikaskuntza erabakigarria da enplegu-eredu berriak ebaluatzeko eta haiei aurre egiteko, eta gizabanakoek zein gizarteek behar dituzten konpetentzia-mailak eta -motak lortzeko.

Berrikuntza sozialek eragin dute gero eta garrantzitsuagoa izatea bizialdi osoko hezkuntza.

Bizialdi osoko ikaskuntzako sistema irekiek eta malguek behar bezala funtzionatzea, hain zuzen, ezagutza eta konpetentziak onartzeko, baliozkotzeko eta ebaluatzeko mekanismoen baitan dago, hezkuntzako eta laneko eremuen bidez.

- **Emaitzak oinarri dituzten kualifikazio-esparru gardenak elkarri lotzea**

Xede hori izanik, hezkuntza eta prestakuntza tekniko eta profesionalari buruzko hirugarren nazioarteko batzarrean (Shanghai, 2012), gomendio hau eman zuten: ‘Banakako ikaskuntzarako bide malguak sustatzea, bai eta ikaskuntza hori metatu, onartu eta transferitu dadin sustatzea ere, kualifikazio-sistema gardenen, behar bezala antolatutakoen eta emaitzak oinarri dituztenen bidez’.

- **Mundu-mailako erreferentziak behar al dira?**

Langileen nazioarteko joan-etorrien hazkunde masiboak eragin du, besteak beste, ezagutza eta konpetentziak mundu-mailan onartzeko munduko erreferentzia-mailak ezartzea bideragarria den jakiteko azterketak egitea.¹⁰⁸

¹⁰⁶ Ikusi, esaterako: UNESCO. 2014. *The Muscat Agreement*. Global Education for All Meeting. Muskat, Oman, 2014ko maiatzaren 12-14, ED-14/EFA/ME/3 eta Nazio Batuak. 2014. *Open Working Group proposal for Sustainable Development Goals*. New York, Nazio Batuen Batzar Nagusia.

¹⁰⁷ UNESCO Institute for Lifelong Learning. 2010. *Annual Report 2009*. Hanburgo, Bizialdi Osoko Ikaskuntzarako Institutua, UNESCO.

¹⁰⁸ Keevy, J. eta Chakroun, B. 2015. *The use of level descriptors in the twenty-first century*. Paris, UNESCO.

- **Goi-mailako hezkuntza baliozkotzeko, nazioarteko hitzarmena beharrezkoa al da?**

Horren inguruan estatu-mailan dauden hitzarmenez gain, UNESCO duela gutxi hasi da aztertzen ea bideragarria den goi-mailako hezkuntza baliozkotzeko nazioarteko hitzarmen bat adostea.

■ **Herritartasunerako hezkuntza berraztertze premia, mundu plural eta interkonektatu batean**

Herritartasunaren adierazpide berriak

Hezkuntza publikoak betidanik bete du funtzio soziala, zibikoa eta politikoa; horrek guztiak zerikusia du identitate nazionalarekin, komunitate-sentimendua sortzearekin eta herritartasuna eraikitzearekin. *Herritar* kontzeptuak estatu-nazio baten barruan dagoen komunitate politiko bateko kide izateari egiten dio erreferentzia. Kontzeptu horretaz, berez, interpretazio ugari egin daitezke eta eztabaida bat baino gehiago eragin dezake, batik bat bananduta dauden gizarteetan. Herritartasunaren inguruko oinarrizko eskubideak ukatu egiten zaizkiela senti dezakete zenbait talde minoritariok, hala nola migratzaileek eta errefuxiatuek. Gaur egun ere herritartasunaren definizioak estatu-nazioa hartzen du oinarri, baina kontzeptua eta haren erabilera aldatzen ari dira, globalizazioaren eraginez.¹⁰⁹ Estatuz haraindiko komunitate sozial eta politikoa, gizarte zibilak eta aktibismoa sortzen ari dira; beste modu batera esanda, herritartasunaren adierazpide 'post-nazionalak'.¹¹⁰ Sortu diren eremu ekonomiko, sozial eta kultural berriak ez dira estatu-nazioetara mugatzen, eta globalizazioaren ondorioz, estatu-nazioen mugetatik kanpo identifikatzeko eta mobilizatzeko beste modu batzuk daude gaur egun.

Hezkuntza nazionalaren erronkak

Nazioz haraindiko herritartasun-moduak sortu direnez, estatuari gero eta zailagoa egiten zaio herritartasuna definitzeko eta eratzeko duen egitekoa. Hori hala dela ukazina da, nahiz eta estatua izan oraindik ere herritartasunaren eremua, 'bai baldintza juridiko formalari dagokionez bai arau-proiektuari edo -xedeari dagokionez'¹¹¹. Komunikazioaren teknologia berriak eta sare sozialak dira aldaketa horren sustatzaile nagusiak, batik bat gazteen artean. Izan ere, gazte horiei aukera ezin hobeak eskaintzen dizkiete teknologiek, eta hezkuntza-maila handien, informatuen eta konektatuen dagoen belaunaldikoak dira. Gero eta gehiago hartzen dute parte aktibismo zibil, sozial eta politikorako aukera alternatiboetan, gizarte-komunikabideko bitartekoek eta teknologiek sustatuta, bide berriak eskaintzen baitituzte mobilizaziorako, lankidetzarako

¹⁰⁹ Tawil, S. 2013. Education for 'global citizenship': A framework for discussion. *ERF Working Papers*, 7. zk., Paris, UNESCO (egokitua).

¹¹⁰ Sassen, S. 2002. Towards Post-national and Denationalized Citizenship. E.F. Isin eta B.S. Turner (eds), *Handbook of Citizenship Studies*, Londres, Sage Publications Ltd, 277-291- or.

¹¹¹ Ibid.

eta berrikuntzarako. Hezkuntza formalak sozializazio zibikoan eta politikoan betetzen duen funtzioa ezbaian jartzen ari da, baliabide digitalek eskaintzen dituzten eremu, hartu-emanetarako modu eta dinamika berriek duten eragina dela eta. Horrezaz gain, unibertso digital berriak –Facebook, Twitter, blogak eta beste sare sozial batzuk– derrigorrean dakar nozio giltzarriak, eta sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko aldeak berraztertzea.

Kultura-aniztasuna onartu behar da, eta chauvinismo kulturala, gaitzetsi

Kultura-aniztasuna gero eta onartuago dago, dela historikoki berezkoa izan delako kasuan kasuko estatu-nazioan (hizkuntza- eta kultura-gutxiengoak eta herri indigenak gogoan ditugula, betiere) dela migrazioaren ondorio izan delako. Migrazioak, bereziki, kultura-aniztasuna eragin du hezkuntza-sistemetan, lan-arloan eta gizartean oro har. Nolanahi ere, nabarmena da hazi egin direla, batetik, chauvinismo kulturala eta, bestetik, identitatean oinarritutako mobilizazio politikoa, eta bata zein bestea oztopo handiak dira gizarte-kohesiorako mundu osoan. Kultura-aniztasuna aberastasun-iturri da, baina, aldi berean, gatazkak ekar ditzake, baldin eta gizarte-kohesioa arriskuan jartzen bada.

Hezkuntza formalak sozializazio zibikoan eta politikoan betetzen duen funtzioa ezbaian jartzen ari da, baliabide digitalek eskaintzen dituzten eremu, hartu-emanetarako modu eta dinamika berriengatik.

Herritartasun arduratsua eta elkartasuna sustatzea, mundu globalizatu batean¹¹²

Hezkuntzari dagokio eskuratu behar dugun ezagutza sustatzea. Lehenik, ingurune sozial, kultural eta politiko jakin bateko kide eta gizadiaren baitakoak izatearen sentimendua sustatu behar du. Bigarrenik, tokian-tokian eta mundu zabalean gertatzen ari diren aldaketa sozial, ekonomiko eta ingurumenekoen ondorioz komunitateen garapenerako dauden arazoei buruz kontzientziatu behar du. Eta hirugarrenik, ekintza zibiko eta sozialean parte hartzeko konpromisoa sustatu behar du, gizabanako bakoitzak tokian tokiko, estatu-mailako edo mundu zabaleko komunitatearekiko erantzukizuna izan dezan.

- **Kultura-aniztasunaren alde hezkuntzan**

Hezkuntzak goraiatu egin beharko luke kultura-aniztasuna. Hezkuntzan aniztasunak, besteak beste, hezkuntzaren kalitatea hobetzen lagun dezake, ikuspuntu anitzak eta egoera anitz ezagutzeko aukera ematen baitie bai hezitzaileei bai ikasleei. Hezkuntzaren alderdi kulturala goraiatu behar da, bai eta UNESCOren Kultura Aniztasunari buruzko

¹¹² Tawil, op.cit.

Adierazpen Unibertsala (2001. urtekoa) eta Kultura Adierazpenen Aniztasuna Babesteko eta Sustatzeko UNESCOren Konbentzioa ere (2005. urtekoa)¹¹³.

- **Politika inklusiboak formulatu daitezen sustatzea**

Zenbat eta handiagoa izan aniztasuna, orduan eta zailagoa adostasuna lortzea, hezkuntza-alarreko politiketara dagokienez; izan ere, politika horiek eragiten dute identitatean eta eratzten dute hura zuzen-zuzenean. Are eta zailagoa da, ziurrenik, adostasuna lortzea irakas-hizkuntza edo -hizkuntzak aukeratzeko, eta herritartasunerako hezkuntza-mota aukeratzeko –barne hartuta, azken horretan, historia eta geografiako irakasgaiak, gizarte-alarrekoak eta erlijioa gizarte kulturazintzetan–. Oinarrizko politika-gaiei buruzko kontsulta-prozedura inklusiboagoak aplikatu behar dira, herritartasunerako hezkuntza onuragarria eta baliagarria izan dadin, aniztasuna gailentzen den egungo munduan.

■ Hezkuntzaren gobernantza globala eta estatu-mailako politiken formulazioa

Gobernantza globalerako beste modu batzuk

Guztion ondasunak –hala nola hezkuntza– kudeatzeko sistema araugileak eta erregulatuak ez dira berriak, baina bai gero eta konplexuagoak. Orain arte, sistema horien erantzukizuna estatu-erakundeek eta gobernu-erakundeek zuten, baina, berriki, gero eta ohikoagoa da eragile ez-estatalekin ere parte hartzea sistema horietan. 'Ezin konta ahala gobernu-eragileak eta gobernu-kanpokoak (irabazteko asmokoa dutenak zein ez dutenak) hartzen dute parte egun, gobernantza buruzko –baita aurkariak ere– akordio askotan'¹¹⁴. Horrek guztiak eragin du, horrenbestez, lehen estatuak zuen agintaritzan hura pixkanaka global bilakatzea, eta, beraz, sistema horiek gobernu-erakundeek sustatzeaz gain, gizarte zibileko erakundeek, enpresek, fundazioek eta ideia-laborategiek ere sustatzea.

Gobernantzari buruzko akordioak konplexuagoak dira mundu osoan.

Gobernantzari buruzko akordioak konplexuagoak dira mundu osoan, eta hori dela agerian uzten dute askotariko eragileen artean sinatutako akordioek, hala nola Hezkuntzarako Mundu Aliantzak (GPE). Gobernantzari buruzko akordio globalak hezkuntzan eta konpetentzien garapenean izan dezaketen eraginaz askotan eztabaidatu da, beste sektore batzuetan izan dezaketen eraginaz baino gehiagotan; esaterako, osasunean izan dezaketen eragina ez da hain eztabaidagarria izan. Horrek guztiak badu

¹¹³ Sharp, J. eta Vally, R. 2009. Unequal cultures? Racial integration at a South African university and Stoczowski, W. 2009. UNESCO's doctrine of human diversity: a secular soteriology? *Anthropology Today*, 25 (3) 2009ko ekaina, 3-11. or.

¹¹⁴ NORRAG. 2014. Global governance in education and training and the politics of data scoping workshop report. www.norrags.org/en/event/archive/2014/June/16/detail/scoping-meeting-on-the-global-governance-of-education-16-17-june.html [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

azalpenik: hezkuntzaren alorreko estatu-politiken berezko izaera, eta hezkuntzak bere baitan hartzen dituen mota askotako eta ezin bananduzko alderdiak; hain zuzen, alderdi etikoak, kulturalak, ekonomikoak, sozialak eta zibikoak.

Kontuak ematea eta datuen premia

Datuak ezinbestekoak dira gobernantzarako, bai eta hezkuntza publikoan parte hartzen dutenek edo hezkuntza horrek eragiten dietenek kontuak emateko ere, dela estatu-mailan, dela mundu-mailan. Kasuan kasuko estatuari dagokionez, hezkuntza-alorreko agintariak kontuak eman behar dituzte, hain zuzen, gastu publikoaren zati handi bat (inbertsio pribatua ere kontuan hartu behar da) haur, gazte eta heldu guztiek oinarritzko hezkuntzarako aukera izan dezaten ziurtatzeko delako, eta, hala, guztiek ikaskuntza eraginkorra eta egokia izateko. Estatuetakoa agintariak, halaber, hezkuntzarako eta oinarritzko hezkuntzaren ondokorako aukera-berdintasuna ziurtatu behar dute. Mundu osoa kontuan hartuta, datuak gero eta estandarragoak eta kuantifikagarriagoak dira; izan ere, estatistikak, adierazleak eta indizeak nazioartean alderatu daitezke, eta eskala handian egindako ebaluazioetako datuak ere bai; datu horiek guztiak oso baliagarriak dira ikuskaritzak egiteko, erreferentziak ezartzeko eta saikapenak egiteko¹¹⁵. Finean, datuak ezinbestekoak dira informatzeko eta hezkuntza-politikak zein inbertsioak legitimatzeko.

Argudio horiek guztiak oinarri hartuta, 'datuen iraultza' aldarrikatu da, garapenari buruzko hainbat alderdiri dagokienez¹¹⁶. Izan ere, 2000. urteaz geroztik, Milurtekoko Garapen Helburuen eta Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren baitan mundu osorako helburuak ezarri geroztik, estatuz estatu emandako datuak agregatuak dira, eta horien bidez ez dira ia inoiz adierazten herrialde bakoitzaren desberdintasunen nolakotasuna. Ikaskuntza eraginkorrerako eta egokirako aukerak guztiontzat ziurtatzerakoan *ekitateak* kezkatzen bagaitu, helburuak estatuz estatu zehazterakoan, jakinarazi beharreko datuak desagregatuta eman behar dira. Datuak biltzerakoan eta erabiltzerakoan, aintzat hartu behar dira diskriminazio-faktoreak izan ohi direnak, hala nola generoa eta hiri- edo landa-eremua den bizilekua, eta errenta ere adierazi behar da, eta, ahal denean, gutxiengo bateko kide diren ere bai. Horretarako, datu-multzo alternatiboak erabili behar dira; esaterako, familien bizi-mailari, osasunari eta lanari buruzko inkestak.

Hezkuntzaren finantzaketa-ereduak aldatu behar dira

Oinarritzko hezkuntzarako eta oinarritzko hezkuntzaren ondokorako aukera gehiago dauden neurrian, gero eta agerikoagoak dira hezkuntzako eta ikaskuntzako sistema formalak diru publikoarekin finantzatzeko dauden arazoak. Baliabide publiko horiekin hezkuntzan egiten den inbertsioari dagokionez, baliabide urri horiek eraginkortasun

¹¹⁵ Ibid. Erakunde eta programa hauen estatistikak: PISA, PIACC, UNESCOren Estatista Institutua, ELGE eta SABER.

¹¹⁶ Nazio Batuak. 2013. *A New Global Partnership: Eradicate poverty and transform economies for sustainable development*. The Report of the High-Level Panel of Eminent Persons on the Post-2015 Development Agenda. New York, Nazio Batuak.

handiagoz erabili behar dira eta erantzukizun handiagoa ziurtatu behar da. Baliabide horiek osatzeko beste modu batzuk ere bilatu behar dira, hala nola zerga-ahalmen handiagoa emanez, garapenerako laguntza ofizial handiagoa sustatuz eta eragile ez-estatalekin itun gehiago adostuz. Dohaintza-emaileek oso funtzio garrantzitsua bete izan dute, kasuan kasuko estatuko gastu publikoa osatu baitute, batik bat oinarrizko hezkuntzako gastua. 'Erakunde aldeaniztunek egindako adierazpen publikoak entzunda, begi-bistan da hezkuntzarekiko oso konpromiso handia dutela. Horrez gain, gobernuetan, gizarte zibilean eta sektore pribatuan interesa duten taldeei buruzko inkesten arabera, hezkuntza sustatzeko eskari handia dago. Baina nahiz eta konpromiso handia duten eta eskaria ere handia den, egiaztatu da erakunde aldeaniztunek oinarrizko hezkuntzari ematen dioten laguntza gero eta txikiagoa dela, beste sektore batzuei ematen dietenaren aldean'¹¹⁷. Eta laguntza txikiagoa da, hain zuzen, zenbait herrialdek laguntza hori gehien behar duten unean¹¹⁸. Nazioarteko laguntza publikotik oraindik ere zati handi bat bideratzen da diru-sarrerara txikiak dituzten herrialde askotako hezkuntza publikora. Herrialde horietako bederatziren kasuan –Saharaz hegoaldeko Afrikakoak guztiak–, hezkuntzan egiten duten gastu publikoaren laurdena baino gehiago egiten du laguntza horrek¹¹⁹. Bestalde, nazioz haraindiko profesionalen zirkulazioa gero eta handiagoa dela ikusita, ekintza kolektibo globala behar da, eta, batez ere, estatu bakoitzak hezkuntzan egiten duen gastu publikoa osatzeko gai izango den finantzaketa-mekanismo bat, guzti-guztion ongia den aldetik¹²⁰.

Dohaintza-emaileen eragina estatu-politiken formulazioan

Dohaintza-emaileek garapenean laguntzeaz gain herrialde bateko barne-baliabideak osatze aldera, eragin handia dute hezkuntza-politiketan, eta horrek ondorio positiboak zein negatiboak izan ditzake. Esate baterako, Hezkuntzaren aldeko Gizarte Zibilaren Funtzak eta Hezkuntzarako Mundu Aliantzak sustatu dute gizarte zibilak hezkuntzarako tokiko taldeetan parte hartzea. Ekimen horri esker, gizarte zibilak hezkuntza-alorreko programak diseinatzeko parte hartzen du gobernuarekin eta dohaintza-emaileekin batera, eta Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren helburuak lortzen laguntzen da.¹²¹ Hala eta guztiz ere, dohaintza-emaileek baldintzak edo arauak ezartzen badituzte laguntza emateko, gobernuak behartuta egon daitezke haiek ezarritakoen

¹¹⁷ Pauline, R. eta Steer, L. 2013. *Financing for Global Education Opportunities for Multilateral Action: A report prepared for the UN Special Envoy for Global Education for the High-level Roundtable on Learning for All*. Center for Universal Education (CUE) at Brookings Institution eta UNESCO EFA GMR. Oinarrizko hezkuntzaren finantzaketarekin zerikusia duten gaiak lantzen dira (oinarrizko hezkuntza kolokan). www.brookings.edu/~media/research/files/reports/2013/09/financing%20global%20education/basic%20education%20financing%20final%20%20webv2.pdf [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

¹¹⁸ Bokova, I. 2014. Opening Speech. *Global Education for All Meeting*. 2014ko maiatzaren 12-14. Maskat, Omango Sultaneria. www.unesco.org/new/fileadmin/MULTIMEDIA/HQ/ED/ED_new/pdf/UNESCO-DG.pdf [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

¹¹⁹ UNESCO. 2012. *Youth and skills: Putting education to work. Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-txostena (2012)*. Paris, UNESCO, 146. or.

¹²⁰ Winthrop, R. eta Bulloch, G. 2012.

¹²¹ GPE web orria: www.globalpartnership.org/civil-society-education-fund [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

arabera aldatzeko politikak¹²². Gaur egun, emaitzen araberako finantzaketa egiteko joera nagusitu da, eta erakunde dohaintza-emaile batzuek ere joera horrekin bat egin dute; horrenbestez, xede dituzten helburuak lor ditzakete dohaintza-emaileek finantzaketarekin, baina gerta daiteke bat ez etortzea herrialdeetako politikekin, eta, beraz, erabat desegokia izatea barne-konponbideetarako, unean uneko egoerarako eta jasangarritasunerako. Horrela, bada, dohaintza-emaileek gobernuari, gizarte zibilari eta politikak formulatzen eta aplikatzen interesa dutenei lagundu behar diete, baldin eta haiek aintzat hartzen badituzte estatuen helburuak, lehentasunak, egoerak eta baldintzak.

Nazioarteko lankidetzaren egungo dinamika

Delors txostena argitaratu zenetik (1996) eta Milurtekoko Garapen Helburuak onartu zirenetik (2000), nazioarteko laguntzaren dinamika nabarmen aldatu da. Iparra-Hegoa laguntza-fluxua oraindik ere garrantzitsua da, baina Hegoa-Hegoa lankidetzaren eta lankidetzaren trianguluarra gero eta garrantzitsuagoa da nazioarteko garapenerako. Laguntza horien eraginez, herrialdeen arteko hartu-emanak aldatu egin dira, eta nazioarteko laguntzak beste egitura bat hartu du. Herrialde guztiek arazo antzekoak dituzte (langabezia, desorekak, klima-aldaketa, etab.), eta unibertsaltasuna eta integrazioa eskatzen dira egun, 2015aren ondorengo garapen-agendaren oinarritzko ezaugarriak diren aldetik. Jakin badakigu unibertsaltasunak berekin dakarrela herrialde guztiek garapenerako ibilbidea ezinbestez aldatu behar izatea, nork bere ikuspegia eta nork bere egoerak aintzat hartuta. Eredu-aldaketa horretarako, gainera, pentsatzeko modua ere aldatu behar da: guztiok daukagu ardura eta erantzukizuna, denon etorkizunari begira.

Delors txostena argitaratu zenetik (1996) eta Milurtekoko Garapen Helburuak onartu zirenetik (2000), nazioarteko laguntzaren dinamika nabarmen aldatu da.

¹²² Moyo, D. 2009. *Dead Aid: Why Aid Is Not Working and How There Is Another Way for Africa*. Londres, Penguin Books.

4. Hezkuntza, guztion ondasun al da egun?



4. Hezkuntza, guztion ondasun al da egun?

“Hezkuntza bera helburutzat hartzen dugunez, badakigu ezagutza dela balio gorena.”

Abul Kalam Azad, Indiako Hezkuntzako ministroa (1947-1958)

Egungo egoera globala kontuan hartuta berraztertut behar dugunez hezkuntza, hezkuntzak zer helburu dituen aztertzeaz gain, ikaskuntza nola *antolatuta* dagoen ere aztertu behar dugu. Kontuan hartuta egun mota askotako itunak daudela, eta publikoaren eta pribatuaren arteko mugak lausoak direla, ezinbestekoa da hezkuntzaren gobernantzak oinarri dituen printzipioak berraztertzea, eta, bereziki, hezkuntzaren printzipio arauemailea –ondasun publikoa den aldetik–, bai eta hezkuntzatzat zer hartu behar dugun ere, etengabe aldatzen ari den gizartean, estatuan eta merkatuan¹²³.

■ Hezkuntza, ondasun publiko gisa, arriskuan

Inklusioa, gardentasuna eta kontuak ematea: gailentzen ari den eskaria

Gizabanakoak eta komunitateak pixkanaka ahalduntzen ari dira demokrazia finkatzen ari delako herrialde askotan eta handitzen ari delako hezkuntzarako aukera, bai hezkuntza formalaren bidezko aukera bai teknologia digitalen bidezkoa. Aukera gehiago edukitzeak berekin ekarri du gai publikoei buruzko jakinarazpen gehiago eskatzea eta tokiko zein mundu-mailako gobernantza-moduak aldatzeko premia. Jendeak gai publikoen

¹²³ Morgan, W. J. eta White, I. 2014. Education for Global Development: Reconciling society, state, and market. *Weiterbildung*, 1, 2014, 38-41. or.

inguruan argitasuna, ekitatea, berdintasuna eta kontuak ematea eskatzen du. Nahiz eta jakinarazpen gehiago egiteko eskaera handiagoa den tokian-tokian zein estatu barruan, nazioz haraindiko eremuan ere gero eta handiago da, eta mundu osoan kezka eragiten duten arazoak sortu dira. Horrek berekin ekarri du eragile ez-estatalek –gizarte zibileko erakundeak edo enpresak– gehiago esku hartzea tokian-tokian, estatuan zein mundu osoan eragina duten gai publikoen kudeaketan. Esku-hartze horrek hezkuntza-alorreko politikan ere izan du eraginik; izan ere, sektore publikoak zein pribatuak dute interesa ezagutzaren gizarte inklusiboan sorreran esku hartzeko. Ohartu gara gizartearen eskaera horrek ondorioak eragin dituela, ekintza positibo gisa, ikasketa-planetan, testuliburuetan eta politikan.

Jendeak gai publikoen inguruan argitasuna, ekitatea, berdintasuna eta kontuak ematea eskatzen du.

Sektore pribatuaren esku-hartzea hezkuntzan

Hezkuntza privatizatzeko joera hazten ari da mundu osoan eta maila guztietan. Joan den hamarkadan, hezkuntza-zentro pribatuetan gora egin zuen matrikulazio-tasak, batez ere Lehen Hezkuntzan diru-sarrera txikiko herrialdeetan, eta Bigarren Hezkuntzaren ondokoan –ez unibertsitatekoan– ekonomia garatuagoa duten herrialdeetan, hala nola Erdialdeko Asian¹²⁴. Hezkuntza privatizatzeko esan nahi du hezkuntzaren jarduerak, egitekoak, kudeaketa, funtzioak eta berezko erantzukizunak estatutik edo erakunde publikoetatik pertsona edo erakunde pribatuetara igarotzen direla¹²⁵. Oinarrizko hezkuntzaren aurreko hezkuntzari dagokionez, sektore pribatua mota askotakoa izan daiteke; esate baterako, ikastetxe erlijiosoa, ikastetxe pribatu merkea, atzerriko laguntza duten edo gobernuz kanpoko erakundeek babestutako nazioarteko ikastetxea, itunpeko ikastetxea, txartelen bidez kontratatu eta ordaindutakoa, etxek etxekoa eta banakako irakaskuntza, eta merkatura eta dirua irabaztera bideratutako zentroa¹²⁶. Sektore pribatuak hezkuntzan esku hartzea ez da oraingo kontua, baina 'berria dena da sektore pribatua nola eta zenbateraino sartu den hezkuntzaren alderdi guztietan'¹²⁷.

¹²⁴ UNESCOren Estatistika Institutuaren datu-basea. Aldia: 2000-2011.

¹²⁵ Iturria: *Privatisation of Education: Global Trends of Human Rights Impacts*. Londres, Right to Education proiektua. 2014 (egokitua).

¹²⁶ Patrinos, H.A. et al. 2009. *The Role and Impact of Public-Private Partnership in Education*. Washington, DC, Munduko Bankua. Lewis L., eta Patrinos H.A. 2012. *Impact Evaluation of Private Sector Participation in Education*. Londres, CfBT Education Trust. Right to Education proiektua. 2014. *Privatisation of Education: Global Trends of Human Rights Impacts*. Londres, Right to Education proiektua.

¹²⁷ Macpherson, I., Robertson, S. eta Walford, G. 2014. *Education, Privatization and Social Justice: case studies from Africa, South Asia and South East Asia*. Oxford, Symposium Books.

Pribatizazioaren ondorioak, hezkuntzarako eskubidean

Hezkuntzaren pribatizazioak ondorio positiboak izan ditzake zenbait gizartelalderentzat; izan ere, hala, ikaskuntza-aukera gehiago daude, gurasoek non aukeratu handiagoa dute eta ikasketa-programa mota asko sortzen dira. Nolanahi ere, ondorio negatiboak ere eragin ditzake, baldin eta agintaritza publikoek ez badute behar beste eta behar den moduan kontrolatzen eta erregulatzen (lizentziarik gabeko zentroak, prestakuntzarik gabeko irakasleen kontratazioa eta kalitate-bermerik eza), kaltea eragin baitezake gizarte-kohezioan eta elkartasunean. Bereziki kezagarria hau da: 'Bazterturiko taldeak pribatizazioaren ondorio positibo gutxiren onuradun dira, eta, gainera, ondorio negatiboan eragina haiengan askoz ere handiagoa da'.¹²⁸ Bestalde, sektore pribatuko hornitzaileek zer ordainsari eskatzen duten ez da kontrolatzen, eta hezkuntza unibertsala eragotzi dezake. Azken batean eta oro har, pribatizazioak ondorio negatiboak eragin ditzake kalitate oneko hezkuntzarako eskubidean eta hezkuntzarako aukera-berdintasuna lortzeko bidean.

Tutoretza osagarri pribatua edo 'ezkutuko hezkuntza' hezkuntzaren pribatizazioaren alderdi espezifikoa bat da, eta hori ere mundu osoan barrena zabaldu da.¹²⁹ Hezkuntza-modu horrek ere –eskola-sistemak behar bezala funtzionatzen ez duelako sintoma, askotan–¹³⁰, hezkuntza pribatuko beste modu batzuk bezalaxe, ondorio positiboak zein negatiboak eragin ditzake ikasleengan eta haien irakasleengan. Batetik, ikaskuntza-eritmo motelagoa duten ikasleen premietara egokitu dezakete irakaskuntza, eta irakasleek, horrela, ikastetxean jasotzen duten soldata osa dezakete. Eta bestetik, tutoretza pribatuaren truke ordaindu beharreko ordainsariak etxe askotako diru-sarreraren zati handi bat egin dezake, batik bat pobreenen artean; hortaz, ikaskuntzarako aukeradesberdintasunak ere eragin ditzake. Horrezaz gain, gerta daiteke zenbait irakaslek eskola-saio pribatueterako gehiago ahalegintzea, eta, beraz, eskolako irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren kalitatea kaskartzea¹³¹. Ezkutuko hezkuntzak, gizabanakoek zein familiek erabiltzen dituzten finantza-baliabideek, eta irakasleek moralitasunik gabe jokatzeko eta ustelkerian erortzeko dagoen arriskuak kezka handia eragin dutenez, hezkuntza-ministerio asko hasi da fenomeno hori erregulatzen¹³².

¹²⁸ The Right to Education proiektua. 2014. op. cit.

¹²⁹ Bray, M. 2009. *Confronting the shadow education system. What government policies for what private tutoring?* Paris, UNESCO-IIPE.

¹³⁰ UNESCO. 2014. *Teaching and Learning: Achieving quality for all. EFA Global Monitoring Report 2013-2014.* Paris, UNESCO.

¹³¹ Bray, M. eta Kuo, O. 2014. Regulating Private Tutoring for Public Good. Policy options for supplementary education in Asia. *CERC Monograph Series in Comparative and International Education and Development*. 10. zk. Hong Kong, Comparative Education Research Center eta UNESCOren Bangkokeko bulegoa.

¹³² Ibid.

16. tartekia. Tutoretza pribatuak Egipton: pobreen kalterako¹³³

Egipton, familiek hezkuntzan egiten duten gastuaren zati handi bat egiten dute tutoretza pribatuek; batez beste, %47 egiten dute landa-eremuetako familien kasuan eta %40, berriz, hiri-eremuetako familienean. Egindako kalkuluen arabera, 2.400 milioi dolar estatubatuar gastatzen dira urtean tutoretza pribatuetan; hau da, gobernua 2011. urtean hezkuntzan egin zuen gastuaren %27.

Tutoretza pribatuak ordain ditzaketen familien ustez, merezi du gastu hori ordaintzeko ahalegina egitea. Baina familia guztiek ezin dute ordaindu: familia dirudunen seme-alabek aukera gehiago dituzte tutoretza pribatuak edukitzeko; hain zuzen, ia bikoitza da aukera. Hezkuntza formalaren sistemaren kalitatea kaskartu izanak ondorioak eragiten ditu ordaindu ezin duten familietako seme-alabengan; izan ere, irakasleek tutoretza pribatuetan energia eta baliabide gehiago baliatzen dituzte, ikasgelan baino.

Tutoretza pribatuak hedatu izanaren arrazoi nagusietako bat da irakasleen baldintza sozialak Egipton kaskartu egin direla azken hamarkadetan. Eta baldintza horiek kaskartzea egoera honek eragin du: hezkuntza publikorako eskariak gora egin ondoren egoera berriari aurre egiteko, gobernua behar bezala prestatuta ez zeuden irakasleak kontratatzen hasi zen. Egiptoko gizartearen irakasleak gutxiesteak ekarri du irakaskuntza izatea okerren ordaindutako enplegu publikoetako bat, eta, beraz, irakasleek, soldatak osatze aldera, tutoretza pribatuetara jotzen dute.

Iturria: UNESCO. 2014. *Irakaskuntza eta ikaskuntza: kalitatea lortzea, guztiontzat. Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-batzordearen txostena (2013-2014)*. Paris, UNESCO.

¹³³ UNESCO. 2014. *Irakaskuntza eta ikaskuntza: kalitatea lortzea, guztiontzat. Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren jarraipen-batzordearen txostena (2013-2014)*. Paris, UNESCO. [Iturri hauek oinarri hartuta: Central Agency for Public Mobilization and Statistics (2013); Elbadawy et al. (2007); Hartmann (2007); UNESCO (2012).]

Pribatizazio-modu ororen ondorioz ikaskuntzarako aukera-desberdintasunak gora egin izanak eta aurrerantzean ere gora egin ahal izateak zalantza handiak sorrarazi ditu

hezkuntzaren kontzeptuaz –ondasun publikoa den aldetik– eta estatuak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko duen funtzioaz.

Pribatizazio-modu ororen ondorioz ikaskuntzarako aukera-desberdintasunak gora egin izanak eta aurrerantzean ere gora egin ahal izateak zalantza handiak sorrarazi ditu estatuak hezkuntzarako eskubidea bermatzeko duen funtzioaz.

Hezkuntzarako eskubidea egungo egoerara egokitzea

Garapenari buruzko nazioarteko diskurtsoan, giza eskubide gisa eta ondasun publiko gisa aipatzen da hezkuntza. Hezkuntzaren printzipioak, pertsona gisa errealizatzeko aukera ematen duen oinarriko eskubidea den aldetik hezkuntza, nazioarteko araudia du oinarri¹³⁴. Hezkuntzarako eskubidea errespetatu, bete eta babestu egingo dela ziurtatzeko funtzioa esleitzen dio estatuari. Hezkuntzarako aukera emateaz gain, hezkuntzarako eskubidea *bermatu* behar du estatuak, hori ere bere funtzioa baita.

17. tartekia. Hezkuntzarako eskubidea errespetatzea, bete dadin ziurtatzea eta babestea

46. Hezkuntzarako eskubideak, giza eskubide orok bezala, hiru betebehar-maila edo -mota betetzea eskatzen die estatu itungileei: errespetatzeko, babesteko eta bete dadin ziurtatzeko betebeharrak. Bete dadin ziurtatzeko betebeharrak, halaber, eskuragarri jartzeko betebeharra eta emateko betebeharra hartzen ditu bere baitan.

47. Errespetatzeko betebeharrak estatu itungileei eskatzen die hezkuntzarako eskubideaz baliatzea eragozten edo oztopatzen duten neurriak ez hartzeko. Babesteko betebeharrak estatu itungileei eskatzen die hezkuntzarako eskubidea hirugarrenek oztopa dezaten eragozteko. Bete dadin ziurtatzeko betebeharrak (eskuragarri jartzekoak) estatu itungileei eskatzen die neurri egokiak hartzeko, hezkuntzarako eskubideaz balia daitezen gizabanakoak zein komunitateak, eta guztiek horretarako zerbitzuak izan ditzaten. Eta azkenik, estatu itungileek hezkuntzarako eskubidea bete dadin ziurtatzeko (eskuragarri jartzeko) betebeharra dute. Arau orokor gisa, estatu itungileek ituneko eskubide jakin bat bete dadin ziurtatzeko (eskuragarri jartzeko) betebeharra dute beti, pertsona edo talde batek bere esku ez dauden arrazoiengatik eta eskura dituen baliabideekin ezin badu eskubide hori baliatu. Dena dela, ituneko testuak baldintzatzen du beti betebehar hori.

Iturria: Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazio Batuen Batzordea (Nazio Batuak). 1999. *13. ohar orokorra, Hezkuntzarako eskubidea (Eskubide Sozial, Ekonomiko eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, 13. artikulua)*, 1999ko abenduaren 8a. E/C.12/1999/10 (46/47), esteka honetan eskuragarri: <http://www.refworld.org/docid/4538838c22.html>

¹³⁴ Ikusi, bereziki, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (26. artikulua), 1966ko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna (13. artikulua) eta 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (28. artikulua).

Hezkuntzarako eskubidearekin zerikusia duten legezko betebeharrak espezifikokoak egon badaude ere, duela gutxira arte hezkuntzarako eskubideari buruzko eztabaida gehienak eskolatzeari buruzkoak izan dira, bereziki Lehen Hezkuntzako eskolatzeari buruzkoak. 1990ean Jomtien hirian (Thailandia) egin zen Hezkuntzari buruzko Munduko Foroan adierazitakoaren arabera, *oinarrizko hezkuntza* nozioa oso zabala da: bere baitan hartzen ditu ikaskuntzaren oinarrizko baliabideak (alfabetatzea eta kalkulua), nork bere egoerara egokitutako oinarrizko ezagutza, kompetentziak eta balioak. Hezkuntza formalaren ikuspuntutik, oinarrizko hezkuntza ia beti derrigorrezko eskolatzearekin parekatzen da. Munduko herrialde gehienetan lege bidez dago zehaztuta zein den derrigorrezko eskolatzeko aldia. Ikuspegi horretatik, beraz, *oinarrizko hezkuntzarako eskubidearen printzipioa* ukazina da, bai eta estatuak printzipio hori babesteko eta aukera-berdintasuna bermatzeko duen funtzioa ere.

Hortaz, printzipio horiek ukaezinak dira oinarrizko hezkuntzan; baina ez dago adostasun orokorrik printzipio horiek oinarrizko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan aplikatzeari dagokionez¹³⁵. Oinarrizko eskolatzeko aukera zabaldu izanak berekin ekarri du Bigarren Hezkuntzaren eta goi-mailako hezkuntzaren eskariak gora egitea, bai eta kompetentzia profesionalak jende gehiagok eskuratu nahi izatea –batik bat, egun, gazteen langabezia-tasa handia den garaian– eta trebatzen eta ezagutzak berritzen jarraitu nahi izatea ere. Oinarrizko hezkuntzaren ondoko hezkuntzaren eta bizialdi osoko ikaskuntzaren eskaria hazi egin dela ikusita, hona hemen zenbait zalantza: Nola ulertu eta aplikatu behar da hezkuntzarako eskubidearen printzipioa? Zertan da desberdina oinarrizko eskolatzeko (derrigorrezkoa) eskubidearekiko, eskubidedunen titulartasunari eta betebeharra dutenen erantzukizunari dagokienez? Zer erantzukizun du estatuak derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntza-mailetan, hala nola goi-mailako bigarren hezkuntzan, goi-mailako hezkuntzan, eta irakaskuntza tekniko eta profesionaleko bigarren mailan eta goi-mailan? Nola uztartu daitezke oinarrizko hezkuntzaren ondoko hezkuntza- eta ikaskuntza-mailetarako aukeran erantzukizuna eta, aldi berean, ez-diskriminazioaren printzipioaren babesa?

Publikoaren eta pribatuaren arteko mugak lausotzen ari dira

Hezkuntzari buruzko nazioarteko diskurtsoan, ondasun publiko gisa aipatzen da hezkuntza. Horren harira, Hezkuntzarako Eskubidearen arloko Nazio Batuen Errelatore Bereziak argi utzi du zeinen garrantzitsua den gizarteak hezkuntzarekiko duen interesa zaintzea eta, aldi berean, hezkuntzaren kontzeptua ondasun publiko gisa sustatzea¹³⁶. Hala eta guztiz ere, estatuak hezkuntza publikoa emateko duten erantzukizun nagusia betetzeko, gero eta eragozpen gehiago daude: gastu publiko murrizteko eskaria handia da eta eragile ez-estatalen parte-hartzea ere gero eta handiagoa da. Interes handia dute, besteak beste, gizarte zibileko erakundeek, enpresa pribatuek eta

¹³⁵ Morgan, W. J. eta White, I. 2014. The value of higher education: public or private good? *Weiterbildung*, 6, 2014, 38-41. or.

¹³⁶ Singh, K. 2014. *Report of the Special Rapporteur on the right to education*. Nazio Batuak. A/69/402, 2014ko irailaren 24a. http://ap.ohchr.org/documents/dpage_e.aspx?si=A/69/402 [2015eko otsailaren eguzken kontsulta].

fundazioek, eta, gainera, finantzaketa-iturriak dibertsifikatzen ari dira. Horren guztiaren ondorioz, hezkuntza publikoaren eta pribatuaren arteko mugak lausotzen ari dira. Jada ez dago garbi zer esan nahi duen *publiko* terminoak ikaskuntzaren egungo testuinguru

Nola babestu daiteke hezkuntzaren printzipio nagusia –guztion ondasuna, ongia– ikaskuntzaren egungo testuinguru globalean?

globalean –alde interesdunen dibertsifikazioa da haren ezaugarri bereizgarria–, estatu-nazio askok ahalmena galdu dutelako politika publikoak erabakitzeke, eta gobernantza globaleko moduak ugaritzen ari direlako. Sektore pribatuaren parte-hartzea hezkuntzan den bezalakoa delako eta oso handia delako, lausotzen ari dira hezkuntza publikoaren eta pribatuaren arteko mugak. Hori hala dela erakusten dute egoera hauek: goi-mailako hezkuntzako erakunde publikoak finantzaketa pribatuaren mende daude; irabazi-asmoko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak ugaritu egin dira; eta enpresa-arloko metodoak erabiltzen hasi dira goi-mailako hezkuntzako erakundeetan. Izaera pribatua gailentzen ari denez –oinarrizko hezkuntza eta oinarrizkoaren ondoko

hezkuntza etekina ateratzera eta negozioia egitera bideratzen ari dira, sektore pribatuaren mende jarri dira hezkuntzako programak eta interes komertziala nagusitzen ari da–, hezkuntzak duen ondasun publikoaren izaera ondasun pribatu (kontsumoko ondasun) bilakatzen ari da¹³⁷. Gizartearen, estatuaren eta merkatuaren arteko hartu-emanak oso azkar aldatzeak dilema bat sorrarazi du: Nola babestu daiteke hezkuntzaren printzipio nagusia –guztion ondasuna, ongia– ikaskuntzaren egungo testuinguru globalean?

■ Hezkuntza eta ezagutza: guztion ondasunak, globalak

Ondasun publikoa: teoriaren mugak

Ondasun publikoaren teoria oso aspaldikoa da, eta merkatu-ekonomian du oinarria¹³⁸. Joan den mendeko 50eko hamarkadan honako hau hartu zen ondasun publikotzat: 'denok baliatzen edo kontsumitzen ditugun ondasunak dira, baina jakinik gizabanako batek ondasun jakin bat kontsumitzeagatik ere, ez dakarrela ondasun hori bera beste gizabanako batek kontsumitzeko aukera murriztea'¹³⁹. Nozio hori batez ere ekonomikoa da, eta hezkuntzaren alorrean aplikatzea beti izan da arazotsua, nolabait ere. Politika publikoarekin eta estatuarekin zerikusi zuzena duten ondasunak hartzen dira ondasun publikotzat. *Publiko* terminoaren inguruan askotan sortzen dira gaizki-ulertuak, 'ondasun

¹³⁷ Macpherson, Robertson eta Walford, op.cit., 9. or.

¹³⁸ Menashy, F. 2009. Education as a global public good: the applicability and implications of a framework. *Globalisation, Societies and Education*, 7. liburukia, 3. zk., 307-320. or.

¹³⁹ Samuelson, P.A. 1954. The Pure Theory of Public Expenditure, *The Review of Economics and Statistics*, 36. liburukia, 4. zk., 387-389. or.

publikoak' *estatuak eskaintzen* dituen ondasuntzat hartzen baitira¹⁴⁰. Bestalde, *guztion ondasun* terminoari buruzko definizio hau eman da: bai publikoak izan, bai pribatuak izan, derrigorrezkoak eta ezinbestekoak dira, pertsona guztien oinarrizko eskubideak beteko badira¹⁴¹.

Ikuspuntu hori abiapuntu hartuta, *guztion ondasun* kontzeptuaren definizio konstruktiboa egiteko aukera ematen du. Izan ere, guztion ondasunari buruzko definizio hau eman daiteke: 'gizakiek berez elkarbanatzen dituzten ondasunen multzoa da, ondasun horiek elkarren artean lotura zuzena dutela; ondasun horiek dira, esaterako, balioak, bertute zibikoak eta zuzentasuna edo justizia ulertzeko modua'¹⁴². 'Pertsonen arteko elkartasun solidarioa da, gizabanako bakoitzaren ongia (ondasuna) lortzera mugatzen ez dena'. Komunitatea osatuta lortzen da ongia, 'elkarren arteko hartu-emanen bidez sortzen da ondasuna, ongia, eta hartu-eman horiei esker lortzen dute gizakiek ongizatea'¹⁴³. Horrela, bada, helburu berberaren inguruan elkartzen diren gizarte bateko kideen artean sortzen diren hartu-emanek berezkoa dute guztion ongia, ondasuna. Horrenbestez, mota horretako ondasunak guztionak dira, bai horiek 'sortzeari' dagokionez, bai horien onurez baliatzeari dagokionez¹⁴⁴. Guztion ondasunari –ongiari– buruzko ideia hori aintzat hartuta, *ondasun publiko* kontzeptuaren mugak hiru modutan gaingitu daitezke:

1. Guztion ondasunaren (ongiaren) nozioa ondasun publikoaren kontzeptu instrumentala baino harago doa; izan ere, azken ideia horren arabera, teoria sozioekonomiko indibidualista baten baitan dago giza ongizatea. Guztion ongia ikuspuntutzat hartuta, ez da gizabanakoen *bizimodu ona* soilik kontuan hartu behar, gizaki guztiok daukagun bizitzaren ontasuna ere bai¹⁴⁵. Ezin da ondasun pertsonala edo gutxi batzuenak bakarrik izan¹⁴⁶. Merez du adieraztea nazioarteko diskurtsoan jauzia eman dela *hezkuntzatik ikaskuntzara*, eta horrek erakusten du ez direla aintzakotzat hartu alderdi kolektiboak eta hezkuntzak duen xedea, funtzio sozial gisa. Hori bera gertatzen da hezkuntzari eskatzen zaizkion emaitzei dagokienez –emaitza sozial hobek eskatzen zaizkio– eta aukerak antolatzeari dagokionez. Guztion ondasun gisa hartuta hezkuntza, berretsi egiten da haren alderdi kolektiboa, denon funtzio sozial gisa (guztion erantzukizuna eta elkartasunarekiko konpromisoa).

Guztion ondasunaren nozioa ondasun publikoaren kontzeptu instrumentala baino harago doa; haren arabera, teoria sozioekonomiko indibidualistaren baitan dago giza ongizatea.

¹⁴⁰ Iturria: *Community, the Common Good, and Public Healthcare – Confucianism and its relevance to contemporary China*. Zhang, E. 2010 (egokitua). Erljioa eta Filosofia Departamentua, Hong Kongeko Unibertsitate Baptista.

¹⁴¹ Iturria: *Oltre il pubblico e il privato: per un diritto dei beni comuni*. Marella, M.R. 2012. Verona, Ombre Corte.

¹⁴² Deneulin, S., eta Townsend, N. 2007. Public Goods, Global Public Goods and the Common Good. *International Journal of Social Economics*, 34. liburukia (1-2), 19-36. or.

¹⁴³ Cahill-ek adierazitakoa, honako honetan: Deneulin eta Townsend, ibid. (egokitua).

¹⁴⁴ Deneulin eta Townsend, ibid. (egokitua).

¹⁴⁵ Deneulin eta Townsend, ibid.

¹⁴⁶ Holster, K. 2003. The Common Good and Public Education. *Educational Theory*, 53(3), 347-361.

2. Guztion ondasunaren (ongiaren) ideia definitzeko ezinbestez hartu behar dira aintzat egoera-aniztasuna, eta ongizatearen eta bizikidetzaren ikusmoldeak. Horrenbestez, komunitate guztietan ondasunaren kontzeptuak ez du esanahi bera, komunitate bakoitzaren egoera jakin baten baitan baitago¹⁴⁷. Guztion ondasuna zer den definitzeko interpretazio kultural anitz daudenez, politika publikoak egoera, mundu-ikuskerak eta ezagutza-sistema anitz horiek aintzat hartu eta horiek bultzatu behar ditu, eta, aldi berean, errespetatu egin behar ditu oinarriko eskubideak, giza ongizatean kalterik eragingo ez bada¹⁴⁸.
3. Kontzeptuak prozesu *parte-hartzailea* hartzen du bere baitan, eta hori ere guztion ondasun bat da. Guztion ondasunak edo ongiak berezkoa du ekintza bateratua, eta baliagarria ere bada, alde onak dakartzalako ekintza bateratuak¹⁴⁹. Hori hala izanik eta hezkuntza guztion ondasuna den aldetik, prozesu inklusiboa ezinbestekoa da politika publikoak egiteko eta aplikatzeko, erantzukizunez arituta betiere. Guztion ondasunak publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiaren gainetik jarri behar dira eta, horretarako, demokrazia parte-hartzaileko beste modu eta erakunde batzuk sortu behar dira –egungo pribatizazio-politikei aurre egingo dietenak–, kudeaketa publikoko modalitate tradizionaletara itzuli behar izan gabe¹⁵⁰.

Hezkuntza eta ezagutza, guztion ondasun globalak

Hezkuntza nahita egindako prozesu bat da, ezagutza eskuratzeko eta konpetentziak garatzeko, eta horiek, gero, kasuan kasuko egoeran baliatzeko. Hezkuntzaren xede nagusiak ikasleek ezagutza eskuratzea eta ezagutza baliatzea dira, oinarri hartuta lortu nahi dugun gizarte-motaren printzipioak. Ikaskuntza-prozesu antolatuta eta nahita egindakotzat hartzen badugu hezkuntza, horri buruzko ezein eztabaidak ezin du soilik kontuan hartu ezagutza eskuratzeko (eta baliozkotzeko) prozesua. Eskuratzeko eta baliozkotzeko modua kontuan hartzeaz gain, ezagutzarako aukera zenbaitetan nola kontrolatzen den ere hartu behar da kontuan, eta, beraz, pertsona guztiei aukera nola eman ere bai.

¹⁴⁷ Zhang, op.cit.


¹⁴⁸ Deneulin eta Townsend, op.cit.

¹⁴⁹ Deneulin eta Townsend, ibid. (egokitua)

¹⁵⁰ Marella, op. cit.

18. tartekia. Ezagutza sortu, kontrolatu, eskuratu, baliozkotu eta baliatu

Ezagutza terminoak, zentzu zabalean, honako hauek guztiak hartzen ditu bere baitan: informazioa, ulermena, trebetasunak, balioak eta jarrerak. *Kompetentzia* terminoa, berriz, honela defini dezakegu: ezagutza hori egoera jakinetan baliatzeko ahalmena. Hezkuntzari (edo ikaskuntzari) buruzko eztabaidak, normalean, ezagutza *eskuratze*ko eta ezagutza hori baliatzeko ahalmena (kompetentziak) garatzeko nahita egiten den prozesuaren ingurukoak dira. Horrez gain, hezkuntzaren alorrean gero eta garrantzitsuagoa da eskuratutako ezagutza baliozkotzea.



Hala eta guztiz ere, hezkuntzari eta ikaskuntzari buruzko eztabaidak, etengabe aldatzen ari den egungo mundua kontuan hartuta, ez dira mugatu behar ezagutza eskuratzeko, baliozkotzeko eta baliatzeko prozesura, beste funtsezko gai batzuk ere landu behar dira: ezagutza nola *sortu* eta *kontrolatu*, alegia.

Iturria: Egileak

Ezagutza gizon-emakume ororen ondarea da eta, hezkuntza bezalaxe, guztion ondasun global gisa hartu behar da. Ezagutza ondasun *publiko* huts gisa hartzen bada¹⁵¹, ezagutzarako aukera mugatu egingo da maiz¹⁵². Ezagutza sortzeko, zabaltzeko eta hedatzeko modua pribatizatzeko egungo joerak kezka larria eragin du. Ezagutza pixkanaka pribatizatzen ari da lege bidez, eta, zehatz-mehatz, Jabetza Intelektualaren Eskubideei buruzko araudiaren bidez, sortutako ezagutza kontrolatzen baitu. Ezagutza sortzeko eta zabaltzeko modua pixkanaka pribatizatzen ari dela nabarmena da unibertsitateen, ikerketa-zentroen, enpresa aholkularien eta argitaletxeen jardunean. Horren ondorioz, gaur egun ondasun publikotzat hartzen den eta gure ustez guztion ondasun den ezagutzaren zati handi bat pribatizatzen ari da. Egoera larria da, batez

¹⁵¹ Kaul, I., le Goulven, K. et al. (eds) 1999. *Global Public Goods. International Cooperation in the 21st Century*, New York, Oxford University Press.

¹⁵² Stiglitz, J. 1999. *Knowledge as a global public good*. In Kaul, I., le Goulven K. et al. (eds), *ibid.*, 308-325. or.

Ikusi, halaber: PNUD. 1999. *Human Development Report*. New York, Oxford University Press.

ere jakitun izanik komunitate indigenek ekologiaren eta medikuntzaren alorretan duten ezagutzari ere eragiten diola, haren jabe egiten ari baitira munduko enpresak. Horren aurkako jarrerak ari dira sortzen herri indigenetan. Sektore digitalean ere ari

Hezkuntza eta ezagutza guztion ondasun gisa hartu beharko genituzke. Horrek esan nahi du ezagutza sortzea, kontrolatzea, eskuratzea, baliozkotzea eta baliatzea herri guztiei dagokiela, *zeregin sozial kolektiboa den aldetik*.

dira pribatizazioaren aurkako mugimenduak sortzen; horren adibide Linux programa informatikoa da, erabiltzaileek askatasuna baitute jatorrizko produktua ikusteko, kopiaitzeko, banatzeko, aztertzeko, aldatzeko eta hobetzeko¹⁵³.

Kontuan izanik elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa den mundu honetan garapen jasagarria dela funtsezko kezka, hezkuntza eta ezagutza guztion ondasun gisa hartu beharko genituzke. Horrek esan nahi du ezagutza sortzea, kontrolatzea, eskuratzea, baliozkotzea eta baliatzea herri guztiei dagokiela, *zeregin sozial kolektiboa* den aldetik. Hezkuntzaren gobernantza eta ezagutzaren gobernantza ezin dira bereizita kontuan hartzen jarraitu.

Oinarrizko printzipioak babestea

Komeni da bereziki adieraztea hezkuntzari buruzko egungo nazioarteko diskurtsoak urratu egin ditzakeela hezkuntzaren alorreko politikek eta jardunbideek –estatutakoez zein nazioartekoek– abiapuntu izan dituzten oinarrizko printzipioak. Izan ere, *ikaskuntzaren* terminotan adierazitako diskurtso horren ardatza, funtsean, hezkuntza-prozesuen *emaitzak* dira, eta ez du kontuan hartzen ikaskuntzaren *prozesua*. Ardatz gisa hartzen diren emaitza horiek *ikaskuntzaren emaitzak* dira¹⁵⁴; hau da, *neurtzen* errazagoak diren ezagutza eta trebetasunak. Hala, ez da aintzat hartzen ikaskuntzaren emaitzen espektro askoz ere zabalago bat, bere baitan hartzen dituena ezagutza, konpetentziak, balioak eta jarrerak; horiek guztiek, hain zuzen, berebiziko garrantzia dute gizabanakoaren eta gizartearen garapenerako, eta ez dira neurtzen errazak. Horrezaz gain, konpetentzia eskuratzeko prozesu *indibidual* gisa hartzen da ikaskuntza, eta ez zaie askorik erreparatzen hezkuntzak duen helburuari buruzko gaiei eta ikaskuntzarako aukeren antolaketari buruzkoei; ez da *zeregin sozial kolektibo* gisa hartzen. Hezkuntza *guztionez* ondasun delako printzipioa urra dezake diskurtso horrek.

¹⁵³ www.linuxfoundation.org [2015eko otsailean egin zen kontsulta].

¹⁵⁴ 'Learning achievement refers to the actual skills, attitudes, values and level of knowledge acquired by the individual; it implies some measurement or demonstration that learning has occurred.' Guztiontzako Hezkuntzari buruzko Munduko Konferentzia. 1990. *Meeting Basic Learning Needs: A vision for the 1990s. Background Documents*. New York, Munduko konferentziarako erakunde arteko batzordea.

Egitekoak eta erantzukizunak, guztion ondasunen erregulazioan

Gizon-emakume guztion gizatasunean errotuta dauden elkartasunaren balioa eta justizia sozialaren balioa oinarri hartuta, ezagutzarako eta hezkuntzarako eskubidearen printzipioak –guztionez ondu diren aldetik– ondorioak ditu gizakiaren eta gizartearen garapen jasangarria eta inklusiboa lortzeko zeregin kolektiboan interesa duten eragileen egitekoei eta erantzukizunei dagokienez.

- **Gizarte zibilarentzat eta beste eragileentzat protagonismo handiagoa**

Eguno egoeran, ezinbestekoa da gizarte zibilak hezkuntzan protagonismo handiagoa eta zeregin zehatzagoa izatea. Hezkuntza publikoa salgai bihurtzeko joerari aurre egin behar zaio; horretarako, komunitateetako elkarteekin eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin itun sendoagoak lortu behar dira. Argi dago hezkuntza –era askotako funtzioak barne hartuta– ez dela gobernuaren erantzukizuna soilik, gizarte osoarena baizik. Hezkuntzaren sektorean gobernantza egokia izango bada, gobernuaren eta gizarte zibilaren artean era askotako itunak lortu behar dira, eta, horrez gain, hezkuntzari buruzko politikak diseinatu, gizartearen kontsulta zabala egin ondoren eta adostasun-maila handia lortuta.

Azken urteotan, hezkuntzaren alorreko enpresa eta fundazio askok finantzatzeko mekanismo berritzaile ugari sortu dituzte. Horrek berekin ekarri du itun eraginkor eta berritzaile gehiago adostea garapenaren aldeko elkarte guztien artean –estatuak, sektore pribatua, gizarte zibila, unibertsitateak eta herritarrak–, kanpoko eragileen ezagutza teknikoak, trebetasunak eta baliabideak sustatze aldera. Eraitza ikaragarri onak lortzen lagundu duten itunen adibide ugari daude, eta ondasun publikotzat hartu ohi diren inguruko itunek ere, hezkuntzaren ingurukoak, lortu dituzte eraitza onak.

Enpresa pribatuek ere, erantzukizun sozial kolektiboan parte hartzen duten aldetik, zeregin erabakigarria izan dezakete, hezkuntzan inbertituta, edozein direla enpleguko berehalako premiak. Indian, esate baterako, estatuak inbertitzera bultzatzen ditu enpresa pribatuak; hain zuzen, negozioaren fakturazioaren %2 inbertitzera. Enpresen gizarte-erantzukizuneko funts kolektiboak erabil daitezke, egoera ahulean dauden komunitateen premia sozialei eta hezkuntzaren alorreko aurre egiteko. Baliabide osagarri horiek lortu ahal izateko, agian araudi bat behar da, kasuan kasuko enpresari zerga-onurak emate aldera.

- **Estatuaren egitekoa sendotu, guztion ondasunen erregulazioan**

Gaur egun ekonomia globalizatuta dagoela eta merkatua librea dela jakinik, estatuak guztion ondasunak eskuragarri daudela ziurtatu behar du eta haien ingurukoak, erregulatu, batik bat hezkuntzaren alorrekoak. Hezkuntza ezin da merkatuaren esku utzi erabat, aukera-berdintasuna lortzeko hori baita lehen urratsa. Ikuspuntu horretatik, estatuak bi betebeharrak ditu:

Hezkuntza ezin da merkatuaren esku utzi erabat, aukera-berdintasuna lortzeko hori baita lehen urratsa.

1. Hezkuntza publikoa erreformatu eta profesional bihurtu, eta sektoreko ustelkeriaren aurka borroka egin; azken horri dagokionez, prozedura argiak ezarri behar ditu, kontuak emateko gizarteari.

2. Sektore pribatuak hezkuntzan nola hartzen duen parte ikuskatu eta erregulatu. Ikuskaritzak ez luke inondik ere administratiboa eta burokratikoa izan behar, ez eta polizia-ikerketaren tankerakoa ere. Ikuskaritza horren bidez, hezkuntzaren alorreko profesionalek –sektore publikokoek zein pribatukoek– onartutako arauak eta nazioarteko

araudiak aplikatzen direla ziurtatu behar du.

- **Gobernuarteko erakundearen egitekoa sendotu, guztion ondasunen erregulazioan**

Nazioarteko komunitateari dagokio guztion ondasunen gobernantza inguruko erantzukizuna. Gobernantza-eredu global egokia lortzea Nazio Batuen eta nazioarteko beste erakunde batzuen sistemaren berezko gaia da, eta haien arteko lankidetzak handiagoa izan behar du, bai politikan bai praktikan. Nazio Batuen agentziek funtzio teknikoak edukitzeaz gain, nazioarteko arauak xedatzeko egitekoa ere badute, guztion ondasunen gobernantza laguntze aldera; hain zuzen, ondasun hauen gobernantza: ezagutza, hezkuntza eta kultura-ondare materiala zein immateriala. Horri dagokionez, komeni da gogora ekartzea UNESCOk sustatze- eta koordinazio-lan handia egin duela bi arlotan: Munduko Pertsona Guztiontzat Hezkuntza programaren mugimenduan eta hezkuntzaren alorreko arau-proposamenak lantzen¹⁵⁵.

¹⁵⁵ Bray, M. eta Kwo, O. 2014. Regulating Private Tutoring for Public Good Policy Options for Supplementary Education in Asia. *CERC Monograph Series in Comparative and International Education and Development*, 10. zk. Comparative Education Research Center, Hong Kongeko Unibertsitatea.

■ Kontuan hartzekoak, etorkizunari begira

Giza eta gizarte-garapenarekiko kezka ondoia da eztabaida hau, eta munduan gertatzen ari den gizarte-aldaketan hautemandako joera, tentsio eta kontraesanak erakusten ditu, eta ezagutzarako sortu diren aukera berriak ere bai. Gizon-emakumeon ongizateari buruzko beste ikuspuntu batzuk aztertzeke eta egun dauden mundu-ikuskerak eta ezagutza-sistemak aintzat hartzeke beharra azaldu dugu, bai eta horiei guztiei eusteko premia ere. Hezkuntzaren ikuspegi humanistaren garrantzia berretsi dugu, oinarri izango dituen alderdi etiko eta moral berrituak. Hezkuntza-prozesu inklusiboa behar da, desorekak eragingo ez dituen, baizik eta ekitatea eta erantzukizuna ziurtatuko dituen. Adierazi dugu irakasleek eta gainerako hezitzaileek betetzen duten funtzioa oraindik ere garrantzi handikoa dela, pentsamendu kritikoa eta nor bere iritzia eduki dezan sustatuko bada, eta konformismo erraza eragotziko bada.

Testu honetan, hezkuntza-alorreko politikak egungo mundu konplexuan formulatzeko moduarekin zerikusia duten gaiak aztertu dira. Lehenik, hezkuntza formalaren eta enpleguaren artean dagoen etena onartu eta horri irtenbidea eman behar zaio. Bigarrenik, ikusita egun nazioarteko mugikortasuna handia dela, bai jarduera profesionalei bai ikaskuntza-eremuei dagokienez, ikaskuntza-alorra baliozkotzeko erronkari aurre egin behar zaio. Hirugarrenik, herritartasunerako hezkuntza aztertu behar da, eta oreka lortu aniztasunarekiko errespetuaren, balio unibertsalen eta gizon-emakume guztion gizatasunarekiko arduraren artean. Eta azkenik, hezkuntzaren alorrean estatuek politikak formulatzeak eta aldi berean gobernanta-eredu globalak gauzatzeak dakartzan zailtasunak aztertu ditugu. Nolanahi ere, oraindik ere erantzunik aurkitu ez diegun galdera asko ditugu.

Ezinbestekoa da egungo egoera kontuan hartuta aztertzea hezkuntzaren gobernanzaren oinarriko printzipioak, eta bereziki hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntzaren printzipioa, ondasun publikoa den aldetik. Proposatzen da hezkuntza-alorreko politikan gehiago erreparatzea ezagutzari eta ezagutza hori sortzeko, eskuratzeko, baliozkotzeko eta baliatzeko moduei. Proposatzen da hezkuntza eta ezagutza aintzat hartzea –guztion ondasun diren aldetik–, oso abiapuntu baliagarria izan daitekeelako ikaskuntzaren xedea eta antolaketa bateratzeko, zeregin sozial kolektiboa baita etengabe aldatzen ari den mundu honetan.

Ezinbestekoa da egungo egoera kontuan hartuta aztertzea hezkuntzaren gobernanzaren oinarriko printzipioak, eta bereziki hezkuntzarako eskubidea eta hezkuntzaren printzipioa, ondasun publikoa den aldetik.

Modurik egokiena denon artean hitz egitea dela kontuan hartuta, hona hemen eztabaidarako zenbait galdera:

Nahiz eta hezkuntzaren lau zutabeak –ezagutzen, egiten, izaten eta elkarrekin bizitzen ikastea– inoiz baino baliozkoagoak izan, arriskuan daude globalizazioa nagusitu delako eta politika identitarioak sortu direlako. Zer egin daiteke lau zutabeak sendotze eta eguneratze aldera?

Nola lagundu dezake hezkuntzak jasangarritasun ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa lortzen? Nola lor daiteke ikuspegi humanista, hezkuntzaren alorreko politiken eta jardunbideen bidez?

Nola uztartu daitezke era askotako mundu-ikuskerak, hezkuntzaren ikuspegi humanista abiapuntu hartuta? Zer alde on eta zer alde txar eragiten ditu globalizazioak hezkuntzaren alorreko politiketan eta erabakietan?

Nola finantzatu beharko litzateke hezkuntza? Zer ondorio eragingo litzuke irakasleen prestakuntzan, trebakuntzan, bilakaeran eta diru-sarreran? Ondasun pribatua, ondasun publikoa eta guztion ondasuna bereizteak, zer ondorio dakartza hezkuntzan?

Nazio Batuen Erakundea da UNESCO, hezkuntzan espezializatua, bai eta zientziarekin, kulturarekin eta komunikazioarekin zerikusia duten arloetan ere. Horrenbestez, berezkoa duen funtzioa –*ideien laborategia*– sendotu egin beharko luke, munduan garapenerako dauden joerak eta haiek hezkuntzan eragiten dituzten ondorioak aztertzeko. Izan ere,

hori bat dator UNESCOk hezkuntzarekiko duen xedearrekin, adituen taldea den aldetik.¹⁵⁶ Politikak bakarka diseinatzeak ia ezertarako balio ez duenez, eragile guztiek elkartu egin beharko lukete, norik bere ikuspuntua duela, ikerketen emaitzak elkarri jakinarazteko eta politika publikoak formulatzen laguntze aldera printzipio arauemaileak antolatzeke.

Ezin dugu ahaztu UNESCO berezia dela Nazio Batuen sistemaren barruan; izan ere, sare asko ditu, hala nola Batzorde Nazionalak munduan barrena, UNESCO katedrak eta erakunde espezializatuak. Sare horiek xedea ebaluatzeke balia daitezke, eta hezkuntzaren jarduna aldian-aldian ebaluatzeke ere bai, egoerak eta premiak aldatzen diren heinean. Hori behatoki iraunkor baten bidez gauzatu liteke, garapen-joerak eta haiek hezkuntzan eragiten dituzten ondorioak aztertzeke eta jakinarazteke.

Eragile guztiek elkartu egin beharko lukete, norik bere ikuspuntua duela, ikerketen emaitzak elkarri jakinarazteko eta politika publikoak formulatzen laguntze aldera printzipio arauemaileak antolatzeke.

¹⁵⁶ Elfert, M. 2015. UNESCO, the Faure Report, the Delors Report, and the Political Utopia of Lifelong Learning. *European Journal of Education*. 50. liburukia, 1. zk., 88-100. or.

Historiaren aro berri bati eman diogu hasiera, zientzia eta teknologia etengabe eta azkar garatzen ari den aro bati, eta aukera utopikoak eta distopikoak eskaintzen ditu aldi berean. Zientzia eta teknologia guretzat lagungarriak izan daitezten modu jasangarri eta bidezko batean emantzipatzeko, ezinbestekoa da aukerak eta arriskuak ulertzea zein kontrolatzea. Horrek izan behar luke hezkuntzaren eta ikaskuntzaren xede nagusia XXI. mendean. Era berean, UNESCOren egiteko nagusiak, ideien munduko laborategia den aldetik, aukera horiek hobeto ulertzen laguntzea izan beharko luke, gizadiari laguntzeko eta gizon-emakume guztien ongizateari eusteko. Argitalpen honen xedea eztabaida sustatzen laguntzea da.

Egun bizi garen mundu honek aldaketa, konplexutasuna eta paradoxa ditu ezaugarri bereizgarri. Hazkunde ekonomikoaren eta aberastasuna sortu izanaren ondorioz, pobrezia behera egin du, nazioarteko adierazleek erakusten dutenez. Baina kalteberatasuna, berdintasun-eza, bazterketa eta indarkeria areagotu egin dira gizarteetan, mundu osoan. Ekonomia-jarduerako eta kontsumoko eredu ez-iraunkorrek planeta berotzea, ingurumena hondatzea eta natura-hondamendiak larriagoak izatea eragin dute. Horrez gain, nahiz eta azken hamarkaden joanean giza eskubideen alorrean nazioarteko esparruak sendotu egin diren, oraindik ere zaila da araudi horiek aplikatzea eta babestea. Eta, gainera, nahiz eta aurrerapen teknologikoei esker interkonexioa nabarmen hobetu den, eta trukerako, lankidetzarako eta elkartasunerako aukera gehiago sortu diren, ugaritzen ari dira intolerantzia kulturala eta erlijiosoa, identitatea oinarri duten mobilizazio politikoak eta gatazkak. Aldaketa horiek nabarmen erakusten dute munduan ikaskuntzarako testuinguru berria sortu dela, eta hezkuntzan berebiziko garrantzia duten ondorioak eragiten dituela. Inoiz ez da hain premiazkoa izan hezkuntzaren helburua zein den eta ikaskuntza nola antolatu behar den berriro aztertzea.

Liburu honen bidez elkarrizketarako deia egin nahi da. Horretarako, hezkuntzaren eta garapenaren ikuspegi humanista hartu da aintzat, alderdi hauetan oinarrituta: bizitzaren eta giza duintasunaren errespetua, eskubide-berdintasuna, justizia soziala, kultura-aniztasuna, nazioarteko elkartasuna eta etorkizun iraunkorraren aldeko denon erantzukizuna. Hezkuntza eta ezagutza denon ondasun bihurtzea proposatzen dugu, hezkuntzaren helburua eta antolaketa-modua adostuz, egungo mundu konplexuan guzti-guzti on zeregin soziala den aldetik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA